

2



4



donostia
kultura 2024



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



5

Donostia Kultura
Balantzea

15

Egitura eta balantze
ekonomikoa

19

Komunikazioa
eta irudia

25

Donostia Kultura
Bazkideak

31

San Telmo Museoa

47

Kultur Etxeak

- 47 Kultur Ekintza
- 59 Aiete
- 67 Casares-Tomasene /
Larratxo
- 77 Egia
- 87 Ernest Lluch
- 95 Intxaurrenondo
- 103 Larrotxene
- 109 Loiola
- 119 Lugaritz
- 125 Okendo

133

Liburutegiak

149

Programazioa

- 149 Arte Eszenikoak
- 165 Musika
- 169 Zinema eta
ikus-entzunezkoak

173

Festak

193

Jaialdiak

- 193 Donostiako Jazzaldia
- 201 Glad is the Day
- 205 Fantasiatzko eta
Beldurrezko Zinemaren
Astea
- 209 Giza Eskubideen Zinemaldia
- 213 Literaktum
- 217 dFeria
- 223 Dkluba
- 227 Poltsiko Antzerkia

231

Ekoizpena

Gozatu
Disfruta
Donostia
Kultura
donostiakultura.eus

Donostia Kultura Balantzea

2024



Donostia Kultura Balantzea

Parte-hartze datu bikainekin itxi du 2024. urtea Donostia Kulturak.

Adibidez: **Jazzaldiak 185.600 lagun erakarri** zituen bere 59. edizioan, eta ordainpeko ikuskizunen erdietan agortu egin ziren sarrerak. San Telmo Museoak, halaber, berriro gainditu zuen **150.000 bisitariren** kopurua (151.290, zehazki), izen handiak protagonista izan zituzten erakusketei esker, hala nola **Chillida, Basterretxea, Martín Santos, Galarza** eta **Azkarate**.

Liburutegien eta Kultur Etxeen kasuan ere igo egin ziren zifrak. Horrela, **milioi bat bisita baino gehiago jaso zuten berriz ere Kultur Etxeek**, 1.008.400 hain zuzen ere. Liburutegietako zerbitzuetan gertatutako igoerari (**870.197 bisitari**), programatutako **5.804 jardueri** eta egindako **ikastaroei (580)** esker gertatu zen hori. Izan ere, Adimen Artifizialaren aro honetan, are ezinbestekoagoa eta indartsuagoa da aurrez aurreko kultura. Horixe erakusten du **Donostia Kulturako Liburutegien sareak egunean 3.151 lagunen bisita** jaso izanak; gainera, **480.923 mailegu** egin ziren, eta **1.907 jarduera eskaini** zitzaizen 42.384 laguni.

Horrek guztiak adierazten du Donostia Kulturak hazten jarraitzen duela, baina, batez ere, **hiri honen kultura-osasunaren erakusgarri** da. Izan ere, herritarrak zein sektorea lagun izan zituen Donostia Kulturak 2024ko ekitaldian. Horixe berresten du sarreren salmentak: **3,5 milioi euro inguruko** diru-sarrerak eskuratu ziren **sarreren salmentarekin** (193.000 ikuskizunetan, eta 151.290 San Telmo Museorako sarreretan). Horri babesletzak gehitzen badizkiogu, **6 milioi euro baino gehiagoko diru-sarrerak** izan zituen Donostia Kulturak; eta Udalaren 26 milioi euroko ekarpenarekin, **32 milioiko aurrekontua** izan zuen Erakundeak.

Markak hautsi ziren, halaber, Donostia Kultura klubeko **bazkide** kopuruari dagokionez ere.

125.265 txartel daude dagoeneko, horietako 5.055 berriak, 2024koak, eta %76 donostiarren eskutan daudenak. Erabiltzaile aktiboen portzentaje handiena Amarako bizilagunek osatzen dute (%18); ondoren daude Gros (%13) eta Antiguoa (%11); adin-tarteari dagokionez, 46 eta 64 urte bitartekoena da multzo handiena (%41,61), eta 30 eta 44 urte bitartekoena hurrengoa (%24,80). Eta gehienak emakumeak dira: %60, eta gizonezkoak %40.

Sektoreak ere ondo erantzun zion Donostia Kulturaren inbertsio gero eta handiagoari.

7.943.871€ bideratu dira zuzenean **sortzaileengana** (%3 gehiago), eta -guztira- 12.000.000€-ko ekarpena egin da tokiko kultura-industriarako.

Hona hemen azkeneko bi datu: 2024an, **langileak egonkortzeko prozesua amaitu** zuen Donostia Kulturak eta, aldi berean, Enplegu Eskaintza Publikoko deialdi arrunt berriak ireki zituen. Eta erakundearen Ekoizpen Unitateak maila handiko 683 ekoizpen eszeniko egin zituen.





Publikoa lagun izan zuen Donostia Kulturak 2024an, 350.000 sarrera salduta.



Donostia Kulturak 8 milioi euro inguruko zuzeneko inbertsioa egin zuen sortzaileetan.



Kultur Etxeek berriro gainditu zuten milioi bat bisitariren kopurua 2024an, eta Donostia Kultura osoak berreskuratu zituen pandemia aurreko zifrak (errekor berrieekin).

Ikus dezagun informazioa modu xehatuagoan, departamentuz departamentu edo programaz programa:

Kultur Etxeak

Esan bezala, milioi bat erabiltzaile baino gehiago izan zituzten kultur etxeek, eta nabarmendu behar da, jaialdi handien hiri honetan, batzuetan ahaztu egiten zaigula herritarrak nola inplikatzaren diren askoz sarriagoa (egunerokoa, askotan) eta parte-hartzaileagoa (ikastaroak, lehiaketak, liburu-maileguak, etab.) den kultura-eskaintza batean. 2024. urtean, pandemia baino lehenagoko parte-hartze zifrak lortu ziren berriz ere.



2024KO EKITALDI NABARMENAK

Egia Kultur Etxeak koordinatzen duen **Glad is the Day** jaialdiak arrakasta itzela izan zuen. 15.000 lagun baino gehiagorekin, Egia eta inguruak musikaz, jardueraz eta giro paregabeaz bete zituen jaialdiak, kultura-egutegiaren barruan ekitaldirik gustukoenetako bat bezala finkatuz.

Literaktum literatura jaialdiak *Letrak zeruertzean* gaia izan zuen erdigunean, eta espektatiba guztiak gainditu zituen, 8.400 lagunaren parte-hartzearekin. Kalitatezko egitarau anitzarekin, berriro erakarri zuen dagoeneko leiala den publikoaren arreta, hiriko kultura-erreferenteetako baten bere lekua berretsiz.

Poltsiko Antzerkiak, harritzeko eta entretenitzeko duen helburuari irmo eutsiz, tabernetara eta hurbileneko espazioetara eraman zituen arte eszenikoak, publikoaren harrera bikainarekin.

Egia Kultur Etxearen **dantza eta zirkuzirkuituek** erakargarritasun handia izaten jarraitu zuten Gazteszenan, proposamen berritzaileak eta kalitate handiko ikuskizunak konbinatuz.

Udal Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan antolatutako **Bilintxen menda** jardunaldietan, izen handiko bertsolariek hartu zuten parte, hala nola **Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus** eta **Beñat Gaztelumendik**.



IKASTAROAK ETA ZERBITZUAK

Ikastaroek jarraitzen dute izaten eskari handieneko zerbitzuetako bat. 2024an, **580 ikastaro inguru** bete ziren (900 baino gehiagoko eskaintza batetik), eta **9.718 donostiarrek** hartu zuten parte; horrela, kultur etxeek indarra hartzen jarraitu zuten milaka lagunentzako, ikaskuntza eta garapen pertsonalerako gune gisa.



San Telmo Museoa

2024a oso urte positiboa izan zen. San Telmo Museoak publikoaren erantzun bikaina jasotzen jarraitu zuen erakusketen eta bestelako jardueren arloan egin zituen proposamenetan, eta aurreko urtekoaren antzerakoa izan zen bisitarien guztizko zifra: **151.290 bisitari**; horrela, aurrez gertatutako igoera nabarmenarekin jarraitu zuen. 2024. urtearen kasuan ere, azpimarratzekoa izan zen museoko bazkideen etengabeko babesa.

Hiru urteurrenek hartu zuten protagonismoa programazioan –**Chillida**, **Basterretxea** eta **Martín Santos**–, eta **Galarza Funtsaren** argazkiak eta **Isabel Azkarateren** lanaren lagin bat ere jarri zituen ikusgai.

Euskal sorkuntza garaikidea euskal artearen aretoaren eraberritze garrantzitsu batekin aurkeztu zen museoan, **100 urte. Modernoa eta/edo garaikidea** erakusketarekin, eta Museo Bikoitza eta Artea Abian proiektuekin; **Maddi Barberrek** eta **Xare Álvarezek** hartu zuten parte proiektu horietan.

Gainera, *Nabarmendutako obra* programa jarri zen abian; programa horren barruan, pieza bereziak aurkeztu ziren, tartean, Vilcheseko kondesaren koadroa, Prado Museoaren **Lotzen gaituen artea** egitasmoaren eskutik iritsi zena Donostiara, bai eta garai bateko Kursaal Kasinotik berreskuratutako margolan bat ere.

Sormenarekin eta ondarearekin lotutako jarduerak hartzen dituen *Erronkak* programaren barruan, argazki-liburuaz gain, askotariko hitzaldiak, tailerrak, topaketak eta aurkezpenak batzen zituen programazioa antolatu zuten.

Museoak ondarearen inguruan lanean jarraitu zuen; alde batetik, objektuen kontserbatu eta zaharberrituta eta, bestetik, erosketen eta dohaintzen bitartez, pieza berriak eskuratuta.

Euskal kulturarekin eta gizartearekin lotura duten **554 objektu eta artelan** eskuratu ziren 2024an, erosketa edo dohaintza bidez.

Horien artean, nabarmentzekoa da **Tomás Hernández Mendizabal** artistaren 501 bozetoz eta kartelez osatutako sorta, beste hainbat egileren lanekin batera, hala nola **Juan Pérez Agirregoikoa**, **Damaris Pan**, **Néstor Basterretxea**, **Elena Asins**, **Idoia Montón**, **Remigio Mendiburu**, **José Antonio Sistiaga**, **Itziar Bilbao** eta **Rosa Valverde**.

Urtean zehar, **367 objektu** zaharberritu ziren. 2024an, 10.000 bat lagunek egin zituen bisita gidatuak museoan.



Liburutegiak

2024an, Donostiako liburutegi-sareak **%6,79ko igoera izan zuen mailegu kopuruari dagokionez, eta %10,68koa, berriz, bisitari kopuruari dagokionez**. 870.197 bisitari izan zituzten liburutegiek (3.151 lagunekoa da eguneroko bisitari kopurua), eta 480.923 mailegu eta 1.907 jarduera egin ziren, 42.384 lagunene parte-hartzearekin; horrenbestez, aurreko urtearekiko %9,86ko igoera izan zuen bertaratutakoen kopuruak.

480.923 mailegu egin ziren guztira, **1.743 mailegu egunean**. Guztizko kopuru horretatik, 174.517 haur-liburuen maileguak dira, aurreko urtean baino %10,25 gehiago. **Biztanle bakoitzeko maileguen kopurua 2,57koa** izan zen (186.667 biztanle), beraz, Espainiako batez bestekoaren barruan mantendu zen, eta Europako batez bestekotik gertu (biztanle bakoitzeko 3 mailegukoa da Europako batez bestekoa).

2024an mailegu gehien egin zuen liburutegia Liburutegi Nagusia izan zen, **99.853** mailegurekin, aurreko urtean baino %7,43 gehiago; Okendoko Liburutegia gelditu zen hurrengo postuan rankingean, 71.702 mailegurekin, eta ondoren Ernest Lluch, 70.695ekin; horien kasuan ere igo egin zen mailegu kopurua aurreko urtearekiko, %3,15 eta %6,10, hurrenez hurren. Horien ondoren

daude Aieteko liburutegia, 53.679 mailegurekin, eta Tomasene liburutegia, 33.437ekin. Gainerako liburutegiek ere oso urte ona izan zuten, izan ere, guztietan igo edo mantendu zen mailegu kopurua.

Funts bibliografikoen **erosketa-gastua** 321.340 eurokoa izan zen; kopuru horretatik, 132.000 euro gastatu ziren literaturan. Gainera, 88.915 euroko gastua egin zen aldizkako argitalpenetan. Guztira, beraz, **410.255 euroko** gastua egin zen, hau da, biztanle bakoitzeko 2,20 eurokoa, eta bazkide bakoitzeko 3,77 eurokoa, iaz baino %13,51 gehiagokoa. Garrantzitsua da azpimarratzea Donostia Kulturak material berriak erosteko egiten duen ahalegin ekonomikoa, irakurleak lan berriez gozatu ahal izan dezan.

Irakurketa-kanaletan inskribatutako bazkideen kopurua 108.937 lagun edo erakundetara iritsi zen, 5.000 bazkide berrirekin. Horietatik 28.264 bazkide aktiboak izan ziren, hau da, mailegu-zerbitzua gutxienez behin erabili dutenak; bazkide guztien %26,36 izan ziren.

Horregatik guztiagatik, Donostia Kulturaren indar bultzatzaile nagusiak eta, ondorioz, baita hiriko kultura-eskaintzarenak ere.

Jaiak

2024ko edizioan, **154 danbor-talde mistok**, gizonezkoz osatutako bostek eta emakumez soilik osatutako batek hartu zuten parte. Danbor-taldeen euren emandako datuen arabera, **21.306 helduk** hartu zuen parte danbor-talde horietan; emakumeak izan ziren %54,23, eta %45,76 gizonezkoak.

Abuztuaren 11tik 17ra ospatu zen **2024ko Aste Nagusia**. Guztira, **376 jarduera** antolatu ziren zazpi egun horietarako. Aste Nagusi **bikaina** izan zen, **aho-zapore oso ona** utzi zuen, eta ia ez zen gora-behera aipagarriarik egon. **59.000** lagun

joan ziren **Saguseko** kontzertuetara. Eta **585.00 bat lagunek** gozatu zuten astean osoan zehar **piroteknien bildumez**.

Hona hemen jaiekin lotutako beste zifra batzuk: 2024ko Aratusteetako 26 konpartsak; San Joan bezperako 20 suak; Euskal Jailetako 60 ekitaldiak; San Tomas azokako 162 postuak; eta Kontxako Banderako estropadetako emakumezkoen 20 traineruak eta gizonezkoen 23 traineruak. Donostiako Arraun Lagunak eta Bermeo izan ziren irabazleak.

Jaialdiak

JAZZALDIA

Erabateko arrakasta izan zuen **Donostiako Jazz Jaialdiaren 59. edizioak**, alde batetik, izan zuen maila artistiko eta musika-maila bikainagatik eta, bestetik, jendearen erantzun ezin hobeagatik, ia kontzertu guztiak egon baitziren jendez gainezka; guztira, **185.600** entzule izan zituen jaialdiak.

165.000 lagun erakarri zituzten **doako** kontzertuek, eta **20.604 lagun**, berriz, **ordainpekoek**; horrela, Jaialdiaren historiako marka guztiak hautsi ziren. 32 herrialde ezberdinetatik erosi ziren sarrerak, 13 kontzertutan agortu egin ziren, eta salgai jarritako zenbakitutako sarrera guztien %88,8 saldu ziren.



GIZA ESKUBIDEAK

8.001 ikusle joan ziren Jaialdiko zinema-proiektzioetara. Konpromisoa eta kontzientzia eraikitzen lagundu nahi duen jaialdi honen aurtengo edizioa apirilaren 12tik 19ra ospatu zen. Erantzun bikaina jaso zuen publikoaren aldetik, eta euskal zinemaren presentzia handia izan zen, baita palmaresean ere.

BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

35. Astea (urriak 25-azaroak1) berriro izan zen fantasiako eta beldurrezko nazioarteko zinematik onenaren erakuslelhoa. Kalitate eta aniztasun jaia, proiektzioetara **11.318 ikusle** erakarri zituen (2023ko edizioan baino gehixeago); gainera, **9.735 lagunek** hartu zuen parte aldi berean antolatu ziren jardueretan.




DFERIA

XXX. urteurrena ospatu zuen dFERIAk, eta sentsazio bikainekin, gainera. **14.284 lagun** izan ziren antolatutako jarduera guztietan: 8.227 ikuskizunetara, batez beste %84,48ko okupazio-mailarekin, eta 6.057 dFERIAko jarduera profesional eta ekitaldietara.

Proposamenei dagokienez, ikuskizunen kopuru handi bat (%60) estreinaldiak izan ziren modu batean edo bestean: bi mundu mailan, beste bat Europa mailan, hiru estreinaldi Estatuan eta hamar Euskal Herrian. Diziplinei dagokienez, %52 antzerkia izan zen, beste %44 dantza, %4 diziplina anitzak. Konpainien jatorriari dagokionez, %40 euskal konpainiak izan ziren (10), %36 espainiarrak (6) eta %24 nazioartekoak. Italia, Kuba eta Argentinakoak izan ziren jaialdian parte hartu zuten nazioarteko konpainiak.

Akreditatutako lagunen kopuruak dFERIAk izandako marka guztiak hautsi zituen eta 2023arekin alderatuz ia %14 igo da. Guztira, **614 profesional** etorri ziren. Horietatik, 228 programatzaileak,



76 banatzaileak, 204 ekoizleak edo konpainia-ordezkariek, 55 erakundeak, 23 kazetariak eta kritikariak, eta 28 beste sektore batzuetako profesionalak. Nabarmendu behar da **nazioarteko profesionalen** kopuruak ere hazkunde handia izan duela, %27 ingurukoa, 2023ko datuekin alderatuta. Edizio honek nazioarteko 71 akreditatu izan ditu, eta horietatik 49 programatzaileak eta nazioarteko jaialdiak izan dira. Nazioarteko akreditatuen jatorriari dagokionez, hainbat herrialdetatik etorri dira: Italia, Lituania, Ukraina, Finlandia, Eslovenia, Georgia, Norvegia, Txile, Uruguai, Kolonia, Brasil...

Programazioa

ZINEMA

Donostia Kulturak programatzen duen asteroko Nosferatu zikloak berriro heldu zion Tabakaleran zinema-genero jakin bati, aurtengoan, **Western** estatubatuarrari (1962az geroztikoa). Hogeita hamar proiektio liluragarri baino gehiago egin ziren, pantaila handiak gozatuak izateko pentsatutako zintak berreskuratuz.

Aurrera jarraitu zen Donostia Kulturak diruz lagundutako formatu ertaineko jaialdiekin, hala nola **Dock of the Bay XVIII** (ekainean), film laburren **Donoskino VIII** (urrian), eta **Itsaspeko 48. Zinema Jaialdia** (azaroan). Azkenik, **Bang Bang Zinemak** bere programa bikoitz arrakastatsuak eskaini zituen, horietako bat Beldurrezko Zinemaren Astearekin lankidetzan, eta ez-ohiko beste bat, bere hamargarren urteurrenaren harira.





Arte Eszenikoak

15 ikuskizunek osatu zuen udako antzerki-programazioa. Bi hilabete eta erdiz, **27.000 ikus-entzule** erakarri zituzten Victoria Eugenia Antzokira eta Antzoki Zaharrera, antolatutako **75 emankizunek**.

Iturritik Dantza Jaialdiaren hirugarren edizioa urriaren 15etik 20ra ospatu zen. Guztira, lau dantza-ikuskizun egin ziren aretoan eta beste bi kalean, gehienak euskal konpainienak: **Kukai Dantza, Gero Axular, Eskola Dantza Taldea, Aukeran Dantza Konpainia** eta **Berritza**.

Horrela, Euskal Herri osoan bakarra den **euskarazko antzerki-programazio** erregular bakarra finkatzea lortu dugu. Sortutako eskariaren ondorioz, 2024an, **10.355 ikus-entzule** izan dituzte Donostia Kulturaren eszenatoki ezberdinetan programatutako **22 ikuskizunek**.

Aipamen berezi merezi du **Donostia Antzerki Saria**, Euskadin euskarazko antzerkiari ematen zaion sari bakarrak; 2024an, **Aitziber Garmendia eta Telmo Irureta** protagonista dituen **Sexberdinak** obrak jaso zuen saria.

13

MUSIKA

Guztira, 23.000 zale erakarri zituzten hiru programazio-bloke handietako 55 kontzertuek:

Bertako proposamenak: **Eñaut Elorrieta, Neomak, Merina Gris, Queralt Lahoz, Ruper Ordorika, Mikel Erentxun, Sara Zozaya, Easo Abesbatza, Idoia Asurmendi** eta **Maite Larburu**, besteak beste. Estatu eta nazioarte mailako musikariei dagokienez, **Zaz, Ismael Serrano, Yera Cortés, Israel Fernández** eta **Diego el Morao**.

Musika klasikoak ere izan zuen bere tokia **Donostia Musikak (Andoni Mercero, Josetxu Obregón, Conductus ensemble...)** eta Batura musika zikloak sustatutako proposamenei eta Sasibil Elkarte Lirikoak eskainitako zarzuelei esker (**La Tabernera del Puerto, La Revoltosa** eta **El Caserío**).

Nabarmentzekoa da **Adarra Saria**, euskal musikaren arloko saririk prestigiotsuena, 2024an Donostia Kulturak **Errobi** folk-rock bikoteari (**Anje Duhalde eta Mixel Ducau**) eman ziona.



Donostia Kulturak hazten jarraitzen du, jarduera, bisitari eta ikusle kopuruari dagokionez. Eta bere handitasunaren erakusgarri, 16 zentroetan egun batean gertatzen diren gauzetako batzuk jasotzen ditu grafiko honek, erakundeak kudeatzen dituen arte eta diziplina guztiei zein herritarren parte-hartzeari dagokionez.

Edozein egun DKn

(batez bestekoa)

EKITALDIAK

20 jarduera edo ekitaldi
2,5 ekitaldi ekoizten dira



LIBURUTEGIAK

3.151 bisita
1.743 mailegu



KULTUR ETXEAK

4.732 bisita



SAN TELMO MUSEOA

700 bisita



ASTE NAGUSIA

53 jarduera / egun 1



JAZZALDIA

30.000 ikusle / egun 1



DANBORRADA

21.000 danbor-jole heldu / egun 1
5.000 haur danbor-jole / egun 1



INBERTSIOAK

26.415 € bideratzen dira sorkuntzara
46.415 €ko inbertsioa tokiko industrian

Profila: erabiltzaile donostiarra, emakumea, Amarakoa eta 45 urte ingurukoa

Egitura
eta balantze
ekonomikoa

2024

DK
memoria



Egitura eta balantze ekonomikoa

Administrazio-kontseilua

Lehendakaria
Eneko Goia Laso

Lehendakariordea
Jon Insausti Maisterrena

Kontseilariak

EAJ/PNV

Kerman Orbegozo Uribe
Nekane Mendarte Azkue

EH BILDU

Garbiñe Alkiza López de Samaniego
Markel Ormazabal Gaztañaga

PSE-EE

Iñigo García Villanueva
Iñaki Gabarain Gaztelumendi

PP

Borja Corominas Fisas

ELKARREKIN DONOSTIA

Arantza González García

Zuzendaritza-taldea

Zuzendari-gerentea:

Jaime Otamendi

Zuzendariaren teknikari laguntzailea:

Imanol Galdos

Administrazioa eta Baliabideak: **Rebeka Gallastegi**

Komunikazioa eta Irudia: **Jaione Askasibar**

Liburutegiak: **Arantza Urkia**

Kultur etxeak: **Jon Aizpurua**

Zinema: **Josemi Beltrán**

Jaiak: **María Jesús Torres**

San Telmo Museoa: **Susana Soto**

Musika: **Miguel Martín**

Antzerkia eta Dantza: **Norka Chiapusso**

Ekoizpena: **José Ignacio Abanda**

2024ko aurrekontua



Gastuak guztira:

32.195.807€



Diru-sarrerak guztira:

6.145.807€



Udalaren diru-ekarpena:

26.050.000€

Donostia Kulturaren zeharkako planak

Euskara Erabiltzeko Plana:

Euskaraz lan egiteko konpromisoarekin jarraitu zen aurten ere. Euskara plana berritu dugu 2024-2027 epealdirako eta erakunde guztian horren berri eman dugu.

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Plana:

Gure instalazioetako gune kritikoak analizatzeko proiektuan, San Telmon jarri dugu arreta eta zenbait ideia interesgarri landu dira.

Enplegua Donostia Kulturaren:

2024an estabilizazio prozesu guztiak amaitu dira eta LEP arruntak martxan jarri dira, 15 deialdi bere bidean doaz.





Nazioartean 2024an burututako lanaren balantzea

Nabarmentzekoa da arlo akademikotik jasotako eskarien hazkundera. Europako herrialde eta unibertsitate ugariatik jaso ditugu doktore tesiak zein master tesiak idazteko informazio-eskaerak. Horietako asko Donostiara bertara etorri dira, eta aurrez aurre erantzun diegu haien eskakizunei. Aipatu beharra dago ikerketa asko Kultur Hiriburutzen inguruan lantzen ari direla. Donostia 2016ak utzitako legatua eta hark izan zuen era askotako eraginak dira, besteak beste, ikerketen ardatz nagusienak.

Kultur Hiriburutzaren ildotik, hautagai diren hiri askok jo dute guregana aholku eta informazio eske. Hiriburutzen inguruko informazioa osatze aldera, hainbat kazetarik eskatuta, elkarrizketak eskaini dira Europako hainbat komunikabidetan.

Kultur agendak zabaltzen eta egokitzen ari direla kontuan hartuta, kulturak beste gai askorekin dituen harreman estuak landu dira nazioartean antolatutako ekimenetan. Horien artean, aipatzekoa da 2024ko irailean Dublinean izan zen **Climate on Culture** nazioarteko kongresua. Munduko bazter guztietatik ordezkaritza zabala elkartu zen hiru egunez, IMID nazioarteko erakundeak antolatutako kongresuan. Donostia eta Euskadiko gai honekiko begirada azaldu zen han emandako hitzaldi batean.

Europako 30 hiritako ordezkaritzek Culture Next Kongresuan parte hartu genuen, urriaren 16tik 18ra, Errumaniako Cluj Napoca hirian. Kulturaren esparruan European lan egiten duen sarerik indartsuenetakoa da.

Urrian, halaber, ECOC sareak urtero egiten duen batzarrean esku hartu genuen, Esloveniako Nova Goriza hirian. 2025ean, Alemaniako Chemnitz hiriarekin batera, Europako Kultur Hiriburutza kudeatuko du Nova Gorizak.

Otsailean, Elcheko Udalaren gonbitea jaso, eta hitzaldi bat eman genuen, Donostian kulturak duen pisua eta politika hizpide hartuta.

Komunikazioa
eta irudia

2024



Komunikazioa eta irudia

Jazzaldiaren eta dFERIA azokaren webguneak eraberritu ziren. Biak dira pixkanaka osorik eraberritzen ari den erakundearen ekosistema digitalaren parte (10 webgune baino gehiagorekin); eraberritze-prozesu honekin, helburua da Donostia Kulturaren marka ezberdinekin gero eta autonomia eta ikusgarritasun digital handiagoa lortzea.


Proiektu bietan lortu zen erabilera-esperientzia gozagarriagoa, funtsezkoa dena, programazioaren berri jasotzeko bide hori erabiltzen baita kasuen % 60an. Gainera, bilaketa-motor berriak gehitu ziren, azkarragoak eta seguruagoak; horrela, mugikorren esperientzia % 70ekoa da Jazzaldiaren kasuan. Gaur egun, akreditatuen eta profesionalen kudeatzaile bat garatzen ere ari gara; 2025ean jarriko da martxan intranet hori.



728.894 erabiltzaile izan zituen webguneak 2024an; horrek esan nahi du % 8,76ko igoera izan zuela. Halaber, 1.589.531 web-saio ireki egin ziren, eta **6,5 milioi web-orri kontsultatu** ziren. Kontsulta gehien jaso zuten edukiei dagokionez, agendarako sarrerak eta ikuskizunetarako sarrerak, ikastaro-eskaintzak eta Donostiako liburutegiak nabarmentzen dira.

Donostia Kulturaren komunikazio-tresna nagusia azpimarratu behar dugu: newsletterrak edo informazio-buletinak, batez ere bazkideei zuzenduta daudenak; DK txartelari buruzko atalean jasotzen den bezala, dagoeneko 150.000 kide ditu Donostia Kulturaren Kultura Klubak. 50.000 lagun inguru dira hileroko agenda jasotzea eskatu dutenak (49.443, zehazki); 25.047 lagunek, gainera, informazio hori astero jasotzea eskatu dute.

Sare sozialetako presentziari dagokionez, 2024. urte amaieran **194.657** jarraitzaile zituzten Donostia Kulturak kanal ezberdinetan dituen ia 30 kontuek: X (lehen Twitter) sare sozialak 82.133, Facebookek 60.113, Instagramek 49.204, eta Linkedinek 3.207; horrenbestez, 4.642 jarraitzaile berri dituzte guztira sare sozialek, nahiz eta urte amaieran sare sozial horien inguruko ziurgabetasunak zeuden.

Azkenik, DK-k 2.380 harpidetzak gainditu zituen YouTubeen eta, 2024an DK ON!-ek online bidez eskainitako edukien artean, San Telmo Museoen **Erronkak** programako hitzaldiak eta eztabaidak eta Jazzaldiko kontzertuak nabarmendu ziren.





DK OFFLINE

Gainerako komunikazio-bide, promozio eta marketin-ekintzei dagokienez, **113 prentsaurreko** egin zituen Donostia Kulturak 2024an (2023an baino %10,32 gutxiago; 126 egin ziren urte hartan), 241 prentsa-ohar bidali ziren, eta 116 literatura-aurkezpen egin ziren gure liburutegietan. Hona hemen beste zenbait datu: 330 iragarki argitaratu ziren prentsa idatzian, 226 dossier tematiko ireki ziren, 174 newsletter bidali (2023an baino %40,32 gehiago), eta 160 liburuxka edo programa sortu (aurreko urtean baino %11,11 gutxiago). Hona hemen azkeneko datu bat: 2.580 inpaktu jaso genuen, tokiko idatzizko komunikabideetan bakarrik.



2024an, gainera, Donostia Kulturaren irismena eta kultura-eskaintza azaltzeko dibulgazioko liburuxka bat editatu genuen; halaber, TGA diseinu grafikoko enpresarekin lan egin genuen, esku-egitarauak hobetzeko (irakurterraztasuna hobetzeko). Eta Ytantos estudioarekin, euskarri zabalgarriaren irudia aldatzeko eta dFERIA azokako akreditatuentzako motxila berri bat diseinatzeko.





DONOSTIA KULTURA IRRATIA

Erakundearen irratia da Donostia Kultura Irratia, eta Casares Kultur Etxearen arima. Casares-Tomasene Kultur Etxetik emititzen du, **FM 107.4 sintonian eta streaming bidez**. 2024an, 15 irratsaio ekoiztu ziren bere tailerretan, eta **Ispilu Beltza** saioaren emisioak egin ziren. Eta DK ON!-eko podcastek %18 entzule gehiago lortu zuten.

Hamaika Entzuteko! irrati-piezen lehiaketak, berriz, hamar urte bete zituen.

LARROTXENE BIDEO

Larrotxene Bideok **Narrazio Digitalen Laborategia** proiektua sortu zuen; horrela, ikus-entzunezkoen arloan eskaintzen duen materiala maileguan emateko eta aholkularitzako zerbitzuei gehitu zitzairen. Esparru horretan, **300 bisita baino gehiago eta espazioak eta materialak lagatzeko 67 eskaera** jaso zituen zentroak, aurreko urtean baino %20 gehiago.

Prestakuntza-eskaintzari dagokionez, bikoiztu egin zen aurreko urtearekiko. Horrela, ohiko izenei –**Oskar Tejedor, Pablo Malo, Michel Gaztambide, Unai Rosende eta Pello Gutierrez**, esaterako– beste batzuk gehitu zitzaizkien, **Edorta Subijana, María Elorza, Ander Iriarte eta Maider Oleaga**.

Argitalpenei dagokionez, DK-ren zinema sailak honako hauek editatu edo ko-editatu zituen: **100 urte. Modernoa eta/edo garaikidea, Kafka, lo kafkiano y el cine fantástico** eta **AEBetako western post-klasikoa eta garaikidea**. San Telmo Museoak, halaber, hainbat argitalpen sortu zuen 2024an, eta beste hainbatetan parte hartu zuen, guztiak ere aldi baterako erakusketekin lotutakoak, eta horietako batzuk **Bildumak** atalekoak. **Elkarrizketa bat: Chillida eta arteak / Una conversación: Chillida y las artes. 1950-1970; Donostiaren oroigarri: Galarza Argazki Bilduma / Recuerdo de San Sebastian: Fondo fotográfico Galarza; Makurtu / Pliegue. Xare Álvarez**, Artean bian proiektukoa, eta **100 urte. Modernoa eta / edo garaikidea | 100 años. Lo moderno y / o lo contemporáneo**. Gainera, **Luis Martín-Santos** eta **Isabel Azkarateri** buruzko argitalpenetan parte hartu zuen.



Donostiako Liburutegien Sarea liburuen edizioagatik edo ko-edizioagatik ere nabarmendu zen 2024an: Kike Otaegiren *Atotxa-Egia: Harresiz kanpoko ingurune batetik hiri espazio batera* liburua; *Elbira Zipitria andereñoa*, Antton Kazabonen testuekin eta **Jokin Mitxelenaren** ilustrazioekin; **Beñat Arrutiren** *Arkeologia Haragitan*, VII. Poesia Saria irabazi zuena; eta *Apalategien eta orrialdeen artean : bidaia bat liburutegien barrena*, **Arantza Urkia** zerbitzuko zuzendariak zortzi urtetan zehar idatzitako artikuluak biltzen dituena.



DK TXARTELA

Komunikazio-aktibo garrantzitsua da. Komunikazio eta Marketin sailak kudeatzen du Donostia Kulturako bazkideen kluba, eta 2024an dagoeneko **126.268 lagunek zuten DK txartela**, aurreko urtean baino 5.095 gehiagok. Kolektibo horren leialtasuna eta erabiltzaileen gogobetetasuna, oro har, funtsezko alderdiak dira erakunderako; horrenbestez, Donostia Kulturak berak kudeatzen du sarreren aurrez aurreko salmentarako hiriko gune iraunkor bakarra. **Victoria Eugenia Antzokiko** txartel-leihatila, hain zuzen ere. Hain zuzen ere, ia 50.000 bazkidek jasotzen dituzte Donostia Kulturaren informazio-buletinak: asterokoak, hilerokoak eta hiruhilekoak, edo sormen-diziplinaren araberakoak.



Gainera, 2024an mantendu egin ziren txartelak eskaintzen dituen abantailak, beste eragile batzuen hiriko kultura-eskaintzan ere deskontuak aplikatuz: **Zinemaldia, Dock of The Bay, Aquarium, BCC Basque Culinary Center**, etab.

DK
Bazkideak

2024



DK Bazkideak

2024. urte amaieran, **126.268** bazkide zituen Donostia Kulturak, aurreko urtean baino **5.095 txartel gehiagorekin**. Bazkide horietatik %60 emakumeak dira, eta %76 Donostiako biztanleak. 45 eta 64 urte artekoen adin-tartea da nagusi, eta 30 eta 44 urte artekoena jarraian. Auzoen arabera, Amarak jarraitzen du izaten kultura-zerbitzuen erabiltzaile gehien duen barrutia (%19); Amararen atzetik daude Gros (%13), Antiguu-Ibaeta (%11), Intxaurrondo (%11) eta Altza (%10).

Hau da Gipuzkoako klub handiena eta, bazkide-txartelaren bitartez, Donostia Kulturak herritar guztiei kulturaz gozatzeko aukera emateko duen nahia bideratzen da. Horren adierazgarri onenak dira udal liburutegien sareak duen erabilera handia (liburuak maileguan hartzeko erabiltzailea identifikatzeko balio du, besteak beste) eta programazio artistikoaren kasuan zaleen leialtasuna lortzeko ekintzak, hala nola zozketak, prezio murriztuak eta bestelako promozioak. Izan ere, **San Telmo Museoa**, **Victoria Eugenia Antzokiak**, **Principal Antzokiak**, **Imanol Larzabal aretoak**, **Intxaurrondok**, **Larratzok** eta **Gazteszenak** DK txartelaren bitartez kudeatzen dituzte publiko ezberdinengana hurbiltzeko haien estrategiak.





Bazkideen online atalean daude ikusgai abantaila guztiak. 2023an, dagoeneko **49.443 lagun zeuden erregistratuta**. Haiek dira erakundearen ekimenak ondoen ezagutzen eta bultzatzen dituztenak.

Izan ere, ikuskizunez gozatzeko abantailak izateaz gain, bazkideek gutxienez % 10eko deskontua dute ikastaroetan, argitalpenetan eta Donostia Kulturak sortzen dituen zerbitzu eta produktu guztietan. Txartelarekin, deskontu horretaz balia daitezke bazkideak **Basque Culinary Center & LABe jatetxean Tabakaleran, Zinemaldian, Musika Hamabostaldian, Chillida Lekun, Jazzaldian, Aquariumean, San Telmo Museoan, Dock of the Bay** jaialdian, **Udako Ikastaroetan**, etab.



Bestalde, **San Telmo Museoak** are abantaila gehiago eskaintzen ditu **STM&DK** txartel mistoarekin, hala nola museora doan sartzeko aukera eskaintzen du, inaugurazioetarako gonbidapenak eman, zozketak antolatu eta deskontuak aplikatu. Horiexek dira Donostiako museoari laguntzeko arrazoietakoz batzuk, orain inoiz baino gehiago.



Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen gaur egungo mapa:

DK **Bazkideak**
116.745

Webgunean erregistratutako
erabiltzaileak: 32.275

Buletinak

Izena emandakoak

Agendak

Hileko agenda	37.735
Asteko agenda (bazkideak)	16.687
Asteko agenda (ez bazkideak)	2.495


Gaikako buletinak

Zinema	13.651
Antzerkia	13.265
Dantza	7.730
Musika	14.242
Artea / Erakusketak	8.297
Literatura	8.016
Festak	7.920
Haurrak	4.649




Donostia Kultura Bazkideak: donostiarrak


- Donostiarrak: **95.908 (%75,96)**
- Ez donostiarrak **30.360 (%24,04)**



Bazkide donostiarrak auzoka



Bazkideak adin-tartearen arabera




Bazkideak sexuaren arabera



75.551
EMAKUMEAK




50.717
GIZONAK



Bazkideen garapena 2015-2024

Urtero izena emandako bazkide berriak



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan

San Telmo
Museoa

2024



SAN TELMO Museoa

2024a oso urte positiboa izan zen. San Telmo Museoak publikoaren erantzun bikaina jasotzen jarraitu zuen erakusketen eta bestelako jardueren arloan egin zituen proposamenetan, eta aurreko urtekoaren antzerakoa izan zen bisitarien guztizko zifra: **151.290 bisitari**; horrela, aurrez gertatutako igoera nabarmenarekin jarraitu zuen. 2024. urtearen kasuan ere, azpimarratzekoa izan zen museoko bazkideen etengabeko babesa.

Hiru urteurrenek hartu zuten protagonismoa programazioan –**Chillida**, **Basterretxea** eta **Martín Santos**–, eta **Galarza Funtsaren** argazkiak eta **Isabel Azkarateren** lanaren lagin bat ere jarri zituen ikusgai.



Izenbururik gabe, Néstor Martín Fernández de la Torre.
Nabarmendutako obra



Luis Martín-Santos. Tiempo de libertad erakusketa © Iker Azurmendi

Euskal sorkuntza garaikidea euskal artearen aretoaren eraberritze garrantzitsu batekin aurkeztu zen museoan, **100 urte. Modernoa eta/edo garaikidea** erakusketarekin, eta Museo Bikoitza eta Artea Abian proiektuekin; **Maddi Barberrek** eta **Xare Álvarezek** hartu zuten parte proiektu horietan.

Gainera, Nabarmendutako obra programa jarri zen abian; programa horren barruan, pieza bereziak aurkeztu ziren, tartean, Vilcheseko kondesaren koadroa, Prado Museoaren *Lotzen gaituen artea* egitasmoaren eskutik iritsi zena Donostiara, bai eta garai bateko Kursaal Kasinotik berreskuratutako margolan bat ere.

Argazki-liburuen programazioa ez dago *Erronkak* programaren barne, askotariko hitzaldiak, tailerrak, topaketak eta aurkezpenak batzen zituen programazioa antolatu zuten.

Museoak ondarearen inguruan lanean jarraitu zuen; alde batetik, objektuak kontserbatu eta zaharberrituta eta, bestetik, erosketen eta dohaintzen bitartez, pieza berriak eskuratuta.



Amalia de Llano y Dotres, Vilcheseko Kondea, Federico de Madrazo y Kuntz. Nabarmendutako obra

ONDAREA

BILDUMAK / DOKUMENTAZIOA

Euskal kulturarekin eta gizartearekin lotura duten **554 objektu eta artelan** eskuratu ziren 2024an, erosketa edo dohaintza bidez.

Horien artean, nabarmentzekoa da **Tomás Hernández Mendizabal** artistaren 501 bozetoz eta kartelez osatutako sorta, beste hainbat egileren lanekin batera, hala nola **Juan Pérez Agirregoikoa, Damaris Pan, Néstor Basterretxea, Elena Asins, Idoia Montón, Remigio Mendiburu, José Antonio Sistiaga, Itziar Bilbao** eta **Rosa Valverde**.

Urtean zehar, bildumako **23 pieza** irten ziren museotik mailegu gisa, hainbat erakundek antolatutako aldi baterako 14 erakusketatara. San Telmo Museoa ekoiztutako edo museoan egindako aldi baterako erakusketetan parte hartu zuten obrak gehitu behar zaizkie aurrez aipatutakoei. Museoaren bildumako 18 pieza hartu ziren **Elkarrizketa bat: Chillida eta arteak. 1950-1970** erakusketarako, eta beste 67, batez ere negatiboak plastikoen eta kristalean, postalak eta argazki-ekipoak **Donostiaren oroigarri. Galarza argazki bilduma** erakusketan erabili ziren; erakusketa horretan, Museoaren **Galarza Funtseko** 142 argazki ere erreproduzitu ziren.

Gordailua zentroan, ohiko erregistro-lanez, eta berriki eskuratutako bildumak atontzeko, argazkiak egiteko, aurrez aurreko kontsultei erantzuteko eta bildumak mugitzeko lanez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, Gordailua zentroaren eta EMSIME plataformaren datu-baseen artean datuak automatikoki batetik bestera eramateko aukera emango duten web zerbitzuak ezartzeko lan egin da. Bildumen artxibo eta dokumentazioaren esparruan, hainbat proiektu gauzatu zen, hala nola **Vicente Cobreros Uranga** pintorearen funtsaren dokumentazioaren erregistroa; beste erakunde batzuetan dauden museoaren bildumetako (San Telmo sakabanatua) piezen ikuskapena eta kontrola; azkeneko urteetan museoan sortutako paperezko

dokumentazioaren ikuskapena, garbiketa eta erregistroa, Ereiten Kultur Zerbitzuak enpresarekin; edo museoaren bilduman dauden emakume artisten egiletza-fitxen prestaketa, EMSIME plataforman sartzeko, **María José Aranzastiren** kolaborazioarekin.

Bestetik, EMSIME sistemaren webgune publikoko museoaren bildumen katalogoan handitu egin zen herritar guztien eskura dauden bildumen erregistro kopurua; 12.085 daude ikusgai orain.

Kanpo-kontsultako zerbitzuari dagokionez, dokumentazioa sortu zuten 80 kontsultari baino gehiagori erantzun zitzaion, eta irudiak erreproduzitzeko 50 eskabideri baino gehiagori. Barne kontsulta eta dokumentazioko zerbitzuak bereziki zorrotzak izan ziren San Telmon funts propioen presentziarekin egin ziren erakusketen behar dokumentalei erantzuna ematerako orduan. Halaber, erakusketa iraunkorreko euskal artearen aretoen aldaketa egiteko, dokumentazio-lan handia egin behar izan zen, baita bildumen mugimendua kontrolatzeko lan garrantzitsua ere.



Tomás Hernández Mendizabal



Néstor Martín-Fernández de la Torre artistaren *Sin título* obra zaharberritzea

KONTSERBAZIOA ETA ZAHARBERRITZEA

Urtean zehar, **367 objektu** zaharberritu ziren. Hauexek izan ziren departamentuaren proiektu nagusiak: hezetasunak kentzea Fundatzaileen Tribunan; fatxada historikoetan programatutako prebentziozko kontserbazio-lanak (lehenengo ikuskapena); euskal artearen aretoa eraberritzeko lanak; arte historikoaren aretoan Nabarmendutako Obra aurkezteko esku-hartzea; Kutxa Fundazioarekin lankidetzan, 2025eko urtarrilean inauguratuko den **Mari Paz Jiménez**en erakusketarako obren mailegua eta zaharberritzea prestatzea; **Néstor Martín-Fernández de la Torre** artistaren *Sin título* obra aztertzea eta zaharberritzea; **Tomás Hernández Mendizabal** artistaren funtseko 500 obra – kartelak, bozetoak, marrazkiak, etab.– Gordailuan sartzeko hautatzea, erregistratzea eta egokitzea; **Chillida, Basterretxea, Galarza** eta **Ipuscua 1000 urte** erakusketetarako muntatze-, desmuntatze-, erregistro-, kontserbazio- eta zaharberritze-lanak.

Gainera, **Amable Ariasen** koadro bat zaharberritu zen, eta berriki eskuratutako bildumako hainbat lan **markotan ipini** ziren (**Brossard, Asins, Sistiaga...**); 35 obraz –grafikoak, margoak, artista-liburua, argazkiak, etab.– osatutako **Estibalitz Álvarez**en funtsa kontserbatu, garbitu eta egokitu zen; **Nagelen Carmen pela la pava**

formatu handiko papereko *collagea* zaharberritu eta egokitu zen; **Gabriela Kravietzen** obra bat markoan ipintzeko prestatu zen; eta **Ángel Badosen Reconstrucción** lana lekualdatu, garbitu eta egokitu zen.

Prestakuntzako edo dibulgazioko jardueri

dagokienez, Argazkiak Kontserbatzeko Jardunaldien laugarren edizioa egin zen; 2024an, paper gaineko argazkien kontserbazioari eta zaharberritzeari eskainitako jardunaldiak izan ziren, **Rosina Herrerak** eta **Esther Llorcak** eskainitako ikastaro batekin. Ohi bezala, Kutxa Fundazioarekin batera antolatu ziren jardunaldiak. 2024an, bereziki zaharberritzaileei zuzenduta egon ziren; arrakasta handia izan zuten, eta kanpoko hainbat profesional etorri ziren (Madrilgo Untzi Museoa, Alcalá de Henareseko Administrazio Artxibategia, Toledoko Nobleziaren artxiboa...), bertako askorentzako bihurtu baita erreferentzia bat (Bilboko AAEEtako Museoa, Photomuseum, Iruñeako artxibategiak, Gipuzkoako Oñatiko eta Tolosako agiritegiak...).

Artelanen garraioari eta manipulazioari buruzko ikastaro bat ere egin zen, SIT enpresaren eskutik.

ERAKUSKETAK

ERAKUSKETA IRAUNKORRA


Erakusketa iraunkorrean, urte osoan zehar, ohi bezala, kontserbazio eta azpiegitura aldetik sortutako behar desberdinei erantzun diegu.

Horretaz gain, 2024. urtean, azpimarratzekoa da euskal artearen eraberritu dugula. **100 urte.**

Moderno eta / edo garaikidea erakusketarekin, iraupen luzeko aldi baterako erakusketa formatuari hasiera eman diogu. **Peio Aguirre** da komisarioa, eta 3-4 urteren buruan beste komisario batek egingo du irakurketa berria. Planteamendu aldaketa honi esker, museoak azken urteotan eskuratutako bildumak ikusgai jarri ditugu eta, era berean, Gordailuko eta Kutxa Fundazioko lanak batera jarri ditugu.

Bestalde, Elizan proiektatzen den ikus-entzunezkoa ere eguneratu egin dugu, baliabide teknikoak gaurkotu eta ikus-entzunezkoa horietara egokituz.

Nestor Basterretxearen ehungarren urteurrenarekin lotutako proposamena, bestalde, erakusketa iraunkorrean txertatu den ibilbide gisa aurkeztu da, museoaren erakusketa eta egilearen hainbat lan harremanetan jarritz.



100 urte. Moderno eta / edo garaikidea erakusketa
© Iker Azurmendi



ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

Aldi baterako erakusketen programa laburbiltzeko, esan dezakegu, alde batetik, **Chillida**, **Basterretxea** eta **Luis Martín-Santosen** oroitzapenezko ospakizunek markatutako urtea izan zela eta, bestetik, Estatu zein nazioarte mailako harreman instituzionalen aniztasuna nabarmen daitekeela.

Abenduan inauguratutako **Garuna(k)** erakusketarekin hasi zen urtea; organo liluragarri horri buruzko artista garaikideen artelanak eta proiektu zientifikoak batzen zituen erakusketak. Garuna da ezagutzen dugun objekturik konplexuena eta, maila zientifikoan zein filosofikoan, zalantza gehien sortzen dituen. 23.800 lagunek baino gehiagok bisitatu zuen, eta azpimarratzekoa da haren inguruan antolatutako jarduera kopurua ere.

Udan, **Elkarrizketa bat: Chillida eta arteak. 1950-1970** erakusketa-proposamenak gipuzkoar artistaren obra aurkeztzen zen, bere garaiko nazioarteko sormen-panoramarekin lotuta. Maila goreneko artelanak aurkeztu zituen erakusketak, eta erreferente diren museoan lankidetzat izan zuten. **María Bolaños** izan zen erakusketaren komisarioa, eta ekarpen berezia izan zen Chillida urtearen ospakizunaren barruan, azterketa zientifiko zorrotz


bat eta interpretazio sortzaile bat bateratuz. 40.000 bisita inguru izan zuen.

San Telmo Museoaren 2024ko erakusketa-egitaraua ixteko, donostiarren artean interes handia piztu zuen erakusketa bat egin zen. **Donostiaren oroigarri** erakusketak hiriak eta jendearen bizimoduak XX. mendearen lehenengo erdian bizi izan zuten eraldaketa ikusteko aukera eskaini zuen, **Gregorio González Galarza** eta haren seme **Carmeloren** 140 bat argazkiren bitartez. **Lola Horcajo** eta **Juan José Fernández Beobide** izan ziren proposamen honen komisarioak, eta **Galarza Funtsa** ezagutzera emateko aukera eman zuen; horixe da, hain zuzen ere, San Telmo Museoak kontserbatzen dituen argazki-bilduma garrantzitsuenetako bat.

Formatuari zein edukiari dagokionez berezia izan zen, bestalde, **Néstor Basterretxea eta San Telmo Museoa. Bilduma baten loturak** erakusketa; **Miren Vadillo** izan zuen komisario. Aldi baterako esku-hartzea izan zen museoaren aretoetan; bere bilduma iraunkorreko hainbat piezaren eta euskal artistaren obra esanguratsuen hautaketa baten arteko elkarrizketazko ibilbide bat, bere ezagutza aberasten duen ikuspegi berri bat eskaintzen zuena.




Néstor Basterretxea eta San Telmo Museoa erakusketa
© Iker Azurmendi



Elkarrizketa bat: Chillida eta arteak: 1950-1970 erakusketa

Formatu txikiagoan, Laborategi aretoko programazioa **Isabel Azkarate. Arte eta parte** erakusketarekin abiatu zen; horrela, donostiar fotokazetariarenganako aitorpenarekin bat egin zuen museoak. Eta **Luis Martín-Santos. Askatasun garaia** erakusketarekin amaitu zen Laborategiko egitaraua, hiriarekin lotura estua zuen idazle eta psikiatra horren omenez.

Museoaren espazio horretan bertan, Kutxa Fundazioarekin batera garatutako Artea Abian egitasmoak euskal sorkuntza garaikideari zabaldu zizkion ateak. San Telmok bere historian zehar euskal arterako eta artistentzako erreferente gisa jokatu zuen paperari jarraitutasuna eman zion proiektu horrek. **Xare Álvarez**en **Makurtu** aurkeztu zen 2024an.




Plieque erakusketa, Xare Álvarez © Iker Azurmendi


GURE PROIEKTUAK

Museo Bikoitza: Hinrich Sachsen lana urtebetez erakutsi ondoren, **Maddi Barber**-en instalazioa **-Harria eta poltsa-** inauguratu genuen azaroan, eta proiektuaren logikari jarraituz, ondorengo edizioan parte hartuko duten artista berriak izendatu zituen Barberrek: **Usue Arrieta** eta **Ainara Elgoibar**, dagoeneko lanean ari direnak.

Nabarmendutako obra: arte historikoa deritzon aretoan, Nabarmendutako Obra proiektua abiatu genuen. Proiektu honen bitartez, beste museo edo bildumetako obrak nabarmenduko ditugu, baita gure bildumakoak ere. Perla eraikineko proiektu arkitektonikoa, **María Paz Jiménez**en bi obra eta Prado Museokoa den Madrazoren **Amalia de Llano y Dotres, condesa de Vilches** obrak ikusgai izan ondoren, urtea ixteko, museoak eskuratu eta zaharberritu duen **Nestor Martín Fernández de la Torre**-ren Kursaal kasinoko **Izenbururik gabe** obra egon zen ikusgai, antzinako Kasino Handian jartzeko sortua.



Ez da pausorik debalde ematen, Hinrich Sachsen



Harria eta poltsa, Maddi Barber © Iker Azurmendi



ERRONKAK

Museoaren *Erronkak* programazioaren ildoan, gai garrantzitsuen inguruan eztabaidatu zen, hala nola klima larrialdia, giza eskubideak eta feminismoa. Horrela, Donostiako Udalarekin eta Cristina Enea Fundazioarekin lankidetzan antolatutako *Agora K2050* zikloaren barruan, energiaren, trantsizio ekologikoaren eta iraultza digitalaren inguruan adituek esateko dutena entzuteko aukera egon zen.

Besteak beste osasunarekin, haren bilakaerarekin, giza eta animalia jakintzarekin, emozioekin eta elebitasunarekin lotutako alderdiak eztabaidatu zituzten **Garuna(k)** erakusketaren inguruan antolatutako zikloan, Jakiunde zientzia, arte eta letren akademiarekin lankidetzan antolatu zena; baita *24 Emakume zientzian, artean eta letretan* zikloan ere; ikusgarritasunik izan ez duten arren, gure gizartearen aurrerapenari ekarpen handia egin dioten emakume akademikoei eskainitako zikloa izan zen azkeneko hori.

Halaber, Jakiunde akademiarekin eta Zas Zurrumurruen Aurkako Sarearekin lankidetzan, gaurkotasan handiko erronkak –hala nola demografia, zahartzea eta immigrazioa– aztertze ziklo bat egin zen.

Feminismoak leku garrantzitsua izan zuen Deustuko Unibertsitateko ARES ikerketa-programarekin (Analysing Antifeminist Resistances) lankidetzan antolatutako zikloan; hainbat gai aztertu zituzten, adibidez, adostasuna edo feminismoaren aurkako erresistentziak eduki digitaletan.

Teknologia Kuantikoak zikloan, konputazio kuantikoaren inguruko oinarritzko kontzeptuak eta teknologia horiek aplikazio nagusietako batzuetan izan lezaketen inpaktua izan zuten hizpide; Donostia International Physics Center (DIPC) zentroarekin lankidetzan antolatu zen ziklo hori, *Donostia, Zientzia Hiria* programaren edizio berri baten barruan.

Globernance Gobernantza Demokratikoaren Institutuarekin lankidetzan antolatutako *European Dialogues* ohiko zikloaren barruan, hainbat gai jorratu ziren: eskubideen Europa eta Europa munduko desordena geopolitikoaren aurrean; gainera, Europako mugen politiken gaia jorratu zuten Ankulegi jardunaldien barruan; eta gerra Europar Batasunetik ikusita, Galde elkartearekin lankidetzan.

Giza eskubideak programaren zati garrantzitsua dira eta, aurten, Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegiari buruzko hitzaldiaz gain, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Udalarekin kolaboratu zen, Irani eta eskubide eta askatasun unibertsalei buruzko hitzaldiak antolatzeke, baina gezurrez eta desinformazioz betetako mundu honetan informatuta egoteak duen garrantziari buruzko hitzaldiak ere.

Literaturak, emakume idazleen urteroko topaketarekin, Literaktum jaialdiarekin, liburu aurkezpenekin eta psikoanalisiak osatu zuten urteko egitaraua, ikasleei zuzendutako Jakinmina programarekin batera.

ARGAZKI-LIBURUAK

Museoko liburutegi espezializatuaren ezaugarri bereizgarria **Gabriela Cendoya Bergareche Collection** argazki-liburu bilduma da, gaur egun 3.345 ale dituen, eta Estatu mailan espazio publiko eta doakoan dauden bilduma garrantzitsuenetakoa da. Gero eta jende gehiago etortzen da bilduma kontsultatzera, banaka zein taldetan.

2024. urtean, nabarmentzekoa da hainbat ikastetxeren bisita jaso zuela bildumak; argazki-liburua lanerako objektu gisa txertatzeko erabiltzen dute bilduma, baita ikasleei, ikasgaiaren amaierako proiektu gisa, argazki-liburu bat egiteko erronka proposatzeko ere. Horixe da Mondragon Unibertsitatearen, Kunsthal Diseinu Eskolaren eta Black Kamera Eskolaren kasua; Bartzelonako El Observatori ikastetxeko ikasleak ere berriro etorri ziren asteburu batez unibertso honetan barneratzeko esperientzia bizitzera.

Argazki-liburuari ikusgarritasun handiagoa emateko helburuarekin jarraituz, bilduma katalogatzen jarraitu genuen, Internet bidez ikusi ahal izan dadin, eta urteroko programazioari eutsi

zitzaion, bilduman dauden artistak gonbidatuz, bai nazioarte eta Estatu mailan izen handikoak diren argazkilariak, bai tokiko esparruko pertsonak ere **Jon Uriarte, Ros Boisier, Bryan Schutmaat, Ricardo Cases, Nagore Legarreta, Jesús Uriarte**. Argazki-liburuen edizioari buruzko bi tailer ere antolatu ziren, arlo honetako pertsona ospetsuen eskutik; **Jason Fulford** argazkilari estatubatuarra eta **Magali Avezou** frantziarra, argazkigintzan eta arte bisualetan espezializatutako arte-kudeatzailea. Argazkilaritzaren munduan lan egiten duten erakundeekin lankidetzan aritzeko hurbilagoko harremanak ere landu zituen liburutegiak 2024an, hala nola Basque Dok Festival eta Getxo Photo jaialdiekin, biak ala biak Bizkaikoak, aipatutako egile estatubatuarrek museora ekartzeko aukera eman zuten sinergiak sortuz, hainbat jarduera egin zezaten, eta publiko berriak erakarrit.

Halaber, liburutegia izan zen elkartzeko gunea Donostiako PhotoBook Klubaren 2023ko hainbat saiotan; sarri bisitatzen dute museoaren bilduma klubeko kideek.



Magali Avezou tailerra



Jason Fulford tailerra

HAU

Aurten zazpigarrenez antolatu da **HAU Euskal Herriko objektu tradizionalen diseinu lehiaketa** Bitamine eta San Telmo Museoaren eskutik, eta hainbat lankidetzarekin: Mondragon Unibertsitatea, Aranzadi Zientzia Elkartea, EIDE Euskal Diseinuaren Elkartea eta IBILI Menaje enpresa. Lehiaketa honen xedea da euskal kulturako objektu tradizional bat gaurkotzea. Batetik, deialdiak gure tradizioaren inguruko ikerketa sustatzen du, usadioak eta ohiturak ezagutu eta berreskuratzeko; bestetik, objektu tradizionalak egokitu, berritu eta berrinterpretatzea bultzatzen du, diseinu garaikidearen begiradatik. Horrela, gure historiarekin lotura berriak sortzen dira, baita diseinu alorrean ikerketa-ildoak urratu eta ekintza-eremuak zabaltzeko ere. Deialdi honetan, gaztainak erretzeko tresnak berraztertzea proposatu da, eta 24 proiektu aurkeztu dituzte lehiaketan.



41

ATZOKOAK GAUR

Atzokoak gaur. Lanbide tradizionalak

egitasmoak txokolategintza izan du ardatz aurten. Programa hau 2018an hasi zen, eta hainbat lanbide ezagutzen eta zabaltzen lagundu nahi du: teknikak eta lan egiteko moduak, erabilgarritasuna, lotutako ohiturak, horiek garatu zituzten pertsonak. Erakusketa iraunkorrarekin lotura izaten du beti, eta Aste Santuko oporretarako programazio espezifiko gisa proposatzen da. 2024ko edizioaren ardatza txokolatea egiteko prozesu tradizionala izan da, Tolosako **Rafa Gorrotxategi** txokolategilearen laguntzaz.



HEZKUNTZA

Hezkuntzaren arloan, irakasleei, aisialdi-taldeei, talde sozialei, turistei eta beste kolektibo batzuei zuzendutako bisita gidatuak egin ziren.

2024an, 10.000 bat lagunek egin zituzten bisita gidatuak museoan.

Askotariko bisitariak izan zituen museoak, baina nabarmendu daiteke ikasle-taldeak izan zirela etorritakoen gehienak (% 78). Neurri txikiagoan bada ere, talde sozialak edo gizarteratze-ekimenetako kolektiboak, turismo-enpresak, erakundeak eta haien kabuz etorritako taldeak ere izan ziren.

Urtean zehar, hiru kanpaina egin ziren hezkuntza-buletinaren bitartez, urtarrilean, maiatzetan eta irailean, hain zuzen ere, hezkuntza-eskaintza, aldi baterako erakusketak, jarduerak eta gazteentzako eskaintza ezagutzera emateko helburuz.

2024an antolatutako aldi baterako erakusketetako bik, **Garuna(k)** eta **Elkarriketa bat: Chillida eta arteak. 1950-1970** erakusketek, hain zuzen ere, bisita gidatuak eta tailerdun bisitak eskaini zituzten, ikasleen parte-hartze aktiboarekin.

Aurreko urtean bezala, ikasturte honetan ere hezkuntza-proposamenaren 10 ibilbide nabarmendu ziren, irakasleei hautaketa-lana errazteko. Hezkuntza-programa horiek euskal gizartearen garapena eta historia hurbiltzen dute, bi jakintza-arloren eskutik: artea eta historia.



Museoaren hezkuntza sailak, gainera, talde sozialekin lanean jarraitu zuen, bisita gidatuko eta prestakuntzako espazioak eskainiz (SOS Arrazakeria, Elkarrekin Kooperatiba Txikia). 2024an, *Trebatzaileen trebakuntza* egin zen eragile sozialekin, talde horiei museora modu autonomoan etortzeko bidea errazteko.

Alzheimerdun gaixoentzako bisita gidatuak ere egin ziren, Gertu Kulturarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta AFAGI Alzheimerdun Gaixoen Elkartarekin lankidetzan.

Halaber, *Nahi gabeko bakardeari* buruzko Jardunaldiak izan genituen azaroan, Gertu Kultura, Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan antolatuta. Jardunaldi horietan, hainbat eragile sozial eta kulturek hartu zuen parte, eta gai horren inguruan gaur egun bizi dugun errealitateari buruz hausnartzeko aukera egon zen. Gainera, horren hedatuta dagoen arazo hori arintzeko abian dagoen hainbat kultura-proiektu aurkeztu zen, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan, Katalunian eta Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan martxan dauden programak ere.

JARDUERAK

2024an museoan izandako aldi baterako erakusketek – **Garuna(k), Chillida eta arteak, Donostiaren oroigarri...**– San Telmon ohikoa den aniztasun eta zeharkakotasunarekin bat egin dute, hainbat gai jorratuz, hala nola artea, gizarte-gaiak, zientzia, pentsamendua edo hiri-garapena. Era berean, erakusketa-eskaintza jarduera-programa anitz eta zabal batekin aberastu da. Programa horren barruan, aipatzekoak dira egindako autore-bisitak, topaketak, hitzaldiak eta bertso-saioak. Azken horiek erakusketen zein bertso-jardunaren eremuak zabaldu eta begirada berriak ahalbidetzeko aukera interesgarri moduan nabarmendu dira.

Museoaren bildumak ezagutzera emateko ondarearen inguruko jarduerak programazioaren oinarrietako bat izan ziren. Artearen alorrean, aipatzekoa da 2024ean egonkortu zen **Nabarmendutako obra** ekimenaren barruan egindako bisita-gidatu eta hitzaldi sorta. **Museo Bikoitzarekin** lotuta ere, hitzaldi bat eta hainbat bisita gidatu egin ziren. Bestetik, lanbide tradizionalak ezagutzera ematea helburu duen **Atzokoak Gaur** ekimenaren barruan, txokolategintzaren inguruko erakusketa-programazio zabal bat eskaini zen. Azkenik, urtero bezala, Aranzadi Zientzia Elkartearen Arkeologia eta Etnografia Jardunaldietan kolaboratu zuen museoak, eta sentsibilizazio-kanpainetan ere hartu zuen parte, ohi bezala, hala nola **Ondarearen Europako Jardunaldietan**.

Sorkuntza garaikidea eta, garaikidetasunetik, ondarearen berrirakurketa sortzailea bultzatzeko proiektuak dagoeneko finkatuta dauden lan-ildoak dira, eta aurrez aipatutako sentsibilizazio- eta zabalkunde-lanaren osagarri izan ziren. Programa horietako batzuek, kontzeptuari eta formatuari dagokionez diziplina ezberdinen artean zebiltzan diskurtso berriak planteatu zituzten; begirada berri harrigarriak eta gizarteko askotariko sentsibiltate eta interesetara hurbiltzeko aukera eman zuten formatuak.

Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Bitamine Faktoriarekin lankidetzan antolatutako **Hau. Euskal Herriko objektu tradizionalen diseinu-lehiaketan** proposatutako gaztainak erretzeko tresna tradizionalaren berrinterpretazioa. Baita musikaren alorrean ondarearen berrirakurketa garaikidea proposatu zuten bi aurkezpen – kontzertu arrakastatsu ere: Iñar Sastre eta Jagoba Astiazaranen **Zaharrek Berri** eta Iñaki Palaciosen **Argizaiola**. Musika arloko ekarpenekin jarraituz, aipatzekoa da Musikagileak elkartearekin batera antolatutako **Musi-meet topaketa** eta kontzertua.

Museoak ikaskuntza ez formalerako eta kultura-aisialdirako baliabide gisa dituen aukerak esploratzen jarraitu zuen. Adibidez, **familia-tailerren** bitartez, sormena modu ludiko batean lantzeko programa, 2024an bereziki aberatsa izan dena, gonbidatutako profesionalen mailari eta aniztasunari esker (artistak, diseinatzaileak, arkeologoak...). Hor dugu azken urteetako **San Telmo Gau** jendetsuena ere, museora ezohiko testuinguru batean hurbiltzeko aukera eman zuena, eta hiriko kultura-eskaintzaren jarduera erakargarri moduan egonkortu dena.



Iñaki Palacios

Museoak bere inguru hurbileko proiektuekin duen loturari dagokionez, azken urteetan hiriko jaialdi nagusienekin sustatutako elkarlan-formulak mantendu ziren, hala nola **Musika Hamabostaldia**, **Jazzaldia** edota **Zinemaldia**. Era berean, hiriko beste kultur-erakunde batzuekin lankidetzan jardun zuen, hala nola **Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin** eta **Francisco Escudero Kontserbatorioarekin**.

LIBURUTEGIA

Handitzen jarraitzen du San Telmo Museoko liburutegiko funtsa bisitatzen eta erabiltzen duen pertsona kopuruak; funts horren barruan dago argazki-liburuen bilduma. 3.500 erabiltzaile baino gehiago izan zuen 2024an liburutegiak; horrek esan nahi du %70eko igoera izan duela aurreko urtearekiko, 2023an ere aurreko urtearekiko %35eko igoera izan ondoren.

Liburutegiko lan teknikoa ere kontserbatzen ditugun agiri-funtsen katalogazioan zentratu zen: **Maya Aguiriano** artxiboa eta **María Paz Jiménez** artxiboa. Bakoitza bere aldetik, biak izan ziren ikertzaileen azterketen xede. Alde batetik, **María Paz Jiménez** artxibo dokumentala, artistaren argazkiz eta hark egindako erakusketa ugarien liburuxkaz eta hemerrotekako materialaz osatutako funts txiki bat, abiapuntutzat balio izan zuena **Rocío Bueno** argazkilariak bere obra berrinterpretatzean, lankidetzako-proiektu modura (*Beraiek, geu - Ellas, nosotras*); Amara Aretoan jarri zen ikusgai proiektu hori. Bestalde, funts horren dokumentazio ugari laga zitzaion Kutxa Fundazioari, 2025ean aurkeztuko duen **Mari Paz Jiménez** artistari buruzko atzera begirako erakusketarako.

Maya Agiriano Artxibo eta Liburutegi pertsonalari dagokionez, arte-kritikari, historiagile eta erakusketen komisario honen figura aztertzen ari den Bilboko Arte Ederren Museoko bekadun batek dihardu haiek analizatzen. Uste dugu ikerketa hori lagungarria izango dela 2020an hil zen Agirianoren figura hobeto ezagutzeko.

Euskararen lan-ildoan ere sektoreko eragileekin lankidetzako-zabala sustatu zen, publiko espezializatu zein orokorarentzako programa zabala eskainiz. Jadanik ohikoak diren proiektuez gain, landutako edukien eta formatuen garrantziagatik nabarmendu beharrekoak dira **Ettxepare Institutuarekin** elkarlanean nazioarteko irakurleentzat egindako lantegia, eta **Jakin** aldizkari berriak bere aurkezpenerako San Telmon ospatutako ekitaldi kulturala.

Azkenik, aipatzekoa da Feminismoa Funtsa, ***Crónica de los primeros años del movimiento feminista en Donostia (1976-1982)*** [*Donostiako Mugimendu Feministaren lehen urteen kronika (1976-1982)*] liburuaren egile **Carmen Díez Mintegi, Begoña Gorospe** eta **Miren Garmendiaren** eskutik liburutegi honetara iritsi dena. Zentro honen esku utzi nahi izan zuten azkenean aipatutako liburua argitaratzera eramane zituen ikerketarako balio izan zien material dokumentala.

Museoan antolatutako eta liburutegiak koordinatutako beste programazio batzuei dagokionez, nabarmentzekoa da Artista-liburuari buruzko Topaketen bederatzigarren edizioa. Berrogeita hamar bat artistak erakutsi zituzten haien jatorrizko obrak, eta liburu-formatuan oinarritutako era horretako sorkuntza artistikoaren etorkizunari buruz hitz egin zuten. Topaketarako propio, euskal emakume eskultoreen E3 kolektiboak artista-liburu kolektibo bat sortu zuen, eta obra bat hainbat pertsonaren artean egiten denean sorkuntza-prozesua nolakoa den azaldu zuten, zer zailtasun izaten dituen, eta zein izaten diren prozesuko ikaskuntzak.

Azkenik, dokumentazio-zentroak museoaren bildumei eta erakusketei bibliografiari eta dokumentazioari dagokionez laguntzeko eginkizunarekin jarraitzen du. Adibidez, liburutegian gordetzen diren hamar bat liburuxka jarri ziren ikusgai ***Elkarrizketa bat: Chillida eta arteak. 1950-1970*** eta ***Donostiaren oroigarri: Galarza argazki-funtsa*** erakusketetan. Guztietan lan egin zen San Telmoko lantalde teknikoarekin lankidetzan, agiriak eta informazioa bilatzen.



Makurtu. Xare Álvarez



100 urte. Modernoa eta / edo garaikidea

ARGITALPENAK

Museoak argitalpen ezberdinak egin ditu 2024an zehar eta beste batzuetan parte hartu du, guztiak aldi baterako erakusketekin lotuta, eta horietako batzuk Bildumak sailekoak.

Elkarrizketa bat: Chillida eta arteak / Una conversación: Chillida y las artes. 1950-1970;

Donostiaren oroigarri: Galarza Argazki Bilduma / Recuerdo de San Sebastián: Fondo fotográfico Galarza;

Arte abian proiektuko Makurtu / Plieque. Xare Álvarez eta 100 urte. Modernoa eta / edo garaikidea | 100 años. Lo moderno y / o lo contemporáneo izan dira San Telmoko argitaratutakoak, eta **Luis Martín-Santos**en eta **Isabel Azkarateren** inguruko argitalpenetan ere parte hartu du museoak.

URGULL

Urgull mendiko monumentu-multzoak Donostiako ondarea eta historia ezagutzeko gune bikaina izaten jarraitu zuen. Mendiko ondare-elementuak hiriaren iraganaren lekuko dira. Monumentu-multzoa, gainera, leku pribilegiatuan dago, eta egungo hiriaren ikusmira bikaina eskaintzen du. **Donostiari begira** erakusketak osatu zuen eskaintza -Mota Gazteluko garai bateko koarteleetan kokatua-, hiriaren historiari egindako errepasoarekin, modu hurbilean eta atseginean kontatuta.

Ohikoa den bezala, turistak izan ziren bisitari gehienak, %90; horietatik %15,76 estatukoak, eta %26,39 Frantziakoak.

Publikoaren ezaugarriari erreparatuz gero, oporaldietan zentratu zen eskaintza (uztaila, abuztua eta Aste Santua), astean sei egunez irekiz, eta asteburutan, berriz, maiatzetik urrira. Ordutegi horretatik kanpo, bisita-gidatuak eskaini ziren ostiraletan, baita aurrez hitzartutako bisita gidatuak ere, nahiz eta eskari oso txikia izan zuen zerbitzu horrek.

75.837 lagunek bisitatu zuen erakusketa, gehienek uztailean eta abuztuan.

KOMUNIKAZIOA

2024. urtean, komunikazio sailak publikoarekiko harremanetarako eta, prentsa-oharren, publizitatearen eta promozio-ekintzen bitartez, museoaren proiektuak eta jarduerak ezagutzera emateko kanalak irekita mantentzeko lanean jarraitu zuen.

2024. urtean zehar, webgune berrirako lehiaketaren deialdi publikorako oinarriak prestatzeko lana egin zen.

Museoko hitzaldi gehienek eduki digitalen eskaintzari ere eutsi zitzaion. Horrela, askotariko gaiei buruzko hitzaldien gordailua edukiz elikatzen jarraitu genuen, eta jendearen eskura dago eduki hori, museoaren Youtubeko kanalean.

Urtean zehar, 21 prentsaurreko egin ziren museoan (intereseko gaiekin eta proiektuekin lotutako beste aurkezpen batzuk barne, beste erakunde batzuen eskutik), eta 15 prentsa-ohar bidali ziren.

Webguneak jasotako bisita kopurua 190.000tik gorakoa izan zen. Museoaren sare sozialekin lotutako gertaera garrantzitsuenetako bat aurten Instagrameko kontuak jasan zuen erasoa izan zen; ezin izan zen edukia berreskuratu. Ondorioz, ahalegin berezia egin behar izan zen, sare horretan beste kontu bat abian jartzeko. Arazo hori gorabehera, 2.155 jarraitzaile zituen urte amaieran museoaren sare sozial honek.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE
eta zatoz doan nahi duzunean

HAZTE SOCIA/O
y ven gratis siempre que quieras

san telmomuseoa.eus
Instagram Facebook Twitter YouTube

San Telmo Museoa
Bazkidea | Socia/o
15€
urtean | año

Egin zaitez orain 2025erako bazkide eta hasi oraintxe disfrutuzten Urtarrilera arte, gure kontu!

Hazte socia/o ya para 2025 y comienza a disfrutar de las ventajas ¡Hasta enero corre de nuestra cuenta!

DOAKO SARRERA
ENTRADA GRATIS

%10 DESKONTUA
jardueretan, ikastaroetan,....
10% DESCUENTO en actividades, cursos,...

LEHENTASUNA
jarduera batzuetan
PRIORIDAD en actividades

GONBIDAPENAK
inaugurazio eta ekitaldietara
INVITACIONES a inauguraciones y actos
... eta abantaila gehiago
... y más ventajas

STM San Telmo Museoa | Euzko Legebiltzaria | Euzko Legebiltzaria

Bestalde, 8500 bat lagunek jaso zituen museoak bere programazioari, bazkideentzako abantailiei, hezkuntza-proposamenei eta familientzako jardueri buruzko informazioa emateko bidalitako buletin elektronikoak.

Publizitateari dagokionez, publizitate-iragarkiak eta spotak sartu zituen museoak komunikabideetan, batez ere museoaren babesle edo enpresa ongile diren komunikabideekin egindako lankidetzak-hitzarmenen bitartez -EITB, El Diario Vasco, Berria, Noticias de Gipuzkoa, Gara, Naiz, Hamaika Telebista, Argia- eta, batik bat, aldi baterako erakusketei eta bazkide-kanpainei zabalkundea emateko. Halaber, komunikabide espezializatu eta orokorretarako publizitate-plan bat egin zuen, ikus-entzule potentzialen artean bere jardueraren zabalkundea areagotzeko.



Kultur
Etxeak

2024

DK
memoria



Kultur Etxeak

Kultur etxeen sareak oinarritzko zutabea izaten jarraitzen du auzoetako eta Donostiako kultura-bizitzan. Elkartzeko eta sortzeko espazioak izanik, ekipamendu hauek kultura-dinamizatzaile eginkizuna betetzen jarraitu dute, herritarren eta askotariko erakunde publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak bultzatuz.

2024an, kultur etxeek sendotu egin dute Donostiako kultura-bizitzaren erdigune gisa betetzen duten eginkizuna, gertutasunarekiko duten konpromisoari eutsiz eta tokiko sorkuntza bultzatzen jarraituz. Aurtengo datuek berretsi egiten dute urte bikaina izan dela, ekitaldi arrakastatsuekin eta publikoaren erantzun bikainarekin.

2024ko ekitaldi nabarmenak

Egia Kultur Etxeak koordinatzen duen **Glad is the Day** jaialdiak arrakasta itzela izan du aurtén. 15.000 lagun baino gehiagorekin, Egia eta inguruak musikaz, jardueraz eta giro paregabeaz bete zituen jaialdiak, kultura-egutegiaren barruan ekitaldirik gustukoenetako bat bezala finkatuz.

Literaktum literatura jaialdiak *Letrak zeruertzean* gaia izan zuen erdigunean, eta espektatiba guztiak gainditu zituen, 8.400 lagunren parte-hartzearekin. Kalitatezko egitarau anitzarekin, berriro erakarri zuen dagoeneko leiala den publikoaren arreta, hiriko kultura-erreferenteetako baten bere lekua berretsiz.

Poltsiko Antzerkiak, harritzeko eta entretenitzeko duen helburuari irmo eutsiz, tabernetara eta hurbileneko espazioetara eraman zituen arte eszenikoak, publikoaren harrera bikainarekin.

Egia Kultur Etxearen **dantza eta zirku zirkuituek** erakargarritasun handia izaten jarraitu zuten Gazteszenan, proposamen berritzaileak eta kalitate handiko ikuskizunak konbinatuz.



Udaleko Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan antolatzen den **Bilintxen menda** programaren barruan, lau jarduera nabarmendu ziren: *Txapeldunen bertso saioa* errezitaldia Lugaritzen, **Jon Sarasuaren** *Ego eta hego: txapelketako edukiei*; *begiratu bat txalodependentziaren ikuspegitik*, Ernest Lluch Kultur Etxean; bertsolaritzari buruzko antologia abestua Antzoki Zaharrean; eta mahai-inguru bat, San Telmo Museoan. Hainbat bertsolari ezagunek hartu zuen parte, hala nola **Sebastian Lizasok, Maialen Lujanbiok, Andoni Egañak, Amets Arzallusek** eta **Beñat Gaztelumendik**.

Ikusgarritasun handieneko ekitaldiez gain, programatutako gainerako jarduerak eta jaialdiek kultur etxeen sarearen berezko mailari eta izpirituari eutsi diete.

Ikastaroak eta zerbitzuak

Ikastaroek jarraitzen dute izaten eskari handieneko zerbitzuetako bat. Aurten, 580 bat ikastaro eman dira, horrela, milaka herritarrentzako ikaskuntza eta garapen pertsonalerako gune gisa finkatuz.

Ekipamendu berriak

Larrotxene Kultur Etxeak erreferente gisa nabarmentzen jarraitzen du, dituen ikus-entzunezkoen instalazioengatik, eta DK Irratiak bere protagonismoari eusten dio Casares-Tomasene Kultur Etxean, *Ispilu Beltza* podcast kulturalarekin.



Kolaborazioak

Hirian eta, batez ere, Antiguo auzoan erreferente den **DOKA Kafe Antzokia** halaberharrez itxi behar izan eta gero, Kultura Ekintzak lankidetzarako bide bat ezarri zuen, konprometitutako ekitaldiak egin ahal izateko. Horretarako, Intxaurrondo Kultur Etxeko instalazioak DOKAren eskura jarri ziren, kontzertuetarako. Arte eszenikoen esparruan, Antzoki Zaharra erabili zen, arrakasta lortu zuten bi emanalditarako: maiatzaren 12an, **David Suárez** galiziarrek *Humor blanco* bere ikuskizuna eskaini zuen eta, ekainaren 9an, **Iñaki Urrutiaren** txanda izan zen, *Perdone, caballero* lanarekin.

Bisitak eta parte-hartzea

Kultur Etxeek herritarren partaidetzaren erreferente izaten jarraitzen dute, urtean zehar milaka jarduera antolatuta eta publikoaren konfiantza eta berotasuna berresten dituen asistentziarekin.

Azken batean, 2024a urte arrakastatsua izan da Donostiako kultur etxeetarako. Inplikaturako eragile guztien ahaleginari eta dedikazioari esker, kalitatezko eta hurbileko egitarau bat mantendu ahal izan da, herritarren beharrei eta interesiei egokitutakoa.



Ikastaroak

2024a arrakasta handiko urtea izan zen Donostia Kulturako kultur etxeek eskainitako ikastaroetarako; errekor historikoa lortu zuten, 9.653 matrikularekin, 2024. urte osoan. Aurreko urteko zifrekiko (8.971 matrikula) ia % 8ko igoera horrek herritarrek ikastaroerik egin dieten harrera bikaina azpimarratzen du.

**IKAS
TARO
AK
CURSOS**

Matrikulazioko estrategia berria

2024ko matrikulazio-kanpainak bi txandako sistema berritzailea finkatzeko balio izan du; sistema hori euskarazko ikastaroak lehenesteko diseinaturik dago. Eredu horri esker, nabarmen igo zuen euskarazko ikastaroetako parte-hartzea; 174 ikastaro egin ziren euskaraz 2023an, eta 184 2024an. Gaztelerazko ikastaroek ere gora egin zuten: 367 ikastaro 2023an, eta 390 2024an. Ikuspegi horrek, eskaintzaren banaketa optimizatzeaz gain, ikasle berriak sar zitezten ere lagundu zuen.

Prestakuntza-eskaintza zabalagoa

2024ko iraileko kanpainan, 531 ikastaro eskaini zituen guztira Donostia Kultura, eskaintza elebidun batean; horietatik 360 bete egin ziren. Emaiza horrek erakusten du erakundea konprometituta dagoela gaur egungo beharrei erantzuneko dien programazioa osatzearekin, eta hizkuntza-inklusioa zein gaiei dagokien aniztasuna sustatzen dituela.

Ekimen berritzaileak

Nabarmenezkoa da finkatu egin zirela lankidetzazko ingurune inklusibo batean euskararen erabilera sustatzeko diseinaturikotako *Belarriprest* zigilupean antolatutako ikastaroak. Ikasturtean zehar, bi talde espezifiko sortu ziren eredu berritzaile horri jarraituz, ikastaroek hizkuntza- eta kultura-sustapenerako tresna gisa betetzen duten eginkizuna finkatuz.

Eskarierako joerak

Osasunarekin lotutako jarduerak gailentzen jarraitzen duten arren, kulturaren arloko ikastaroetako izen-emateek igoera nabarmena izan dute. Horrek erakusten du herritarrek gero eta interes handiagoa dutela prestakuntza-arlo berriak arakatzeko eta beraiei kultura-ezagutza aberasteko.

Balantze positiboa

Oso modu positiboan baloratu dute Donostia Kulturako arduradunek 2024rako matrikula-kanpainaren arrakasta, eta nabarmendu dute onura ugari izan dituela bi faseko matrikulazio-ereduak. Ikuspegi horrek, ikastaroen antolaketa eta eskuragarritasuna hobetzeaz gain, kultur etxeetan ikasturtea sendotasunez hastea ahalbidetu zuen.

Ibilbide honekin, Donostia Kulturak berretsi egiten du hirian kultura- eta prestakuntza-eskaintzan erreferente gisa duen posizioa, urtez urte herritarren beharretara eta eskarierara egokituz.

Poltsiko Antzerkia

2024ko maiatzaren 2tik 19ra egin zen **Poltsiko Antzerkia Jaialdiaren 33. edizioa**, Donostiako kultura-hitzordurik garrantzitsuenetakoa dela berresteko balio izan zuena. Oraingo honetan, **2.640 lagun** joan ziren hiriko 25 espazio ezberdinetan eskainitako **32 emanaldiez** gozatza, jaialdi honen izaera berezi eta hurbilekoa sendotuz.

2024ko egitarauaren ezaugarriarik nabarmenena bere aniztasuna izan zen, gaiei eta alderdi artistikoari dagokienez, antzerki, umore, magia, mentalismo, kabaret, monologo eta musika proposamenekin. Gainera, bost produkzio berri estreinatu ziren, **Antzerkia Euskaraz Sortzeko Proiektuen XIV. Deialdiko** irabazle izan zen muntaia, **Promesa berdin egin diegu lagun guztiei**, **F Taldearena**, eta **Famiglia** obra finalista, **Maidier Díaz** eta **Xabin Fernández** sortzaileena. Estreinaldi horiek euskarazko eskaintza aberastu zuten, eta jaialdiak sorkuntza berriak sustatzearekin duen konpromisoa erakutsi zuten. Hizkuntza- eta genero- parekidetasuna izan zen jaialdiaren oinarrietako bat 2024an ere. Eskaini ziren 32 emanaldietatik, 16 izan ziren euskaraz, eta beste hainbeste gazteleraz. Parte hartu zuten konpainiei dagokienez, orekatua izan zen emakumeen, gizonen eta talde mistoen ordezkartza, era horretan, espazio inklusibo eta anitza dela berretsiz.

Jaialdiaren alderdirik bereizgarrienetako bat da eszenatoki ez oso konbentzionalak hautatzen direla, hala nola

tabernak eta publikoarengandik hurbileko beste lokal batzuk. Ikuspegi horrek, esperientzia intimo eta berezia sustatzeaz gain, aukera ematen die herritarrei haien hiria ikuspegi kultural batetik deskubritzeko. 2024an, Convent Garden aretoan egin zen **amaierako jaia**, **The Chanclettes & La Mega Pubilla** taldearen ikuskizun gogoangarri batekin, eta **Andoni Mutiloaren Gora Poltsiko Antzerkia!** kabaretaren estreinaldiarekin.

2024ko egitarauaren helburua izan da harritzea eta berritzea, gaurkotasuneko gaiak ikuspegi fresko eta probokatzaileratetik arakatzen dituzten **Ainhoa Aierbe** eta **Teresa Andonegiren Desorduetan** eta **Beatriz Egizabalen Magma Mia** ikuskizunekin, besteak beste. Halaber, sutsua izan zen publikoaren parte-hartzea; horrela, frogatuta geratu zen publiko leiala duela ekimenak, urtez urte Donostiako kulturaren klasiko bihurtu den hitzordu honetara hutsik egiten ez duena.

Parte hartu zuten konpainiek eskertu egin zuten Donostia Kulturaren babesa, formatu txikiko antzerkiaren aldeko apustua egiten jarraitzen duelako; publikoari ere eskerrak eman zizkiten, ikuskizun guztietan erantzun baitzuen berotasunez eta konpromisoz. Elkarrenganako babes hori funtsezkoa izan da edizio honek arrakasta izan zezan eta, horrela, argi gelditu da jaialdi hau ezinbesteko espazioa dela arte eszenikoa sustatzeko eta hartaz gozatzeko.

2024ko edizioan, tradizioaren eta berritasunaren arteko oreka perfektua lortu zen. Finkatutako proposamen artistikoei lekua egiteaz gain, formatu, ideia eta talentu berriei ere ireki zizkien ateak jaialdiak, Poltsiko Antzerkiak esperientziazio kulturalerako plataforma bizi eta dinamikoa izaten jarraitzen duela erakutsiz.

Euskarazko antzerki-sorkuntzaren arloan ere inpaktu berezia izan zuen Poltsiko Antzerki Jaialdiak, **Udaleko Euskara Zerbitzuarekin** eta **Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin** duen lankidetzari esker. Baterako esfortzu horrek, euskarazko eskaintza aberatsa bermatzeaz gain, tokiko antzerki-produkzioa eta hizkuntza eszeniko berrien garapena ere sustatzen ditu.

2.700 lagun joan dira aurten emanaldietara; horrek agerian uzten du Poltsiko Antzerkiak Donostiako kultura-programazioan duen errotzea. Ekimen hau jaialdi bat baino zerbait gehiago da; artisten eta publikoaren arteko topagunea da, sormenerako erakuslelhoa, eta hiri osoan eragina duen kultura-dinamizazioko motorra.

Edizio honek izan duen arrakastak erakusten du formatu txikiko antzerkiak leku pribilegiatua duela donostiarren bihotzetan. Poltsiko Antzerkiak aurrera jarraitzen du bere bilakaerarekin, etorkizunera bere sustraiak ahaztu gabe begiratzuz, eta arte eszeniko eskuragarri, hurbileko eta berritzailea sustatzearekin duen konpromisoa berretsiz.

Literaktum

Literaturarekin hitzordua sendoa

Azaroaren 11tik 24ra, Hitzen Hiri bihurtu zen Donostia Literaktum 2024 jaialdiarekin, antolatutako 53 ekitaldietan 8.400 bildu zituen edizioan. Donostia Kulturak antolatzen duen jaialdi honek literaturaren eta beste diziplina batzuen arteko elkarriketarako erreferentzia-gune izaten jarraitzen du; 2024ko edizioan, *Letrak zeruertzean* gaia jorratu zen, gatazka sozialetan, gerretan eta haien ondorioetan zentratuta.

Figura nabarmenen parte-hartzea

Izen handiak izan genituen gure artean, hala nola **Eduardo Halfón**, **Monika Zgustova**, **Carmen Mola**, **Dolores Redondo** eta **Adanía Shibli**. **Enrique Vila-Matas** idazleak **Luis Martín-Santosen** mendeurrenari eskainitako hitzaldi batean izan zuen parte-hartzea izan zen momenturik nabarmenenetako bat.

Literaktum Aperitifa: berritasun arrakastatsua

Lehenengo aldiz antolatu zen *Literaktum Aperitifa*, jaialdia ofizialki hasi baino lehenagoko ekitaldi bat, azaroaren 7an ospatu zena, eta **Martín Caparrós** kazetari eta idazleak hartu zuen parte. Ekitaldi horrek jende asko erakarri zuen, eta jaialdiaren egun nagusien atariko sendoa ezarri zuen.

Egitarau anitza

Literaktum jaialdiaren 2024ko edizioak, literaturaren inguruko hitzaldiak eta aurkezpenak eskaintzeaz gain, bestelako ekitaldiak ere eskaini zituen,

hala nola *Gernika, ikur bat baino gehiago* errezitaldi musikatua, Kafkaren *Metamorfosisa* lanean oinarritutako irrat-antzerkia, eta haren omenezko afari tematiko bat. *Bertso saio espekulatiboa*, erakusketak eta Kutxa Fundazioa Donostia Literatura sarien banaketa ere izan genituen.

Funtsezko kolaborazioak

Nabarmentzekoa da kolaboratzaile-sare sendoa duela jaialdiak, hainbat erakunde barne, hala nola **Kutxa Fundazioa**, **Goethe Institut**, **Acción Cultural Española**, **UPV/EHU**, **Biblioteca Nacional de España** eta **Gipuzkoako Liburudenden Elkarte**.

Erakusketak eta omenaldiak

Egitaraua osatzeko, lau erakusketa egin ziren, tartean **Luis Martín-Santos: Askatasun garaia**, San Telmo Museoa, eta **Markos Gimenoren Karteletarak**, Ernest Lluch Kultur Etxean.

Literaktum Txiki arrakastatsua

Haurrei zuzendutako Literaktum Txikiak hainbat jarduera eskaini zituen, ipuin-kontalariak, antzerkia eta ilustrazio-tailerrak, besteak beste. Bere laugarren edizioan, **Nur-en abenturetan** oinarritutako **Ilustrazio Lehiaketak** 250 proposamen jaso zituen, eta jaialdiak gaztetxoenen artean irakurzaletasuna eta sormena sustatzearekin duen konpromisoa berretsi zuen.

Emakumeen protagonismoa eta aniztasuna

Literaturaren eskutik, gauekotasunezko gai sozialei



buruz hausnartzeko espazioa izan zen jaialdia. Emakume idazle ugarik hartu zuen parte, hala nola **Dolores Redondok**, **Monika Zgustovak** eta **Adanía Shibli**, eta parte-hartze horrek Literaktum jaialdiak duen ikuspegi inklusiboa eta anitza azpimarratu zuen.

Espazio anitz eta irekiak

Hiriko askotariko espaziotan egin ziren jarduerak: **kultura etxeetan**, **liburu-dendetan**, **Victoria Eugenia Antzokian**, **Antzoki Zaharrean**, **San Telmo Museoa** eta **Gastronomiaren Euskal Kofradian**, besteak beste. Sakabanaketa geografiko horri esker, Literaktum jaialdiak literaturaz blaitu zuen hiri osoa.

Presentzia digitala DK ON! eta DK Irratian

Ekitaldietara joan ezin izan zirenentzat edo haiek berriz bizi nahi dutenentzat, jardueren audioak entzungai daude DK ON!-en, DK Irratian eta beste plataforma digital batzuetan, era horretan jaialdiaren eskuragarritasuna eta irismena indartuz.

Etorkizunari begiratzen dion jaialdia

Balantze positibo batekin eta parte-hartzeari dagokionez markak hautsita, Literaktum jaialdiaren 2024ko edizioak berretsi egiten du literatura eta eztabaida garaikideak sustatzearekin duen konpromisoa. Publikoaren eta erakunde inplikazioak jaialdia Donostiako kultura-ekitaldi garrantzitsuenen artean sendotu dadin bermatzen dute.

Dkluba

Dkluba programa musika-emanaldien zirkuitua da, auzoetako eta hiriko musika-eskaintza dinamizatzea, hasten ari diren tokiko taldeak ezagutzera ematea eta, gainera, izen handiko artistak etor daitezen bultzatzea helburu duena. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez, horren komertzialak ez diren proposamen alternatiboak programatzen dira eta balioa ematen zaio musikari, kolektibo, elkarte, klub eta sustatzaileen tokiko sareari. Azken batean, tokiko musika-talentuaren berezko erreferentea da Dkluba.

2024. urteko kanpainan, bete-beteko arrakasta izan zuen Dkluba programak. Eta horren erakusgarri izan zen **Glad is the day** jaialdia; horrela, aurreko urtean bertan behera utzi behar izan ondoren, berrindartuta itzuli dena, eta edizio honetan eguraldi bikainarekin ospatu dutena. 15.000 bat lagunek gozatu zuten Cristina-Enea parkean Donostiako udako kultura-egutegian galdu ezinezko hitzordu bihurtu den ekitaldi honetaz. Azken batean, orain arte gogoratzen diren ediziorik biribilenetakoa izan zen 2024koa, bai bere edukiagatik, bai jendearen parte-hartzeagatik.

Dkluba zirkuituak -kultura etxeetako gainerako programek bezala (Musikagela, Larratxo Kultur Etxeko metal kontzertuak edo Lugaritz Kultur Etxeko askotariko musika-emanaldiak)-, bete egin zituen kontzertu-aretoak, izen handiekin; aldi berean, baina, tokiko artisten aldeko apustua egiten jarraitu zuen.

2024. urtean zehar, dagoeneko beraien lekua hartu duten artisten aldeko apustua egin zuen Lugaritz Kultur Etxeak, besteak beste, **Mice, Audience, Txuma Murugarren** eta **Jabier Muguruza** artistekin.

Dkluba programaren eszenatoki nagusia den Intxaurren Kultur Etxeari dagokionez, **Willis Drummond**en agurreko kontzertu gogoangarriarekin ekin zion 2024ari. Dagoeneko etxeko bihurtu den **Ariel Rothen** emanaldiaren ondoren, **Musikagela Weekend XIV** jaia iritsi zen, rock-doinurik amerikarrenekin, **Koko Jean and The Tonics** taldearen eskutik.

Udaberriaren iritsierarekin, musikarik onenaz gozatu ahal izan dugu aurten ere. Gurean izan ziren **El Kanka, Liher, Anari, Kulto Kultibo, Triángulo de amor bizarro, Höpper** eta, bi emanaldirekin eta sarrera guztiak agortuta, **Doctor Deseo**.

Uda-giroa iritsi zenean, ekainean, **V. Musikagela Fest** jaialdia itzuli zen Tomas Alba Plazara (Sagues), tokiko taldeen aire zabaleko jaialdi ibiltaria, Musikaren Eguneko jaiarekin bat egin zuena (ekainaren 21ean). Musikagelako tokiko zortzi talde aritu ziren (**Los Veletas, Shasha Smith, Suite Seda, Luke Armstrong, Oep, Thee Eliam, Gardena, La Ola Maldita**), eta talde gonbidatua, **Drugos** asturiarrak.

Abuztua izan zen aipatutako **Glad is the day** jaialdiaren itzuleraren hilabetea, bere zortzigarren edizioan. Balia dezagun espazio hau jaialdiaren B aurpegia dei geniezaiokeen beste eszenatoki hori nabarmentzeko. **Ruina Sónica**



deitzen da, eta trap, hip hop eta doinurik emergenteenak egiten dituzten figurarik berrienak izan genituen: **Makeda, 1111, Alai, Sara Goxua, Kalipotxo, Sixsex, Alta** eta **Sofy Suars**.

Ginmusica eta **Donostia Kulturaren** eskutik, publikorik gazteenarekin ekin zitzaion urriko egitarauari. Doinurik urbanoenez gozatu ahal izan zuten musikazale gazteenek, **Donostiakluba Festibalaren** hemezortzigarren edizioan, hainbat artista gazterekin, hala nola **Parkineos, Giovaaz, Rebe** eta **Lamia Mari**. **Kutixik** jaialdia ere iritsi zitzaigun urrian; tokiko musika-taldez osatutako **Balio dute** kolektiboak antolatzen duen ekimena da Kutixik. Haien lanari balioa emateko eta euskarazko zirkuitu alternatiboa promozionatzeko osatu zuten kolektibo hori. **Neutroia, Bloñ, Tatxers, Mice** eta **Miruak** osatu zuten kartela.

Azaroan, indartsu ireki zuten hilabetea **Albert Plá** eta **Diego Cortés** musikariek, Dklubaren doinu aniztasuna erakusten duen itzulinguru bat emanez; hilabete amaieran, reggae eta dub musikaren onena ere itzuli zen Intxaurren: **Revolutionary Brothers**-ek antolatutako **Revolution JamRock 2024** ekimena, gauez ospatu zen jaialdi itzel batekin; **Mellow Mood Feat Dub Files, Marina P, Belén Natalí** eta **Eira** musikarien emanaldiak izan genituen.

Twangero, Los Veletas, Ander Zubillarga, Belako eta **Anariren** emanaldiekin eman zitzaion amaiera hirian klub musikarako gogoangarria izan zen 2024. urteari.

Musikagela

20 urteko ibilbidearekin, herri-musikaren jarraitzaileen eta musikarien artean Donostia Kulturaren zerbitzu ezagunenetako gisa indarra hartzen jarraitzen du.

Hastapenetako izpirituari eusten dio, tokiko musika-jarduera bultzatzea eta sustatzea, alegia, komunitatea sortuz, erabiltzaileei entseatzeko aretoak, prestakuntza espezializatua, aholkularitza eta kontzertuak eskainita eta zuzeneko emanaldietarako eta grabaketetarako ekipoak lagata.

Egia eta Intxaurrondo Kultur Etxeetan aritu zen batez ere zerbitzua, baina gainerako kultura etxeetara ere hedatzen da kolaborazioa.

Entseatzeko aretoak

Musikagelaren entseatzeko aretoek jarduera handia izan dute urtean zehar. **Egia Kultur Etxean, 70 musika-proiektuk** erabili zituzten instalazioak errotazio-modalitatearekin, hilabete bakoitzeko **40 talde** eta **160 erabiltzaileko** batez bestekoari eutsiz. Espazio hauek duten irisgarritasun eta moldakortasunagatik nabarmentzen dira, eta adin eta estilo ezberdinetako musikariak hartu zituzten, zerbitzuaren aniztasuna indartuz.

Intxaurrondo Kultur Etxean, egoitzen programak lan-ingurune egonkorragoa eskaini zien tokiko bederatzi talderi. 2024an, sei taldek erabili zuten egoitza-programa: **Rumbling Lips, Muare, Pelax, Los Premodernos,**

Convoi eta **La Ola Maldita** taldeek, hain zuzen ere. Denbora horretan, talde horietako hiru editatu zituzten lan diskografiko berriak: **Pelax-ek** (*Esan gabe doa*), **Muare-k** (*Muare*) eta **Los Premodernos** taldeak (*En las puertas de la Arcadia*).

Prestakuntza

Prestakuntza izan da Musikagela zerbitzuaren funtsezko oinarrietako bat. 2024an, **17 ikastaro** eskaini ziren, Egia Kultur Etxean (11) eta Intxaurrondo Kultur Etxean (6), hainbat gai eta alderdiri buruzkoak: ahotsa, konposizioa, grabazio-programak, bateria, musika-tresnen mantenua, DJentzako hastapeneko eta produkzioko tailerrak.

Kontzertuak eta Jaialdiak

Musikagelak tokiko taldeen parte-hartzea izan zuten **32 kontzertu** kudeatu zituen, Donostia Kulturak antolatutako ekitaldietan. Intxaurrondo Kultur Etxean, artista ezagunen artista gonbidatuak izan ziren zenbait talde, hala nola **Tritones, Muare** eta **Höpper**. **Musikagela Weekend** eta **Musikagela Fest** jaialdietan, bestalde, emanaldi nabarmenak egin zituzten **Ola Maldita, OPE** eta **Thee Eliam** taldeek. Gainera, tokiko musikariek hainbat kultura-jardueretan parte har zezaten sustatu zen, **Glad is the Day** jaialdian eta kultur etxeetako erakusketen inaugurazioetan, esaterako.

Espazioak Lagatzeko eta Maileguan emateko zerbitzua Grabazio-proiektuetarako

espazioak ere utzi zituen zerbitzuak. Egia Kultur Etxean, **Cosmicar** taldeak lehenengo solairuko aretoa erabili zuen bateria-grabazioak egiteko; Intxaurrondo Kultur Etxean, berriz, bideklipa grabatu zuen **Suite Seda** taldeak (*Paranoia Funk*). Espazioen lagapen horri esker, tokiko taldeek haien sormen-proiektuak ingurune profesionaletan garatu ahal izan dituzte.

BADA proiektua

Bada proiektuaren barruan, Musikagelak modu aktiboan kolaboratu zuen, euskarri teknikoa eta talde parte-hartzaileak eskainiz. Intxaurrondo Kultur Etxean egindako topaketetan, **Badmintones, Cosmicar, Iup, OEP** eta **Amak** taldeek parte hartu zuten, eta tokiko programatzaile gazteekin egoteko aukera izan zuten. Proiektuari amaiera emateko, kontzertu ireki bat egin zen, eta gazteek taldeetako bat hautatu zuten, amaierako ekitaldian jo zezan.

Jarduera Kolaboratiboen kudeaketa

Musikagelak hedatu egin zuen Donostia Kulturaren **+55** programaren bitartez beste ekimen batzuekin duen kolaborazioa, **Poesialdia-rekin** eta **Liburuaren Egunean** antolatzen diren errezitalekin, esaterako. **Iñaki Miguel** eta **Puy Barral** artistek, besteak beste, haien ekarpena egin zuten jarduera horietan, horrela zerbitzuaren kultura-dimentsioa areagotuz.

Balantzea eta Proiektzioa

2024. urtea oso emankorra izan da Musikagela programarako; horrela, tokiko musika-panoramarekin



duen konpromisoa berretsi du. Musikagelaren eskaintza integralak entseatzeko espazioak, prestakuntza eta ezagutzera emateko aukerak konbinatzen ditu, eta tokiko artistei hazteko eta publikoarekin konektatzeko aukera eman die. Musikagelak ezinbesteko zerbitzua izaten jarraitzen du Donostiako kultura-panoraman, etorkizunari talentua eta sorkuntza artistikoa sustatzen jarraitzeko helburuz begiratuz.



Glad is the Day

Pasa den abuztuaren 4an, Cristina-Enea parkea berriro bihurtu zen kulturaren eta musikaren Donostiako epizentro, Glad is the Day jaialdiaren zortzigarren edizioarekin. Egun eguzkitsua eta tenperatura ezin hobia egin zuen, eta **15.000 lagun** inguru elkartu ziren, Donostiako udako jaialdirik enblematikoenetakoa bihurtuz. Donostia Kulturako kultur etxeek antolatuta eta **Egia Kultur Etxeak**, **Dabadabak** eta **Le Bukowskik** koordinatuta, kultura-esperientzia anitz eta eskuragarria eskaini zuen jaialdiak. **Keler-en** babesletzari eta **Tabakalera** eta **Kutxa Fundazioaren** kolaborazioari zor zaie arrakasta hori.

Etenik gabeko bederatzi ordu musika eskaini zuen egitarauak, jende guztiarentzako proposamenekin. Eszenatoki nagusian, **La Ola Maldita** taldearen energiaz betetako surf rocka, **Erromintxelak** taldearen swing

eranskorra eta **Alcalá Norte-ren** postpunka nabarmendu ziren. Azpimarragarriak izan ziren **La Txama** taldearen doinu eklektikoak, **Magia Bruta-ren** ereserki emozionalak eta **Ibil Bedi** taldearen hitz introspektiboak ere. **Silverio** mexikar artista karismatiko eta polemikoak itxi zuen jaialdia, egun gogoangarri hura adrenalinaz gainezka amaituz.

Aldi berean, trap, hip hop eta musika urbanoarentzako espazio zirrargarria eskaini zuen. Talentu handiek eskaini zituzten emanaldiak, **Makeda** (DJ), **1111** (Live) eta **Sara Goxua** (DJ) artistek, esaterako. Gainera, tokiko artisautza, *vintage* moda eta gastronomia konbinatzen zituzten 50 postu baino gehiagoko azokaz gozatu ahal izan zuten bertaratu zirenek. Haurrentzako antolatutako jarduerak eta elementu jasangarrien integrazioak

berretsi egin zuten jaialdiak ingurumenarekiko eta belaunaldi arteko bizikidetzarekiko duen konpromisoa.

Bezperan, **Gladys Aperitifa** egin zen Nestor Basterretxea plazan, **Tabakalera** ondoan. Musika-gosea piztu zuen ekimenak, **OEP** Musikagelako taldeetako baten emanaldi bereziarekin; horrela, argi geratu zen berriz ere tokiko musikak duen garrantzia, huraxe baita jaialdiaren oinarria.

Ekitaldi horrekin, musika- eta kultura-aniztasuna ospatzeaz gain, hiri-parkeek aisialdi jasangarri baterako espazio gisa duten balioa ere aldarrikatu zen. Glad is the Day jaialdiaren 2024ko edizioak, bere izaera familiar, inklusibo eta jasangarriarekin, arrasto gogoangarria utzi zuen, Donostiako kultura-egutegiko galdu ezinezko hitzordu gisa duen pisua berretsiz.

DK Irratia

DK Irratiak 24 orduz emititzen du **107.4 FM**-n eta **irratia.donostiakultura.eus** helbidean. 2024. urtean **24** irratsaiorekin osatutako programazioa eskaini zen.

Ispilu Beltza programak formatu aldaketa izan zuen 2024an: entzuleen kontsumo-ohitura berrietara egokitzeak asmoz, irailetik aurrera podcast formatuan izan zen entzungai, eta 30 minutu inguruko bi saio ekoiztu ziren astean.

DK Irratiko estudioetan egiten den **irradi-tailerrean** 17 irratsaio ekoiztu ziren 2024an. Eta hainbat eragilarekin egindako hitzarmenei esker, kanpo-ekoizpena izan zuten beste 6 irratsaio ere emititu ziren DK Irratian.

DK Nobedadeak musika-zerrenda ere aktibo mantendu zen 2024an, irratiko

programazioan hiriko talde eta bakarlarien espazioa bermatzeko.

Estudioen erabilera orokorrean mantendu egin zen 2024an. Halaber, astero **bi irradi-antzerki saio** grabatzeak mugimendua sorrarazi zuen, estudioetako giroa berpiztuz.

DK Podcastek harrera ona izaten jarraitu zuten 2024an. **39 podcast** igo ziren eta entzunaldi kopuruak **% 18 gora** egin zuen, **6.141** entzule kopuru izatera lortu arte.

DK irratiak bere guztizko **entzule kopurua % 9,7 igo** zuen 2024an. Sare sozialetan irratiak lehendik zuen presentzia mantentzen jarraitu zuen, eta apurka-apurka irratia-aren X kontua jarraitzaileak irabazten ari da.

Trebakuntzari dagokionez, 2024an **Olga Granderen**

Podcast Ikastaroa aurrera eramane zen.

Hamaika entzuteko! Irrati-piezen lehiaketaren X. edizioa ere antolatu zen 2024an. 13 pieza jaso ziren, eta saritutako lanen berri emateko **Ispilu Beltza** irratsaio berezi bat emititu zen saridunen eta epaimahaikideen parte-hartzearekin. 2024ko irabazlea **Maider Uriarte** izan zen *Azken farozaina* lanarekin eta bigarren saria **Óscar Sipánentzat** izan zen, *El jardín de las flores tristes* piezarengatik.



JARDUERAK

221

Antzerkia (emanaldiak)

Erabiltzaileak: 29.917

47

Dantza (emanaldiak)

Erabiltzaileak: 8.362

96

Musika (kontzertuak)

Erabiltzaileak: 36.314

145

Zinema (emanaldiak)

Erabiltzaileak: 8.645

211

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak

Erabiltzaileak: 12.837

204

Erakusketak

Erabiltzaileak: 104.237

1.168

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak

Erabiltzaileak: 34.416

1.352

Liburutegiko
jarduerak

Erabiltzaileak: 20.161

635

Plus 55

Erabiltzaileak: 14.309

687

Gaztelekua

Erabiltzaileak: 11.313

810

Haurtxokoa

Erabiltzaileak: 17.010

228

Bestelakoak

Erabiltzaileak: 3.768

Guztira
5.804
jarduera

301.289
erabiltzaile

ZERBITZUAK

490.623

bisitaldi

Liburutegia

2.827

bisitaldi

Ikasgela

15.580

bisitaldi

Gaztelekua

16.020

bisitaldi

Haurtxokoa

29.244

bisitaldi

KZgunea
(Nabigazioak)

330

bisitaldi

Altzako bilduma

92.289

bisitaldi

Altzako bilduma web

6.119

bisitaldi

DK Irratia web

5.361

bisitaldi

Ispilu beltza
magazine-podcasts

2.628

bisitaldi

Bideo tailerra

7.443

bisitaldi

Musikagela

6.099

bisitaldi

Musika Eskola

3.117

bisitaldi

Plus 55

Guztira
677.680
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	1.819	1.357	14.172	10.318	3.854
2023-2024 IKASTAROAK	442	261	4.500	3.449	1.051
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	3	2	24	14	10
Gaztelaniaz	6	5	67	46	21
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	183	65	895	737	158
Gaztelaniaz	181	135	2.667	2.138	529
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	6	5	59	26	33
Gaztelaniaz	14	11	196	130	66
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	5	2	29	16	13
Gaztelaniaz	44	36	564	342	222
2024-2025 IKASTAROAK	465	275	4.539	3.519	1.020
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	3	2	18	6	12
Gaztelaniaz	2	3	31	13	18
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	186	64	895	726	169
Gaztelaniaz	182	157	3.009	2.379	630
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	13	7	65	43	22
Gaztelaniaz	16	9	79	42	37
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	50	22	274	184	90
Gaztelaniaz	13	11	168	126	42
IKASTARO PUNTUALAK	27	27	677	396	281
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	23	23	528	316	212
Gaztelaniaz	4	4	149	80	69
KZgunearen IKASTAROAK	490	444	2.687	1.863	824
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	395	350	1.769	1.091	678

KULTUR ETXEETARA egindako bisitak
Guztira 1.008.040

Aiete
Kultur Etxea

2024



AIETE Kultur Etxea



Euskal Herriko 40 Emakume erakusketa

Aiete Kultur Etxea, ilustrazioan, bakean eta giza eskubideetan espezializatuta egoteagatik ezaguna dena, gero eta gehiago ari da finkatzen sortzaileentzako eta, oro har, jende guztiarentzako erreferente gisa. 2024an, Aiete Kultur Etxea funtsezko eszenatoki bihurtu zen, non hiriko ekimenak eta garapen eta eraldaketa betean dagoen auzo gazte baten berezko dinamikak konbinatu ziren. Lantxanbe bizilagunen elkarteak indartu egin zuen bere kultura-eskaintza, hilabetero gero eta izen handiagoa hartzen ari den hitzordu batekin; horrela, egile-zinema, literatura eta arte zikloak ekarri zituzten auzora. Era berean, auzoko parkeko Topalekun egoitza duen Erretiratuen Elkarteak, jarduera gehiago antolatu zuen, Kultur Etxearekin zein Euskara Batzordearekin zuen lankidetzara indartuz.

Aiete Kultur Etxean antolatutako erakusketak bat datoz **2030 Agendaren** garapen jasangarriko helburuekin, kultura-eskubideen garrantzia nabarmentzen delarik. Jorratutako gaien artean, nabarmentzekoak dira genero-berdintasunaren sustapena, emakume eta neskatilen ahalduntzea, herrialde barruko zein herrialdeen arteko desberdinkerien murrizpena, eta hiri eta komunitate

ekitatibo, baketsu eta inklusiboen aldeko ekintza. Kontsumo eta ekoizpen arduratsuko patroiekin lotutako alderdiak ere landu ziren, eta naturarekiko errespetuzko bizitza-estiloekin lotutakoak.

Erakusketei dagokienez, nabarmenenetako bat – izan zuen harreragatik eta oihartzunagatik– Beta argitaletxearen **Gipuzkoako Emakumeak** izan zen, irakurketa errazeko **Euskal Herriko 40 Emakume** liburuan oinarritutakoa, **Cira Cresporen** testuekin eta **Elena Ciordiaren** ilustrazioekin. Idazkuntzari, pinturari, pedagogiari, kirolari, kazetaritzari, bertsolaritzari eta beste hainbat esparruri ekarpen garrantzitsua egin dioten Gipuzkoako emakumeak eta kolektiboak goraipatzen ditu erakusketak, hainbat figura nabarmenduz, hala nola **Bizenta Mogel**, **Asun Baltzola**, **Elbira Zipitria**, **Lourdes Iriondo** eta **Menchu Gal**.

Ikuspegi inklusibo batekin, irakurketa errazeko tresnak erabili zituen erakusketak; era horretan, ulermen-zailtasunak dituzten pertsonen egokitu zien bere edukia. **Beta argitaletxearekiko** lankidetzari esker, ekoizpen propioko ekimen hau Euskal Herriaren historian arrastoa utzi duten emakumeei egindako omenaldia izan zen.

Giza Eskubideen Zinemaldiaren testuinguruan, **Pakistan: Indusen ibaibideak** erakusketa aurkeztu zuen Donostia Kulturak. Erakusketa horretan, **Igone Mariezkurrena** kazetari eta antropologoak herrialde horretara egindako bidaetan ikusi eta dokumentatutako errealitateen isla ezagutu ahal izan zuten bisitariek. Guztiak ere klima-aldaketak Indus ibaiaren arroan bizi direnen bizitzetan eragiten duen inpaktuaren ingurukoak, hala nola glaziarren atzerapena, uholdeak, ur-baliabideen kutsadura, lehorteak eta natura-baliabideen pribatizazioa.

Aiete Kultur Etxean udan aurkeztutako erakusketak Nobel Saridun **Ernest Hemingway** idazle eta kazetari estatubatuarra ia lau hamarralditan zehar Euskal Herriarekin izan zuen lotura estua erakusten zuen. Gernikako Euskal Herria Museoak eta Donostia Kulturak antolatu zuten erakusketa Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Donostian eta Bilbon Hemingwayri buruzko Nazioarteko Biurteko XX. Biltzarrekin bat eginez.


Edukien artean, **Martha Gellhorn** gerra-korrespontsal eta Hemingwayren emazte-ohiaren kontakizuna nabarmendu zen; La Habanan euskal pilotariekin igarotako festa gau bat ekarri zuen gogora, idazleari eta hark euskal kulturarekin zuen konexioari buruzko ikuspuntu pertsonal eta aberasgarria eskainiz.

Hiri ikuspegi batetik, hainbat erakusketa bultzatu zen Donostiako beste departamentu eta jaialdi batzuekin batera. Horrela, Aiete Kultur Etxeak, Donostiako Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinema Jaialdiarekin eta Donostia Kulturarekin batera, **Goya - Hellboy: Munstroen ikonografia Stéphane Levalloisen eskutik** erakusketa aurkeztu zuen.

Asier Mensuro izan zen Afundación-Obra Social ABANCAk antolatutako erakusketa honen komisarioa, eta **Goyaren** ikonografia fantastikoaren berrinterpretazioa eskaini zuen, **Stéphane Levallois** frantziar artista ezagunaren ikuspegitik. XIX. mendeko munstroen eta Hollywood garaikidekoen arteko konexio liluragarria arakatzeko erakusketak, **Mike Mignolak** sortutako Hellboy komiki-pertsonaia ikonikoaren bitartez.



Pakistan: Indusen ibaibideak erakusketa



Goya-Hellboy: Munstroen ikonografia Stéphane Levalloisen eskutik erakusketa



Paperezko arimadun istorioak erakusketa, Mila García



Raquel Samitier, Ilustratzailearen Txokoan

Donostia Kulturaren Literaktum Jaialdiaren barruan, **Mila García** artista nafarraren **Paperezko arimadun istorioak** erakusketa aurkeztu zen. Paperez sortutako unibertso magikoetara eramaten zuen ikuslea erakusketak, *Alizia herrialde miresgarrian* lanaren bertsio delikatu modura, non egilearen maisutasuna, teknika eta arima pertsonaia eta objektuen xehetasunetan ikusten diren, baita paleta kromatikoaren erabilera fin eta orekatuan ere. Pieza horiek erabat dira artisau-erakoak, eta gauza txikiek munduak laburbiltzeko eta istorio ahaztezinak kontatzeko gai diren espazio gisa duten balioa aldarrikatzen dute.

Urtea amaitzeko, **Ijitoak Gipuzkoan** erakusketa egin zen. Ijito herriak XIX. mendetik gaur egun arte Euskal Herrian duen historiaren gaia jorratzen zuen erakusketak, Gipuzkoaren kasua erdigunean jarritz. 45 argazki erakusten ziren, baita aldizkariak eta hainbat adituren liburuak eta liburuxkak ere.

Hainbat artista izan ziren protagonista Ilustratzailearen Txokoan, euskal irudigintzaren sormen-unibertsoari balioa emateko Aieten sortutako espazioan, hala nola **Maitane Bautista, Mai Egurza, Raquel Samitier, Aritz Trueba** eta **Olaia Martinez**.

Programatzeko erabiltzen den beste espazio bat Txoko Urdina da; beste eragile sozial eta herritar batzuekin lankidetzan egiten diren erakusketak jartzen dira espazio horretan. Horrela, 2024an, Aieteko **Axular Lizeoarekin** eta auzoari buruzko *Aiete-Land* bere proiektuarekin eta, *2030 Agenda Aieten* egitasmoaren testuinguruan, **Cristina Enea Fundazioarekin** kolaboratu zuen Aiete Kultur Etxeak.

Bestalde, auzoko eragileekin ere aritu zen elkarlanean, hala nola **Emaús-Munto** Fundazioarekin; **Fusio birziklatua** erakusketa jarri zuen fundazio horrek, birziklatutako materialekin jantzitako manikiz osatutakoa. Eguneko zentroko parte-hartzaileek eurek egin zituzten pieza horiek. **Dbus** udal enpresaren Eguberrietako marrazki-lehiaketako saridunen ohiko hautaketarekin amaitu zen urtea.

Aieteko jaien barruan, **Bertso Jira** egin zen. **Maialen Lujanbio** eta **Beñat Gaztelumendi** bertsolariak auzoko kaleetan barrena ibili ziren, udal txistulariekin eta Kantu-jirako kideekin batera.

Herritar askoren eskariari erantzunez, eta Aieteko parkearen inguruko ezagutza sakontzeko helburuz, **Aieteko mezu sekretuaren bila** proiektua garatu zen, Cristina Enea Fundazioarekin lankidetzan. Horretarako, **Aitziber Alonso** ilustratzailearen sormena eta sentsibiltatea izan genuen lagun; parkearen mapa artistiko eta ludiko bat diseinatu zuen berak, parkearen historia eta natura-aberastasuna arakatzera gonbidatzen gintuena, pista eta proba interaktiboan bitartez.

Bertako artistak protagonista dituen **Musiklasik** musika klasiko zikloak Easo Abesbatzaren emanaldi bikain batekin inauguratu zuen urteko programazioa. Ondoren, **Claudia Besné** harpa-jotzailea izan genuen; musikan zeharreko ibilaldi liluragarria eskaini zuen, gaur egunera artekoa. Urtea amaitzeko, **Alize Mendizabal** klabezin-jotzaileak eta **Alejandro Martinez** biolontxelo-jotzaileak osatutako duoak atsegin handia eman zion publikoari, interpretazio bikain batekin. Oso harrera ona izan zuen zikloak; emanaldien kalitate artistikoa eta tokiko musika-talentuari balioa ematen dion egitarau honen aberastasuna nabarmendu zuten entzuleek.



Misterioa, Tomaxen abenturak

Urtean zehar, egitarau anitzaz gozatu ahal izan zuten familiek Aiete Kultur Etxean; nabarmentzekoa da hurrei zuzendutako 72 film inguru eskaini zirela, euskaraz eta gazteleraz. Asteburuetan eta opor-aldietan antolatu ziren saio horiek, eta 1.000 lagun inguru erakarri zituzten; horrela, finkatu egin dira, txikienentzako eta haien familientzako kalitatezko kultura-aukera eskuragarri gisa.

Haur-antzerkiko programazioak aukera zabala eskaini zuen, haurrak irudimenez, ikaskuntzaz eta entretenimenduz betetako istorioekin erakarritik. Proposamenen artean, **Misterioa ikasgelan** eta **Tomaxen abenturak** izan ziren aipagarrienak, publikoa abentura misteriotsu eta zirraragarrietan murgiltzera gonbidatuz. Magiak ere izan zuen bere lekua, **Marsel Magoaren Magiaderia absolutuak** lanarekin; haurrak txundituta utzi zituen bere ikuskizunarekin.



Claudia Besné, Musiklasik

Hezkuntza- eta gizarte-balioekiko konpromisoa ere agerian gelditu zen, hainbat obrarekin, hala nola **Eidabe** taldearen **Piztu! EmakumeON energia** eta Liburuaren Egunaren harira aurkeztutako **Didau teatroa** konpainiaren **Hazia** ikuskizunekin. Bestelako proposamenak ere izan genituen, besteak beste, **Potxin eta Patxin** pailazoen **Herri tropikala**, Munto plazan aire zabalean eskaini zena, eta **Erre produkzioak** konpainiaren **Piraten istorio bat**. Zikloa ixteko, **Anita Maravillasen Pinto, Pinto** ikusteko aukera izan genuen Literaktum Txikia programaren barruan, eta **Tomaxen Abenturak-en Azken festa** antzezlan. Antzezlan horien guztien aniztasunak eta kalitateak kultur etxeak haur-antzerkia kultura- eta hezkuntza-tresna gisa sustatzearekin duen konpromisoa azpimarratu zuten.


Urtean zehar, erabiltzaileen komunitatea indartzen jarraitu zuen Aieteko **liburutegiak**, eta erantzun positiboa jaso zuen parte-hartzaileengandik. Haurrentzako asteroko programazioari eutsi zion liburutegiak, hala nola **Liburu Baby Kluba**, **Zeu irakurle gu kontalari**, **Ipuinaren ordua** eta gure inguruneko ikastetxeen bisitekin. Gainera, modu aktiboan hartu genuen parte **Nur** liburuei eskainitako ilustrazio lehiaketa antolatzen; **Literaktum Txikia** ekimenaren barruan egin zen lehiaketa hori, udal liburutegien sare osoan.

Ikastaroei dagokienez, pandero, joskintza eta yoga ikastaroak nabarmendu ziren, bai eta hainbat gairen inguruko egile-ikastaroak ere. Historiari buruzko ikastaroa eman zuten **Maria José Noainek** eta **Mikel Alberdik**, geografiari buruzkoa **Asier Hilariok**, haur-psikologiaren ingurukoa **Nerea Mendizabalek**, eta baso-bainuak egin ziren Aieteko parkean, Cristina-Enea Fundazioarekin lankidetzan.

Poltsiko Antzerkiak harrera bikaina izan zuen; bi gune zabaletan eskaini ziren ikuskizunak, El Fogón de Miramon jatetxean eta Campus Bera-Bera tabernan, arte eszenikoak tokiko komunitatearentzako hurbilekoak eta irisgarriak diren espazioetan sustatzearekin dagoen konpromisoa azpimarratuz. **Paco en la Luna** artistak formatu txikiko antzerki-esperientzia bat eskaini zuen, eta **Peio Rivas** magoak txundituta utzi zuen publikoa bere magia interaktiboarekin, harridurazko eta hurbileko giroa sortuz.



Pinto Pinto, Anita Maravillas



Peio Rivas, Teatro de Bolsillo

2024an zehar, Aiete Kultur Etxearekin kolaboratzen jarraitu zuen **Haurtxokoak** hainbat programatan, hala nola Literaktum Txikian eta Giza Eskubideekin lotutako erakusketan, ilustrazioko tailerrekin eta beste jarduera batzuekin. **Gaztelekuaren** kasuan, auzoko gazte askok erabili zuen, eta udan Udaleko Euskara Sailaren udalekuetarako laga zen espazioa.

Aiete Kultur Etxean, hurbiltasun fisikoa lagungarria izan zen interakzio sozialerako eta pertsona arteko interakziorako, gizarte-kohesioa eta auzoaren identitate kolektiboa indartzeko funtsezko tresna bihurtuz. Horregatik, lehenetsia eman zitzaion tokiko kultura-eragileekiko etengabeko elkarriketari, lurraldea eta komunitatea izan baitziren eguneroko lanaren muina, betiere bizilagunen eta inguruneko kultura-jardueren arteko harremana eraikitza eta indartzera bideratuta.

JARDUERAK

13

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.302

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

3

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 319

Guztira
538
jarduera

30.403
erabiltzaile

74

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 2.000

4

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 245

16

Erakusketak
Erabiltzaileak: 12.307

70

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 7.096

114

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 1.871

0

Plus 55
Erabiltzaileak: 0

75

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 1.403

169

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 3.860

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

ZERBITZUAK

51.138

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

1.403

bisitaldi
Gaztelekua

3.860

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasta

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

0

bisitaldi
Plus 55

Guztira
56.401
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	103	60	879	660	219
2023-2024 IKASTAROAK	50	28	455	324	131
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	1	13	7	5
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	21	7	89	67	23
Gaztelaniaz	17	13	196	169	27
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	1	13	7	6
Gaztelaniaz	4	2	75	47	28
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	5	4	69	27	42
2024-2025 IKASTAROAK	53	32	424	336	88
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025eko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	20	7	101	85	16
Gaztelaniaz	20	16	211	181	30
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	3	2	26	17	9
Gaztelaniaz	5	4	47	33	14
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	5	3	39	20	19
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 97.876

Casares /
Tomasene
Larratxo
Kultur Etxea

2024



CASARES / TOMASENE

Kultur Etxea

2024. urteari dagokionez, nabarmendu behar da jende askok hartu zuela parte kultur etxeak bere instalazioetan zein kanpoan antolatutako programa eta zerbitzuetan. Hain zuzen ere, kaleko ikuskizunetara joan zen jende kopuruak eta jardueretako parte-hartzeak igoera nabarmena izan zuten, kultur etxe honek eskaintzen dituen gainerako programa eta zerbitzuetako parte-hartzearekin batera.


Auzoko eragileen jarduera-proposamenak eta horiek lortu zuten parte-hartze aktiboa areagotzeaz gain -auzoan jai berriak ere sortu ziren-, erreferente bihurtzen ari da hiri osoan, eta auzoak berezko ezaugarri dituen parte-hartzearen, elkarlanaren eta elkartasunaren eredu da.

Urtean zehar eskainitako zerbitzuak - auzoetako jaiez gain- hazi egin ziren parte-

hartzeari dagokionez, hala nola **Bertso Aroa, Emakumearen Astea, Altzako naturaldia, Gau Beltza, Gabonak Altzan**, eta auzoko kolektiboek espazioen lagapen gehiago egin zitzaizkien, bizilagunen batzarrak egiteko zein askotariko jarduerak garatzeko.



Haurreskolari, Tio Teronen semeak. Antzerkia kalean





Basoko sekretuak, Ameli & Xirrikituak jostunek, Liburuaren eguna



Pailazkokeriak, Txirri. Mirri eta Txiribiton, Antzerkia kalean

Irratia, Casaresen arima

Donostia Kultura Irratiak Casares-Tomasene Kultur Etxetik emititzen du, FM **107.4** sintoniaren bitartez eta streaming bidez.

2024an, 15 irratsaio egin ziren irrati-tailerrean; horiei **Ispilu Beltza** programaren saioak eta kanpoko ekoizleekin lankidetzan egindako beste sei irratsaio gehitu behar zaizkie. Irrati-estudioaren erabilerari dagokionez, iazko mailari eutsi zitzaion, baina **DK podcast** ataleko entzule kopuruak nabarmen egin zuen gora berriro: aurreko urtean baino %18 entzule gehiago.

DK Irratiak ere hazkundera izan zuen (%10ekoa), eta sare sozialetan ere jarraitzaile gehiago lortzen jarraitu zuen, pixkanaka bada ere. Ikastaro-eskaintzaren atalean, bestalde, berrikuntza bat izan genuen, Olga Granderen podcast ikastaroarekin.

Halaber, **Hamaika Entzuteko!** irrati-lehiaketan, hamargarren edizioa zela eta, edizio berezia grabatu zen **Ispilu Beltza** programaren barruan, eta irabazleek haien piezak grabatu eta eman ahal izan zituzten estudio hauetatik.

Donostia Kulturaren webgunean daude gordeta emandako irratsaio guztiak eta Donostia Kulturaren ekitaldi ugariaren grabazioak. Edozein erabiltzailearen eskura daude, podcast formatuan.

Altzako bilduma

Altzako Tokiko Bilduma dokumentazio-zerbitzu bat da, Donostia Kulturak eta **Altzako Historia Mintegiak** Altzako dokumentu-ondarea biltzeko, kontserbatzeko eta ezagutarazteko helburuz sortutakoa. Urtea amaitzerako, 23.201 agiri baino gehiago zuen Tokiko Bildumak; 983 agiri berri eskuratu, digitalizatu eta katalogatu ziren 2024an. Hainbat garai historiko (Gerra Zibila, esaterako) eta euskarri grafikotan, lurraldeko dokumentazioetan, ikus-entzunezko irudi eta testigantzetan eta beste bilatzen dira agiriak. Katalogatuta daude agiri horiek, eta **altza.info webgunean** eskura daitezke.

Urtez urte zabalkunde handiagoa du bildumak, eta gero eta ezagunagoa da eskaintzen duen zerbitzua. Bisitari digitalei dagokienez, **92.289** lagunek bisitatu zuen webgunearen bitartez. Bestalde, Kontsulta Zerbitzuak hainbat ikertzaileekin kolaboratu zuen, eta sei artikulua argitaratu zituzten ikertzaileok Estibaus blogean.

Plus 55 programa finkatu egin da kultur etxean integratutako zerbitzu gisa, urtean zehar adineko pertsonentzako hainbat kultura- eta hezkuntza-jarduera eskainiz, adineko pertsonen kolektiboaren eskariei erantzunez eta parte hartzeko motibazioa eta gogoia zuten guztientzako aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua eskainiz. Mugikorrei buruzko ikastaroak, bideo-foruma, amateur antzezlanak eta Altzako paseoak nabarmentzen dira, besteak beste.

Ikastaro-eskaintzak harrera oso ona izan zuen; inoiz baino ikastaro gehiago irten zen aurrera, herritarrei askotariko diziplinak hurbilduz, elkartzeko eta parte hartzeko espazioak eskaintzeaz gain. Kultur etxean lehendik ere erreferente ziren ikastaroei -zeramika, jostkintza, gitarra, pilates eta argazkigintza digitala- beste batzuk gehitu zitzaizkien, hala nola kantu-teknikei buruzkoa, memoria tailerra, eta osasunarekin eta ongizatearekin lotutako beste batzuk; oso harrera ona izan zuten, eta datozen urteetan horiek ere erreferente bihurtuko direla dirudi.

Altzako hainbat elkarte eta erakunderekin lankidetzan, zenbait jarduera-ziklo antolatu zen, interes sozialeko gai garrantzitsuen inguruan, hala nola ingurumena, genero-berdintasuna eta hezkuntza. Aktibo seguruak dira **Emakumeen Astea**, parte-hartze handia duena eta auzoko emakume elkarteekin batera antolatzen dena, eta **Altzako Naturaldia**, auzoa eta natura-ingurunea lotzen dituen bisita gidatuak antolatzen dituenak. **Bi horma-irudi egin ziren Altzan**, Ekialdeko Barrutiaren laguntzarekin eta, bereziki, Joan Mari Irigoien omendu zen, Altzako idazle ospetsuenetakoa.

Hiriko auzo guztiak hartzen dituzten programetako ekintzak ere egin ziren auzoko hainbat espaziotan, tabernetan eta Altzako elizan, besteak beste; **Poltsiko Antzerkiaz**, **Literaktum** literatura-jaialdiaz, **Dklubaren** barruan antolatzen diren kontzertuez eta **Abesbatzen Asteaz** ari gara; horrela, kultura espazio ezberdinetara iritsi zen, herritarrek bestelako eskaintza integratzaile eta parte-hartzaileaz goza zezaten.

Tomasene liburutegiari dagokionez, aipagarria da erabiltzaile kopuru handia izan zuela eta handia izan zela mailegu-zerbitzuaren erabilera; nabarmentzekoa da, bereziki, haurrei zuzendutako egitaraua, **Liburu Baby Kluba**, **Liburu Lab** eta **Ipuinaren ordua** ekimenekin. Parte-hartze handia izan zuten jarduera horiek, eta dagoeneko eskari handieneko erreferenteak dira, herritarrek eskertzen dituztenak.

Amaitzeko, garrantzitsua da azpimarratzea kultura-baliabideek inpaktu onuragarria dutela auzoan, eta gizarte-gaikuntza sortzen dutela, eta Casares-Tomasene Kultur Etxeak funtsezko eginkizuna betetzen duela horretan. Hala ere, gogorarazi behar da hori guztia ezinezkoa izango litzatekeela inplikaturako kolektibo eta elkarten laguntzarik gabe; horrela, Altza erreferente bihurtu da hiri osoan, eta parte-hartzearen, elkarlanaren eta elkartasunaren eredu da.



Erakusketa *Txoriak begibistan*, Altzako Naturaldia



Suanplu chorus (Tailandia), Abesbatzen Astea

JARDUERAK

12

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.641

1

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 350

1

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 150

2

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 85

11

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 348

5

Erakusketak
Erabiltzaileak: 2.520

297

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 6.894

154

Liburutegiko
jarduerak
Erabiltzaileak: 1.637

71

Plus 55
Erabiltzaileak: 1.641

0

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 0

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
554
jarduera

15.266
erabiltzaile

ZERBITZUAK

57.281

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

1.937

bisitaldi
KZgunea
(Nabigazioak)

330

bisitaldi
Altzako bilduma

92.289

bisitaldi
Altzako bilduma web

6.119

bisitaldi
DK Irratia web

5.361

bisitaldi
Ispilu beltza
magazine-podcasta

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

2.871

bisitaldi
Musika Eskola

586

bisitaldi
Plus 55

Guztira
166.774
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	385	257	1.740	1.226	514
2023-2024 IKASTAROAK	78	28	386	294	92
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	39	7	79	69	10
Gaztelaniaz	33	18	261	209	52
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	4	3	46	16	30
2024-2025 IKASTAROAK	81	34	450	357	93
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025eko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	1	11	5	6
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	41	6	61	57	4
Gaztelaniaz	33	27	378	295	83
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	3	0	0	0	0
Gaztelaniaz	4	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	19	19	206	121	85
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	19	19	206	121	85
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	44	34	146	100	46
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	163	142	552	354	198

KULTUR ETXEETARA egindako bisitak, guztira 104.260
CASARES K. E.: 43.315 / TOMASENE K. E.: 60.945

LARRATXO

Kultur Etxea

Larratxoko gune eszenikoak bere helburua bete zuen, jarduera eta ekitaldi ugaritarako eskaini baitzituen bere zerbitzuak. Elkargunea izan zen, bai auzoko hainbat kolektiborentzako, bai danborradarako entseguetarako eta Altza Gure eta Santa Barbara konpartsetarako; igandean erabili zuten espazioa talde horiek. Gainera, sevillar dantzen erakustaldiak, hainbat ikuskizun – hala nola Show Time eta Varona– eta Bizarrainek antolatutako kultura-jarduerak izan ziren, hala nola Mintzodromoa, Euskararen Eguna ospatzeko antolatu zena. Donostia Kulturak urtero antolatu ohi dituen askotariko diziplinetako ikastaroak ere egin ziren, era horretan auzoko kultura- eta gizarte-bizitzari ekarpena eginez.

Haurrentzako antzezlanen eskaintza nabarmendu zen urte osoan zehar; adin guztiei zuzendutako emanaldiek izan zuten arrakasta parte-harteari dagokionez, bai kultura etxean bertan eskaini zirenek zein auzoko jaietako kale-antzerkiek. Azpimarratzekoa da maila handiko antzerki-taldeen parte-hartzea ere, hala nola **Txirri, Mirri eta Txiribiton, Markeline, Tomaxen abenturak, Glu Glu, Ganso & Co, Potx eta Lotx...** Deigarria da emanaldi guztietan familien parte-hartze maila handia.

Ezin dugu ahaztu antzerki amateurra, areto honetarako horren garrantzitsua dena, hainbat talderen emanaldiekin: **Los Guachindanguitos** taldea, **La familia Adams** obrarekin, **O.N.C.E., Viva los novios** ikuskizunarekin, **Erdialde, Las dramaturgas** obrarekin, eta **Nueve teatro** konpainia, **Alguien voló sobre el nido del cuco** obraren emanaldiarekin.

Larratxoko liburutegian, irakurzaletasuna eta jarduera parte-hartzaileak sustatzearen aldeko apustua egiten jarraitu zen, mailegu-zerbitzuari eutsiz eta hurrei zuzendutako jardueretan parte-hartze maila handiarekin jarraituz: **Ipuinaren Ordua** eta **Liburu Baby Kluba**, esaterako.



Ganbara, Markeliñe



XXIII. Sevillana Jaialdia

Emakumeen Astea ere ospatu zen 39. aldiz, parte-hartze handiarekin; horrela, pandemia baino lehenagoko datuak lortu ziren berriro hainbat jardueratan, hala nola antzerki-emanaldietan eta hitzaldietan, auzoan emakume elkarteek egiten duten lanari balioa emanez. Nabarmentzekoak dira **Kili Kolo** antzerki talde amateurraren **Entre tinieblas** lanaren emanaldia, **Virginia Imazen Akelarre** antzerki-obra eta emakumeen plazerari buruzko hitzaldia, **Ainara Brusauk** eskaini zuena.

Musikaren arloan, **Heavy Jaiaren** XXII. edizioa ospatu zen, **Dünedain**, **Secret Sphere** eta **Kill Wolfe** taldeen kontzertuarekin. Urte hauetan guztietan izan duen xarmari eta nortasunari eutsi zion jaialdiak talde hauen emanaldiekin. **Gabonak in Hell** jaialdiaren X. edizioa ere aipatzekoa da, Valdhemar, Bajo Zero Dravernue eta Diabulus in music taldeekin; **Euskal Metal Fest**, Blood Bound, Lethargus, Paraiso Terrenal eta Cains Dynasty taldeekin, eta **Metal Norte Musik Festival** jaialdia, Avalanch, Zenobia eta Headon taldeekin, heavy musikaren zaleen gozamenerako, eta erabateko erantzuna izan zuen **Zombie Jaialdiaren** XXIII. Edizioak, **Riot V**, **Hijos de Overón** eta **Azrael** taldeekin.

XXIV. Bertso Aroa auzoko erreferente gisa garatu eta finkatu zen 2024an. Harrera oso ona duen ekimena da, bertsoa jardueraren erdigunean jartzen duena eta adin guztietako jendeari zuzenduta dagoena. Aipatzekoak dira, besteak beste, **Mejillón tigre** kolektiboaren **Hitz esana**; **Bertso Jaialdia**, **Aitor Mendiluze**, **Maialen Lujanbio**, **Oihana Arana** eta **Xabat Gaitebeitiarekin**, eta musika-kontzertua, **Agin Laburu**, **Josune Aramendi**, **Julio Soto** eta **Nerea Ibarzabal** bertsolarien parte-hartzearekin.

Horri guztiari esker, Larratxo Kultur Etxea auzoaren eskariei eta hiriko beste ekimen batzuei erantzuten dien espazio aktibo eta parte-hartzaile gisa nabarmendu zen.



Akelarre, Virginia Imaz. Altzako Emakumeen Astea



Avalanch, XV. Metal Norte Festival



Dünedain, XXII. Heavy Jaia

JARDUERAK

0

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

13

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.856

3

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 663

5

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.537

1

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 125

2

Erakusketak
Erabiltzaileak: 262

0

Bilerak eta
elkarleen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 0

52

Liburutegiko
jarduerak
Erabiltzaileak: 1.829

64

Plus 55
Erabiltzaileak: 1.329

5

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 554

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
145
jarduera

8.155
erabiltzaile

ZERBITZUAK

18.640

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza
magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

0

bisitaldi
Plus 55

Guztira
18.640
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	29	7	119	109	10
2023-2024 IKASTAROAK	15	4	61	58	3
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	1	11	10	1
Gaztelaniaz	8	3	50	48	2
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2024-2025 IKASTAROAK	14	3	58	51	7
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025eko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	1	20	14	6
Gaztelaniaz	7	2	38	37	1
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 22.479

Egia
Kultur Etxea

2024

DK
memoria



*Il Labirinto
Cafe Bar*



EGIA Kultur Etxea

Egia Kultur Etxearen *urtea!* izan zen, zalantzarik gabe, 2024a. Zerbitzuek eta jarduerak lortu zuten parte-hartzea inoizko handiena izan zen, 1997an Kultur Etxea inauguratu zenetik.

Ikastaroen eskaintzak ere inoiz baino erantzun hobeia izan zuen parte-hartzaile kopuruari zein ikastaro kopuruari dagokienez, eta aurkeztutako eskaintza ia osoa gauzatu zen. Askotariko diziplinak jorratu ziren ikastaroetan, euskaraz zein espainieraz: dantza garaikideak, funkyak, jumpingak, jostintzak, marrazketak eta pinturak, argazkilaritzak, DJ ikastaroak eta altzariak eraberritzen ikasteko eskaintzak adin guztietako herritarrek erakarri zituzten.



Lo que pasaba mientras, Cía Analógica © Gorka Bravo



Iñaki Alegria



Biblioteca Humana

Liburutegia

Haurrentzako zein helduentzako jarduera-programa zabalarekin jarraitu zuen liburutegiak: **Liburu Baby Kluba**, **Zeuren irakurle gu kontalari/LiburuLab**, **Ipuinaren Ordua**, **Literatur Solasaldiak**, **Zifiegia**, **liburutegiko bisita gidatuak**... Baita, **Atzegi** elkartearekin lankidetzan, Irakurketa Erraza taldea ere, eta **Plus 55 Irakurketa Kluba**, harrera oso ona izan zuena, 70 eta 90 urte bitarteko 25 lagunenek parte-hartzearekin. Zeinuen hizkuntzan hilero egiten den ipuin-kontaketa saioekin ere jarraitu zuen liburutegiak. 2024an ere arrakasta handiz ospatu zen **Frikiegia**, **Harrotasun Frikia**ren hilabetea; auzoko gazteek zein ez hain gazteek rol-jokoekin, komikiekin, mahai-jokoekin, japoniar mangarekin lotutako trivialekin, komikiarekin eta, oro har, zinemarekin zerikusia duten jokoez gozatu ahal izan zuten, baita Munduko casetteen birbobinaketa Txapelketaren II. edizioarekin ere, hori guztia zozketa, sari eta guzti.

Jarduera bereziak ere antolatu ziren, hala nola **Giza Liburutegia**, **Plus 55** eta **Berrizturekin** lankidetzan, hainbat gairen inguruko aurreiritziak desagiteko espazioa (suizidioa, buruko gaixotasunak, bakardadea, droga-mendekotasuna, pobrezia, immigrazioa, etab.). Giza Liburutegiak proiektuaren baitan, pertsonak ezagutzak eta bizipenak trukatzeko dituzte, elkarriketaren bitartez. Hirugarren aldiz egin zen ikasturte amaierako **errezitaldia** Plus 55 Irakurketa

Klubeko parte-hartzaileen eskutik, **Puy Barralen** gidaritzapean; partaideek eurek sortutako testuak irakurri zituzten, entzule talde handi baten aurrean.

Egiako Gaztelekuarekin eta Plus 55

zerbitzuarekin lankidetzan, belaunaldi arteko tailerrak egin ziren. **Gau Beltza** ospatu zen, esaterako, eta gazteek elementu beldurgarriekin apaindu zuten liburutegia, ipuin beldurgarrien kontaketa gozatu zuten (kontalari beterranoenen ahotik: **Teo Santamaría**, **Virginia Vera**, **Alicia Ardanaz** eta **Conchi Barredo**), eta ospakizunerako proposa zen askaria prestatu eta jan zuten. Halaber, Egia auzoko **Ebla** liburu-dendarekin lankidetzan, eta rol-saioa egin zen, parte-hartze handiarekin.

Gure ingurune hurbileko idazleek ere izan zuten lekua liburutegian, eta tonu eta gai askotako liburuen aurkezpenak egin zituzten. Horrela, **Iñaki Alegria**, **Leire Ibarguren**, **Kike Otaegi** eta **Xabier Mendiguren** izan genituen gure artean, berriki argitaratu dituzten lanez hitz egiten.

Plus 55

Beste urte batez, Plus 55 zerbitzuaren **Irakurketa Klubaren** ikasturte amaiera ospatzeko, Egiako Liburutegia, Musikagela eta Plus 55 zerbitzua elkartu, eta **Puy Barral** poetak zuzendutako irakurketa antzeztua eskaini zuten, **Manu Gaignek** gitarraz lagunduta, irakurketa-tailerrean parte hartu zutenek idatzitako testuekin. Muntaia hunkigarria izan zen, eta taldea literaturaren inguruko esperientzia berriak bizi izatera animatu zuena, beste arte batzuk txertatuta, kantua eta musika, esaterako.

Plus 55 funtsezko zerbitzua bihurtu da urte hauetan, eskari handia duena. Nabarmenezkoa da 2024an belaunaldi arteko jarduera gehiago antolatu dutela auzoko hainbat zerbitzuek eta baliabideak. **Maria Reina ikastetxearekin**, digitalizazio-tailerra egin zen, aurreko ikasturtean antolatutakoaren jarraipen modura; **Berriztu** elkartearekin, hainbat gairi buruzko zazpi saio, tartean San Telmo Museora bisita gidatua eta Irakurketa errezitaldia Aldakonea egoitzan; eta **Gaztelekuarekin** eta **liburutegiarekin**, **Harrotasun Frikia**ren hilabetea eta **Gau Beltza**.

Egia Kultur Etxearen beste zerbitzu batzuekin ere hainbat jarduera antolatu zen, hala nola irakurketa-tailerra Liburutegiarekin; eskari handia izan zuen jarduera horrek, eta balorazio oso positiboa egin zuten parte-hartzaileek. Aipatzekoa da, 2024an, Plus 55 zerbitzuak antolatzen duen ipuin laburren **Aztarnak** lehiaketaren sari-banaketan parte hartu zuela taldeak. Baita auzoko gerontologia-zentroetako hainbat errezitalditan ere.

Aurreko urtean gertatu zen bezala, **Mafalda Saloiok** ematen duen **Ondoko** antzerki- eta dantza-tailerrak **eta Igor Calonge** koreografoak ematen duen dantza garaikideko ikastaroak plaza gehiago eskaini behar izan zituzten eskari guztiei erantzuteko. Horregatik, bi ikastaro eskaini dira aurten.

Ondoko taldeak **On do ko** performancean parte hartu zuen Gazteszenaren ekainaren 27an, eta oso harrera ona izan zuen publikoaren aldetik. Ikasturtean zehar egindako lanaren erakustaldi bat izanik, ez-ohiko ikuskizuna da **On do ko**, 72 eta 96 urte bitarteko protagonistekin, eta espektakuluaren bitartez, tailer honetan egunero egiten duten lan komunitarioa erakusten duena. Zahartzaroa, hauskortasuna eta indarra goretsi nahi ditu. Bidaia sentzoriala eta emozionala proposatzen du, geure buruari arteak gaur egun zahartzeak esan nahi duenaren inguruan dauden ikuspegi estereotipatuak eta ereduak nola eraiki, betikotu eta desafiatu ditzakeen planteatzera eramango gaituena.



On do ko, Ondoko

Dantza

2024an ere, konpainiei laguntzeko egindako lana nabarmendu behar da. **Gasteszena** ez da bere proposamenak aurkezteko espazio bat soilik, baizik eta baita sorkuntzarako, topaketarako eta proiektuak baldintza tekniko onenetan garatzeko espazio bat ere. Dantza bultzatzeko proiektuan, erakustaldiak, sorkuntza eta sentsibilizazioa funtsezko helburuak dira.

Irrotasunez jarraitu zuen egonaldien proiektuak, eta erreferente bihurtu da dantzaren munduan. Hainbat euskal konpainiak egin zituzten egonaldi teknikoak, eta haien estreinaldiak eskaini. Bi konpainia hasiberrik aurkeztu zituzten haien lehendabiziko lanak: **Mari Zaunka** eta **La Analógica** konpainiek, hain zuzen ere. **La Intrusa** konpainiak **Moon Shot** bere azkeneko ikuskizuna estreinatu zuen. **Node** konpainia donostiarrak **Me arrepiento** estreinatu zuen, egonaldi tekniko bat egin ondoren. Programazioa osatzeko **Led Silhouette** izan genuen **Halley** lanarekin, **Akira Yoshida & Lali Ayguadé** dantzariak **Together to go there** eskaini zuten, **Sharon Fridman** zuzendariak **Go Figure**, eta **Adriana Bilbaok** **Maitasuna** proposamen flamenkoa, **Beñat Achiary** eta **Raúl Corredor** musikariek batera.

Dantze Gaua antolatu zen lehen aldiz, **Dantzaz konpainiarekin**, **Ainhua Usandizagarekin** eta **Manu Gaine & Jone Amezagarekin** lankidetzan.

Lehen aldiz kolaboratu zen **ZINETIKA** jaialdiarekin ere; dantzaren, zinemaren eta teknologia berrien arteko erlazioak arakutzen dituen diziplina antzeko jaialdia da ZINETIKA, eta **Claire Bardainne & Adrien Mondot** frantziar konpainiare **Hakanaï** performancea aurkeztu zuen.

Dantza garaikideko ikuskizunen eskaintza interesgarria izan genuen; nabarmentzekoak dira proposamen guztien kalitate bikaina eta sortzaileen eta antzezlarien maila artistiko handia.



Maitasunak, Adriana Bilbao



Go Figure, Sharon Fridman © Nimrod Peled



Miñan, Artedrama

Antzerkia

Euskal konpainien programazioak, eta batez ere haien proposamenak euskaraz egiten dutenenak du lehentasuna antzerki-eskaintza diseinatzerakoan, eta erreferentea da Gazteszena Donostia eta Gipuzkoako publikoarentzat. Hiru proiektu nabarmendu ziren eta, gainera, antzokia emankizun guztietan betetzea lortu zuten: **Barrexerkak Nahastumbury** estreinatu zuen; **HikaTeatro** konpainiak **Zorretan** bere azken produkzioa estreinatu zuen; **Artedramak**, berriz, **Amets Arzallusen** liburuan oinarritutako **Miñan** lana taularatu zuen.

Programazio interesgarri hau osatzeko, **Pez Limbo** konpainiak, **Mierda de ciudad** antzezlanarekin, euskal rock erradikalaren historia ekarri zigon, eta **Leandre** konpainiak hitzik, mugarik eta ordenarik gabeko **N'importe quoi** zirko ikuskizuna.

Haur- eta familia-antzerkia ere izan genuen, antzerki- eta zirko-konpainia garrantzitsuen eskutik: **La Baldufa**, **Teatro Paraiso**, **Txirri**, **Mirri eta Txiribiton**, **Tomaxen abenturak**, **Rauxa**, **Vaiven Circo**, **Roi Borrallas** eta **Carpe diem**.

Beste urte batez, eta Donostia Kulturak Redescenarekin eta sare horren “Circo a escena” eta “Danza a escena” programekin eta Dantzaren Euskal Zirkuituarekin duen kolaborazioari esker, kalitate handiko egitaraua osatu zen.

Eskolatik Antzokira programak 17 emankizun eskaini zituen: **La Baldufa** konpainiaren **La fábula de la ardilla**, **Leandre** konpainiaren **N'importe quoi** eta **Logela multimedia & Circle of trust** taldearen **Surrealismo** hip hop dantza ikuskizuna. Guztira, Donostiako ikastetxeetako 2.706 haur igaro zen Gazteszenatik.

Aitor Ikastolak bere **Antzerki Astea** aurkeztu zuen; horrela, ikastetxe horretako ikasleen lan artistikoa ikusteko aukera izan genuen Gazteszenan, eta publikoaren babesa eta txaloak jaso zituzten.

Gazte Antzerki Topaketetan Santo Tomas Lizeoak hartu zuen parte **Mamuak** antzezlanarekin, **Binahi taldeak Komendu desberdin bat** lanarekin eta **Zurriola Antzerki Eskolak Shakespeare** bere proposamenarekin.



So/lo, Roi Borrallas



Otempoiz, Ertza

TAE Arte Eszenikoen Eskolak ikasturte amaierako erakustaldiak egin zituen, antzerki-ikasleak protagonista zirela.

Gaztekuak jarduera, tailer, hitzaldi eta jaiz osatutako egitarau zabala eskaini zuen; nabarmentzekoa da Plus 55 zerbitzuarekin lankidetzan eskaini zuen belaunaldi arteko egitaraua, betiere zerbitzuaren dinamikan gazteen inplikazio aktiboa sustatuz.

Anitza izan zen kaleko programazioa ere; zirkoak eta dantzak girotu zuten Egia auzoa **Egia Dantzan** egitarauaren eskutik. **Lullaby** zirko konpainiak kontziliazioaren gaia jorratu zuen **Proyecto Kavauri** ikuskizunean; **Trocos Lucos Circo** konpainiak **Tartana** lana eskaini zuen, eta **Qabalum** nafar konpainia gazteak **La medida que nos ha de dividir**, etorkizuna eta izango dugun bizitza planteatzerakoan kezka, asaldura edo ilusioa, nahia, presa edo zalantza sortzen diguten gauzei buruzko hausnarketa. Azkenik, **Ertza** konpainia izan genuen **Otempoiz** bere proiektuarekin, Mozambike eta Euskadiren artean ardazten den bi norabideko truke eta sorkuntza artistikoko proiektu baten emaitza dena. **Proiektu horrek Maputoko bi dantzariri lan-aukera bat eta dantzaren nazioarteko zirkuituetan haien kabuz moldatu ahal izateko oinarritzko tresnak eskaini nahi die.**

Maiatzean, **Poltsiko Antzerkia** jaialdia egin zen, eta emanaldiak izan ziren auzoko hainbat lekutan, hala nola **Taban**, **La tabernan** eta **Egiatarra Erretiratu**en **elkartean**. Besteak beste **Poltsiko Antzerki Sorkuntza** lehiaketaren 2024ko edizioa irabazi zuen lana ikusi ahal izan genuen, **F taldea** konpainiaren **Promesa berdina egin diegu lagun guztiei** izenekoa, eta **Famiglia** antzezlan finalista, **Maidier Diaz** eta **Xabin Fernández** aktoreek antzeztua.

Musikagela

20 urteko ibilbidearekin, hasierako izpirituari eusten dio **Musikagelak**, eskaintzen dituen zerbitzu guztietan komunitatea sortuz, dinamika aktibo eta parte-hartzaileekin (entsegu-aretoak, ikastaroak, masterclassak, aholkularitza eta zuzeneko kontzertuak).

Entsegutarako zortzi aretoek (horietako bost erabat ekipatuta daude) errotazio-modalitatea dute, astean zehar jarduera handiarekin, batez ere, arratsaldeko txandan (19:00-21:30). Urte-sasoia araberak, entsegu gehiago egiten dira goizetan ere, opor-aldietan batez ere.

Zerbitzu hau erabiltzen dutenen profila oso anitza da, bai adinari, bai estiloei dagokienez. 85 musika-proiektu jaso zituzten areto hauek, hileko 44 taldeko eta 164 erabiltzaileko batez bestekoarekin.

Zuzeneko kontzertuak edo grabaketak egiteko materiala laga zitzaien Musikagelan entseatzeko duten hainbat proiekturi (**KKG**, **Los Premodernos**, **H. LETE**, **Latitud 43**, **Los veletas**, **Invert**, **The Sally Doss**), eta zentroaren barruan maketak grabatzeko espazioen lagapena sustatzen jarraitu zuen zerbitzuak. Horixe da **Cosmicar** taldearen kasua.

2024. urtean, bederatzi ikastaro eman dira **Musikagela Lab** aretoan, Egia Kultur Etxean zerbitzuari independentzia emateko eta, batez ere, astegunetan, ikastaro luzeagoak eman ahal izateko sortutako aretoan.

Ines Azpiatzuk DJ izateko hastapen-ikastaroak eman zituen. **Haizea Huegunek** emakumearen paperari buruzko dibulgazioa egin zuen *Grandes compositoras de la música clásica* ikastaroarekin, eta musika-konposiziorako oinarritzko teknikak irakatsi zituen. **Telmo Trenorrek** *Principios de la música electrónica: samplers, sintetizadores y cajas de ritmo* ikastaroa eman zuen, eta **Gorka Urrak**, berriz, *Cómo grabar guitarras acústicas y eléctricas* eta *Ajustes de bajo y guitarra eléctrica (puente fijo y flotante)*.

Datu bikainak lortzen jarraitu zuen zerbitzuak 2024an ere eta, horrela, bete egin ziren tokiko eszenan musika-jarduera bultzatzeko eta dinamizatzeko markatutako helburuak.

Glad is the Day

Abuztuaren 4an izan zen 2024ko Glad is the Day jaialdia, musika-proposamen aniztasun handiarekin. 15.000 lagun inguru erakarri zituen parkera.

Zazpi musika-talde aritu ziren agertoki nagusian. Musika-talde sorta koloretsu zein jostagarria: **La Ola Maldita** donostiarren surf rocka; **Erromintxelak** arrasatearren swinga; **Alcalá Norte** taldearen postpunka; **La Txama** taldearen doinu eklektikoak; **Magia Brutaren** ereserki mukuruak; **Ibil Bediren** hitz intimoak, eta **Silverio** mexikarraren ikuskizun polemikoa.

Gainera, musika elektronikoak, hip-hopak eta hiri-doinuek dantzan jarri zuten Ruina Sónica eszenatokia: hantxe aritu ziren **Makeda** (DJ), **1111** (Live), **Alai** (Live), **Sara Goxua** (DJ), **Kalipotxo** (Live), **Six** (Live), **Alta** (DJ) eta **Sofy Suars** (DJ) musikariek gazteak liluratu zituzten beraien doinuekin.

Egia Bizirik, Aitor Ikastola, Atzegi, Berriztu...

hainbat elkartek hartu zuen parte Egia auzoko dinamikan eta jardueren antolakuntzan. Batzarrak, hitzaldiak, etab., bizilagun ugari elkartzen dituen hileroko zineforum saioa nabarmendu zelarik.

Kultura Etxeak Egian antolatu ziren hainbat ekitalditan hartu zuen parte: **Porrontxo Jaietan** -hurrei zuzendutako animazio eskaintza anitzarekin- eta **San Joan bezperan**, esaterako, azken hori auzoan erabat finkatuta dagoen ekintza. Egiako auzotar ugarik hartu zuen parte jai horietan.

2024an, eskaini ziren jarduera eta zerbitzuetara gerturatu zen jende kopuruaren igoera nabarmena azpimarratuko genuke, zalantzarik gabe, eta Egia auzoko bizilagunentzako erreferentziazko espazio bat izan zela.



Magia Bruta © Juan G. Andrés (@foteropanico)



Sara Goxua © Juan G. Andrés (@foteropanico)



Makeda © Juan G. Andrés (@foteropanico)



La Ola Maldita © Juan G. Andrés (@foteropanico)

JARDUERAK

65

Antzerkia (emanaldiak)

Erabiltzaileak: 11.684

31

Dantza (emanaldiak)

Erabiltzaileak: 5.849

6

Musika (kontzertuak)

Erabiltzaileak: 16.730

Guztira

948

jarduera

48.795

erabiltzaile

17

Zinema (emanaldiak)

Erabiltzaileak: 1.190

6

Hitzaldiak eta mahai-inguruak

Erabiltzaileak: 225

2

Erakusketak

Erabiltzaileak: 975

168

Bilerak eta elkarten ekitaldiak

Erabiltzaileak: 3.207

191

Liburutegiko jarduerak

Erabiltzaileak: 2.815

183

Plus 55

Erabiltzaileak: 2.973

93

Gaztelekua

Erabiltzaileak: 1.013

0

Haurtxokoa

Erabiltzaileak: 0

103

Bestelakoak

Erabiltzaileak: 1.852

83

Musikagela

Erabiltzaileak: 282

ZERBITZUAK

27.299

bisitaldi

Liburutegia

2.827

bisitaldi

Ikasgela

4.514

bisitaldi

Gaztelekua

Guztira

46.030

BISITALDI

0

bisitaldi

Haurtxokoa

5.849

bisitaldi

KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi

Altzako bilduma

0

bisitaldi

Altzako bilduma web

0

bisitaldi

DK Irratia web

0

bisitaldi

Ispilu beltza magazine-podcasta

0

bisitaldi

Bideo tailerra

5.091

bisitaldi

Musikagela

0

bisitaldi

Musika Eskola

450

bisitaldi

Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	271	229	2.151	1.596	555
2023-2024 IKASTAROAK	49	37	586	514	72
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	1	8	6	2
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	26	17	268	228	40
Gaztelaniaz	21	19	310	280	30
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2024-2025 IKASTAROAK	61	45	649	525	124
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	2	2	18	6	12
Gaztelaniaz	2	2	20	8	12
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	27	15	225	181	44
Gaztelaniaz	22	22	355	312	43
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	4	2	19	15	4
Gaztelaniaz	4	2	12	3	9
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	87	81	544	354	190
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	74	66	372	203	169

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 100.751

Ernest Lluch
Kultur Etxea

2024



ERNEST LLUCH

Kultur Etxea

Kultur etxeko programazioa oparoa izan zen 2024an eta, ohi bezala, bereziki aipagarria izan zen literaturari, pentsamenduari eta gaurkotasunari eskainitako tarteak. Kultur Etxearen inguruan egiten ari diren hirigintza-lanek ez zuten murriztu erabiltzaileen asistentzia nahiz eta, pasa den urtean, Realeko partiduak eta Anoetako kontzertu jendetsuak zirela-eta Kultur Etxeak behin baino gehiagotan ateak itxi behar izan zituen.



Ikastaroak

Ikastaroei dagokienez, 2024an ere erabiltzaileek gogoz ekin zioten literatura, poesia, ipuingintza, geopolitika, gaurkotasuna, ongizatea eta inguruneari buruzko hainbat tailerrei; **1.300 ikasle** baino gehiago matrikulatu ziren **2023-24** ikasturtearen hasieran. Aurten, **Iñigo Artamendiren** *Análisis de la actualidad internacional* ikastaroan hirugarren taldea sortu zen, eta **El Orden Mundial** kolektiboaren *Conflictos geopolíticos en una crisis global* saioak ere bikoiztu egin ziren; bi horiek izan ziren, hain zuzen ere, ikastarorik jendetsuenak. Horietaz gain, egile-ikastaroak dira Ernest Lluchen bereizgarrietako bat eta izen handiko tailerrak eskaini ziren, hala nola, **Karmelo C. Iribarren**, **Beñat Sarasola**, **Mafalda Saloio**, **Luisa Etxenike** edo **Iñigo Ansorena**, besteak beste.



Martín Caparrós, Literaktum © Iñaki Rubio

Literatura eta pentsamendu kritikoa

Hainbat liburu aurkezpen eta solasaldi egin ziren urtean zehar, literatura ardatz hartuta.

Udaberri partean, **Bilintxen menda** jaialdian, **Jon Sarasua** eta **Xabier Euskitze** bertsolaritzaren inguruko hausnarketa egin zuten eta txapelketako edukiei begiratu bat eman zioten. Ekainean, Donostia Kulturak Realarekin batera egiten duen Korner jaialdiaren baitan, **Juan Tallón** eta **Joxean Muñoz Mikel Chillidarekin** berbetan aritu ziren *El artista que fue portero* solasaldian.

Udazkenean, berriz, Literaktum jaialdiaren baitan hitzordu interesgarriak izan ziren areto nagusian. Aurten lehenengo aldiz, **Literaktum aperitifa** egin zen **Ander Izagirre** eta **Martín Caparrós**en eskutik, non azken honek bere memoriak aurkeztu zituen. Ondorengo saioetan, **Fatma Aydemir** idazle turkiar-alemaniarra *Demonios* bere lehenengo eleberriari buruz aritu zen **Luisa Etxenikerekin**, **Iñigo Aranbarrik** eta **Unai Elorriagak** azken honen *Francesco Pasqualeren bosgarren arima* liburuari buruz jardun zuten, **Joseba Sarrionandiak** *Karteletarak* erakusketaren bisita gidatu laburra egin zuen **Aritz Gorrotxategirekin** batera, eta Olga Grandek **Fermina Cañaveras** elkarrizketatu zuen, haren *El barracón de las mujeres* lehenengo liburuari buruz.

Abenduan, **Garazi Albizuak** *Termita* bere azken eleberria aurkeztu zuen kultur etxean.



Fatma Aydemir, Literaktum © Iñaki Rubio



Exposición 10 años en cartel

Zientzia

Ezin ahaztu azken urteetan garatutako zientziaren arloko bi zikloak. Bata, **Donostia International Physics Centerrekin** batera, **Zientziaren bide berriak** izenpean antolatutakoa eta punta-puntako gaiak jorratu zituen. Bi hitzaldi egin ziren udazkenean: lehenengoa, euskaraz, **Aran García Lekueren** eskutik, nanozientzia eta teoria kuantikoari buruz; bigarrenean, **Gustavo Schwartz**-ek *Mapeando la cultura* proiektua aurkeztu zuen.

Beste zikloa, **Elhuyarren** eskutik eta **Ana Galagarrak** aurkeztuta, **Emakume zientzialarien argitan** euskarazko zikloa. Urtean zehar sei ekimen gauzatu ziren eta jorratutako gaiak, askotarikoak. Udaberrian protagonistak izan ziren **Miren Altuna**, zeinak Alzheimerraren diagnostikoan eta tratamenduan egindako aurrerapenak jorratu zituen; **Arantxa Etxeberria** eta *Filosofia, zientzia eta bizidunak* elkarriketa, eta **Aitziber Sarobe**, jasangarritasuna eta trantsizio ekologikoari buruz aritu zena. Udazkenean, aldiz, **Laida Arbizu** filosofoa negazionismoari buruz aritu zen, **Olatz Ortega Vidalesek** *Herritarren zientziako proiektua, nola egin?* saioa aurkeztu zuen eta **Alaitz Etxabide Etxeberria** material berriztagarriei buruz aritu zen.

Erakusketak

Kultur etxeak zazpi erakusketa hartu zituen. Otsailean, **Space girls, space women** bilduman, espazioari begiratzen dioten neskatila eta emakumeen argazkiak aurkeztu ziren, **Parisko Sipa Press** fotokazetaritza agentziak eta Europako Espazio Agentziaren eskutik. Martxoan, **Poesialdiaren** barruan, **Juan Manuel Uriak** eta **Ángel Unzu** *Improptu* erakusketa aurkeztu zuten, tintarekin egindako marrazkiez osatua. Ondoren, **Korner** jaialdian, **Eduardo Chillida, denbora eta espazioa gelditu zituen atezaina** erakusketa egon zen ikusgai, futbolaren eta artearen arteko lotura iraunkorrak agerian uzten dituen. Abuztuan, paralinpiar jokoen harira, **Tokyo, asfaltoa eta podiuma** erakusketa ekarri zuen **Juan Armentia** argazkilariak, eta irailean, **Bang! Bang! Zinemaren** hamargarren urteurrena ospatzeko, **10 años en cartel** erakusketa zabaldu zen. **Literaktum** jaialdiaren barruan, **Markos Gimenoren Karteletarak** izan zen kultur etxean, euskarazko palindromoz eta hitz-jokoez osatua, eta urtea **Gipuzkoako Artisten Elkartearen** Pintura eta Eskultura Sarietaren irabazleen obraren erakusketarekin bukatu zen.

Arte eszenikoak eta musika

Maiatzean, **Poltsiko Antzerkia** jaialdiaren baitan, auzoko tabernetan hiru emanaldi egin ziren:

Andoni Mutiloaren *Gora poltsiko antzerkia* Via Fora tabernan, **Material konpainiaren** *Teatro de los chinos* Aveniu tabernan, eta **Amahiru** antzerki taldearen *Duzhe Gaizki* Via Fora tabernan, berriz ere. Arte eszenikoen inguruan, haur antzerkiak leku garrantzitsua izan zuen kultur etxearen programazioan.

Urte hasieran, *Tomaxen abenturak*, *Atxis!* **Txintxeta**, **Klipa eta Txorroskilo** pailazoaren abenturak eta **Kidam magoa**, *Smile* emanaldiarekin, izan ziren Ernest Lluchen.



Duzhe Gaizki, Amahiru



Osaba untxia eta koiotearen abenturak, Ostomila Txontxongiloak

Udaberri eta uda partean, berriz, ikuskizunak auzoetako jaietara zabaldu ziren: maiatzean, Morlansen, *Magiklown* antzerkia izan zen; ekainean, Ikasbideren jaietan, **Ostomila Txontxongiloak** taldearen *Osaba untxia eta koiotearen abenturak* eta, uztaillean, **Bella vita** antzerki taldearen *Menù del giorno* eta Zirika Zirkusen *Aurkitu gabeko altxorra*, biak Easo plazan, eta *Ttiki ttaka irratia* emanaldia **Erre produkzioak** eskutik, Gregorio Ordóñez plazan. Iraileko bueltan, berriz ere **Erre produkzioak** konpainiak *Txikiringito* emanaldia egin zuen, Gabriel M. Laffite plazan.

Literaktum jaialdian, haurrek beraien espazioa izan zuten, eta **Behibi's** antzerki taldeak *Egunen batean* antzezlan eskaini zuen, Isabelle Carrieren *Lontxoren lapikoa* ipuinean oinarrituta.

Euskararen eguna ospatzeko, **Behibi's taldeak** *Ezer ez* antzeztu zuen Larrun eskolan eta, urtea amaitzeko, Eguberrietan, *Traka Matraka* saioa izan zen Amara Zaharreko frontoi estalian eta **Lanku** antzerki taldearen *Teilatupean* lana kultur etxean bertan.

Udazkenarekin batera, berriro ekin zitzaion **Erakuslehioa** zikloari eta, horren barruan, askotariko ekitaldiak egin ziren: urrian, **Mugaldekoak** taldeak *Presbiziak lagundu omen du* saioa eskaini zuen, literatura eta musika uztartuz; **Impro Impar Show** inprobisazio-saio dibertigarria osatu zuen eta **Mejillón Tigre kolektiboak** *Hitz esana* saioa eszenaratu zuen, *spoken word* formatuan. Azaroan, berriz, **Aritz Gorrotxategik** eta **Nerea Azkonak** *Señuelo* errezitala eskaini zuten, non poesia harparen soinuarekin batera esaten zen; Literaktumen barruan, **Mursegok**, *Karteletarak* erakusketaren harira berariaz sortutako kontzertua eman zuen, palindromo eta hitz-jokoz betea. Abenduan, azkenik, **Sokaire** izan zen kultur etxean, eta musika klasikoaren historiaren ibilbideari buruzko saioa egin zuen, ikuspuntu umoretsutik aztertuta.

Abesbatzen Astearen barruan, azaroan, Karmeldarren elizan, Letoniako **Lielvarde** haur abesbatzak saio oso arrakastatsua eskaini zuen.



Ezer ez, Behibi's



Mursego, Literaktum

Urrian, kultur etxeak **IV. Amara Berri egunean** parte hartu zuen, auzoko beste hainbat eragilarekin batera; besteak beste, +55, Haurtxokoa eta Gaztelekua egon ziren Olaeta plazan eta, eguraldia lagun, oso goiz jendetsua izan zen.

Kultur etxeko **liburutegiak** bere egitarau sendoarekin jarraitu zuen urtean zehar; maileguak areagotu eta ikastetxeentzako bisita gidatuak maiz egin ziren. **Javier Minak** gidatutako solasaldi literarioek arrakasta berezia izan zuten, eta ezin ahaztu erabiltzaile ugari biltzen dituzten ohiko bestelako programak ere: *Zeu irakurle geu kontalari*, *Ipuinaren ordua* eta *Liburu Baby Kluba*.

Azkenik, **Gaztelekuak** eta **Haurtxokoak** sendo jarraitzen dute euren zerbitzuak ematen, eta horrela adierazten du izan zuten parte-hartze handiak. Gainera, auzoko jaietan ere oso harrera ona izan zuten: Morlansen, Super Xagu Jaietan, Amara Berri egunean edo Euskararen egunaren inguruko ekitaldietan hartu zuten parte.

JARDUERAK

22

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 2.184

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

4

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 361

0

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

24

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 972

8

Erakusketak
Erabiltzaileak: 3.275

153

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 3.527

250

Liburutegiko
jarduerak
Erabiltzaileak: 3.718

84

Plus 55
Erabiltzaileak: 2.776

90

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 1.042

91

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 2.894

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
726
jarduera

20.749
erabiltzaile

ZERBITZUAK

130.342

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

3.754

bisitaldi
Gaztelekua

4.953

bisitaldi
Haurtxokoa

9.449

bisitaldi
KZgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza
magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

550

bisitaldi
Plus 55

Guztira
149.048
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	348	296	3.437	2.617	820
2023-2024 IKASTAROAK	62	50	1.262	922	340
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	19	10	131	117	14
Gaztelaniaz	30	28	920	682	238
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	1	19	11	8
Gaztelaniaz	12	11	192	112	80
2024-2025 IKASTAROAK	79	54	1.369	1.008	361
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	23	12	154	133	21
Gaztelaniaz	33	32	1.046	767	279
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	16	5	78	47	31
Gaztelaniaz	7	5	91	61	30
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	159	149	542	501	41
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	48	43	264	186	78

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 144.049

Intxaurrondo
Kultur Etxea

2024



INTXAURRONDO

Kultur Etxea

Urte oparoa izan da 2024a, ohiko musika programazio, jaialdi, jarduera eta zerbitzuez gain, auzotar eta herritarrekin lotutako proiektu berriez beteta etorri baitzen. Epe luzera egonkortu asmo dituzten egitasmoak jaio ziren iaz, komunitatearekin loturak sendotzeko asmoz irudikatutakoak.

Musika programazioari dagokionez, Donostiako zutikako kontzertu areto nagusia den neurrian, urte emankorra izan da, zalantzarik gabe. Ohi duen programazio zabalari helduz, bai ikusle zein sortzaileentzat erreferente izaten jarraitu zuen, kontzertu eskaintzaz harago, sektoreko katea osatzen duten atal guztietan egiten duen lanari esker.

Urteari indartsu ekin zion **Willis Drummond** eta **Ariel Rot** talde eta artisten kontzertu gogoangarriei esker. **Gorka Urbizuk** bere lehen bakarkako lana aurkeztu zuen, eta hiru egunez bete zuen aretoa. Udaberrian zehar, oholtza nagusitik pasa ziren **El Kanka** eta **Liher**, baita **Kulto Kultibo** eta **Triángulo de Amor Bizarro** galiziarrek ere. Kantautore doinuak, rock gogorra, raggamuffina edota noise rocka bezalako estilo anitz hauek guztiak, programazioaren eklektizismoaren erakusle.



Willis Drummond



Gorka Urbizu



El Kanka



Albert Pla

Dr. Deseo, Albert Pla, El Twanguero edota **Belako** eta **Anarik** eskainitako kontzertuetan, maiz eskegi behar izan zen *sarrerak agortuta* kartela, aretoak dituen jarraitzaile leialen erakusle.

Txanponaren beste aldean, zoritarrez DOKA aretoa ezustean itxi behar izanaren ondorioz, han programatutako hainbat kontzerturi bide emateko plaza izan zen Intxaurrondoko aretoa. Modu honetan, **Anestesia** eta **Goma 2; Herenegun** eta **Mugan**, edota **Kerobia** eta **Bi Zaldi** taldeek euren kontzertuak eskaini ahal izan zituzten azkenean.

Bestalde, jaialdi gune oparoa izan zen **Intxaurrondo Kultur Etxea** 2024an ere. **Musikagela Fest, Donostikluba, Jamrock** edota **Kutixik** jaialdiek giro eta programazio paregabeak izan zituzten.

Musikagela programak, bere egoitzetako bat Intxaurrondo duenak, hiriko musika taldeei entsegu-gelak eta egonaldiak eskaintzeaz

gain, musika programazioko kartelak osatzeko aukera eman zien. Programa honi esker, **Anari, Ariel Rot, Triangulo de Amor Bizarro** edota **Twanguero** bezalako lehen mailako musikarien kontzertuak baliatu ziren, gertuagokoak diren **Muare, Hooper, Tritones, Los Veletas**, edota **Ander Zubiaga** musika ezagutzeko eta euren ibilbideak akuilatzeke.



Anari

Intxaurrondo K.E.an ematen den egoiliar programako taldeei dagokienez, bederatziz talde aritu ziren 2024an, zerbitzuak dituen bost gelatan. Horietako hiruk aurten amaitu dute egonaldia (**Pelax**, **Muare** eta **Los Premodernos**). Horiek utzitako lekuak **LUP**, **Haziak** eta **OEP** taldeek bete dituzte. Honek esan nahi du orotara 30 lagunek entseatu zutela modu egonkorrean Musikagela programako geletan. Ohiko lan honez gain, **Suit Seda** taldeak bere bideoklipa grabatu zuen areto nagusian, lan ildo interesgarri bati bidea zabalduz.

2024. urtea zerbaitegatik emankorra izan bazen, auzoari eta komunitateari begira martxan jarri ziren programa berriengatik izan zen. Hiru izan ziren, hain zuzen, iaz abiatu ziren proiektuak:

Larrotxene Bideok, **Politki** eta **IZBE** elkarteekin elkarlanean, **Intxaurdok** ekimena abiatu zuen. Lehen ekitaldi pilotu horretan, **Lauaizeta** ikastetxeko DBH3ko ikasleekin aritu ziren, ikus-entzunezko alfabetatzearen bidez, auzoaren memoria eta garapenean sakontzen, modu sortzailean.

Beste alde batetik, eta oraingoan **Artaziak Koopekin** eta **Musikagelarekin** elkarlanean, gazteei zuzendutako **Bada** izeneko proiektu berria jarri zen martxan. Izan ere, gazteak, nahiz eta kultur kontsumitzaile eta ekoizle aktiboak izan, ez dute ahots propiorik inguruko kultura-programazioetan. Egoera honetan eragiteko asmoz, **Bada** ekimena kultur ekipamenduaren eta Donostialdeko musikari eta gazteen arteko triangulazioa osatu nahi duen proiektua da.

Lehenik eta behin, musika programazioaren gakoak ezagutzea eta honen gaineko ikuspegi kritikoa garatzea bilatu zen; ondoren, **Musikagela** programako lau talderekin topaketak eta entsegu irekiak antolatu ziren, elkar ezagutza laguntzeko; eta azkenik, gazteek euren gain hartu zuten ezagututako taldeetako baten kontzertua programatzeko ardura. Etorkizun oparoa izango duen programa honen lehen ekitaldia izan zen, beraz, iazkoa.

Eta, amaitzeko, nahi gabeko bakardade egoeran dauden pertsonen zuzendutako **Kantu Artean** programa ere abiatu zen iaz, **Intxaurrondo**



Musikagela Weekend

Berri Emakume Elkartearen eskari batetik abiatuta. Egitasmo horren helburua da, taldean kantatzearen bidez, isolamenduarekin haustea.

Intxaurren Kultura Etxean dagoen **Musika Eskolako** lantaldearekin eta **+55**eko arduradunekin eskuz-esku landutako elkarlan egitasmoa urteko azken asteetan abiatu zen, gero eta ageriagoa eta larriagoa den gaitz honen aurrean konponbideak proposatu nahian.

Emakumearen Asteak aldarrikapen eta hausnarketarako programa oparoa ekarri zuen, Intxaurren Kultura Etxearekin elkarlanean landuta. Euskal Zinemagintzaren munduan emakumeek egindako ibilbide eta erronkak izan ziren hizpide iazko edizioan.

Ibiltarien Asteak munduan zehar bidaiatutako lagunak ekarri zituen, azken hogeita hamar urteetako udaberriko hitzordu honi leial. Iazko gonbidatu-zerrenda, punta-puntakoa: **Roge Blasco**, bidaien munduan erreferentea; **Ander Izagirre** kazetari eta idazlea, **Irantzu Iribar** eta **Tino Soriano**.

Urrian, **Centro Extremeño**ko bizilagunen **Extremadurako Astearen** txanda izan zen. Urtero errepikatzen den beste hitzordu honetan, Extremadurako jatorria duten bizilagunen hainbat belaunaldik egin zuen bat.

Eta auzoko eragileren bat aipatzekotan, zalantzarik gabe iazkoa, **Plazara Goaz** elkartearen urtea izan zen. Izan ere, euskararen erabilera sustatzeko asmoz sortutako elkarte honek 25. urteurrena ospatu zuen eta, erakusketaren bitartez, urte horietan guztietan bultzatutako ekimenak gogoratu zituzten. Elkarte horrek ekarri zituen **Porrotx**, **Marimototx**, **Pupu** eta **Loreren** bi saio ere, urtearen azken txanpan.

Auzoko jaietan ere hartu zuen parte Kultur Etxeak. Gazteleku eta Haurtxokoak antolatzen dituzten jardueraz gain, Intxaurren Kultura Etxearen Zaharreko festetan **Zirika Zirkusen** antzerki-emanaldia eta **Nikotine** musika taldearen kontzertua izan ziren, San Juan Jaietan **Tomaxen abenturak** konpainiaren ibilbideko azken emanaldia aurkeztu zen, eta Intxaurren Kultura Etxean, berriz, **Eraitsi S.L** kale-antzerkiak girotu zuen Sagastieder plaza. Bidebietan ere, auzoko jaiak zirela eta, **NiMu zirko konpainiak** bere lana eskaini zuen.



Semana del Viajero



Emakumeak zientzian



Irantzu Iribar

Donostiako Kultur Etxe Sarearekin batera antolatzen diren programei dagokionez, berriz, Intxaurren Kultur Etxeak **DFERIA**ko hiru antzezlan hartu zituen bere areto nagusian: **Khea Ziater** taldearen **La Sed del Minotauro**; **El Mono Habitado** konpainiaren **Guapa**; eta, azkenik, **Erre Pordukzioak**-en **Bihar Arte Soilik** lana.

Eta **Poltsiko Antzerki Jaialdiari** dagokionez Intxaurren hiru lan izan ziren programa osatu zutenak: **Promesa berdina egin diegu lagun guztiei** eta **Famiglia**, biak ala biak Poltsiko Antzerki Lehiaketako irabazleak, eta **Jon Zabala** mago mentalistaren saioa.

Ikastaro-eskaintzari dagokionez, Intxaurren Kultur Etxeko ikastaroetan igoera nabarmena eman zen, gaztelaniazko zein euskarazko eskaintzetan. Horien artean, berrikuntza aipagarrienak Adimen Artifiziala, Feldenkrais metodoa edota Baratza ekologikoa izan ziren.

Kultur Etxeko zerbitzu alorrari dagokionez, berriz, aipagarria da **Liburutegiaren** eskaintza.

Poesia Egunaren harira antolatutako irakurraldiaz gain, **Liburuaren Nazioarteko Egunean** ere parte hartu zuten literatur solasaldietako erabiltzaileek. Bestalde, komiki solasaldiek gero eta jarraitzaile gehiago biltzen dituzte bai euskarazko zein gaztelaniazko saioetan. Horren adierazle, adibidez, **Zaldierok** eskaintako solasaldia. Era berean, **Intxaurren Berri Emakume Elkartarekin** elkarlanean antolatzen den hilean behingo literatur tertulia egin zen. Liburutegiak irakurketak hautatu eta, liburutegi arteko mailegu zerbitzuaren bidez, behar adina ale izatea bermatzen du. Uda ere zabalik mantentzen den zerbitzu honetan, **Freskuda** programak oso harrera ona izan zuen, liburutegiko patio irekian jokoak, irakurketak eta lantegiak antolatuta. Eskaintza biribiltzeko, adin tarte bereziei zuzendutako **Liburu Baby Kluba** (0-3), **Liburulab** (+6 urte) eta **Ipuinaren orduak** (+3 urte) programek osatu zuten eskaintza.

Haurtxokoan eta **Gaztelekuan** jarduera ugari antolatu zen urtean zehar. Egin ziren ekintzen aniztasunak eta aberastasunak erakusten dute urte positiboa izan zela, komunitatearekiko

konpromisoa eta haurren eta gazteen ongizatea sustatzeko funtsezko zutabe izan zirela 2024an. Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuek, besteak beste, Haurren Nazioarteko Egunean eta azaroaren 25aren inguruko sentsibilizazioan hartu zuten parte. Epe laburrera eta luzera begirako ekimenek erakutsi zuten etengabe jarduten duela kultur etxeak gure komunitateko haur eta gazteentzako ingurune positibo bat sustatu eta gizarte-sarea indartuko duten esperientzia aberasgarriak eskaintzen.

Plus 55 zerbitzuak urtez-urte handitzen doan eskariari erantzuna ematen jarraitu zuen. Teknologia berrietan trebatzearekin lotutako jardueraz gain, **Ostiralak Dantzan** jardura arrakastatsuak dozenaka lagun erakarri zituen, eta **Olerkariaren Txokoan** genero honen maitaleek euren olerki kuttunak irakurri eta aztertzeke aukera izan zuten. Urteko programazioaren parte izan ziren hitzaldi, solasaldi, ibilaldi eta antzerki-jardueraz gain, programak aktiboki erantzun zien komunitatearen eskaera berriei, aurrez-aurreko aholkularitza zerbitzuarekin.



Eraitsi SL

JARDUERAK

16

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.997

1

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 200

28

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 8.793

9

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 461

6

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 364

138

Erakusketak
Erabiltzaileak: 3.148

242

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 7.381

132

Liburutegiko
jarduerak
Erabiltzaileak: 1.358

56

Plus 55
Erabiltzaileak: 1.339

178

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 2.587

236

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 2.981

18

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 360

Guztira
1.060
jarduera

30.970
erabiltzaile

ZERBITZUAK

53.831

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza
magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

2.352

bisitaldi
Musikagela

3.228

bisitaldi
Musika Eskola

0

bisitaldi
Plus 55

Guztira
59.411
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	46	38	593	446	147
2023-2024 IKASTAROAK	26	18	284	223	61
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	1	7	1	6
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	10	7	100	82	18
Gaztelaniaz	10	6	118	93	25
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	1	12	10	2
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	3	3	47	37	10
2024-2025 IKASTAROAK	19	19	287	220	67
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025eko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	6	6	94	71	23
Gaztelaniaz	7	7	138	113	25
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	2	2	12	4	8
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	3	3	30	23	7
Gaztelaniaz	1	1	13	9	4
IKASTARO PUNTUALAK	1	1	22	3	19
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	1	1	22	3	19
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 140.879

Larrotxene
Kultur Etxea

20DK
memoria
224



LARROTXENE

Kultur Etxea

Pasa den urtean kultur etxean egindako berrikuntza-lanekin lotuta azpiegitura zein ekipamenduetan egin ziren inbertsioek hobekuntza handiak ekarri zituzten.

Irisgarritasun-arazoak konpontzeaz gain,

Larrotxene Bideon egindako teknologia berrien aldeko apustuak zerbitzuan lan ildo berriak aktibatzea ekarri zuen.

Larrotxene Bideoren ezaugarri aipagarriei dagokienez, profesional onenen eskutik jasotzen den prestakuntzari, jatorri, adin eta ibilbide anitzetako parte-hartzaileen elkarlan-komunitatea gehitu zitzaion. Eta, ondorioz, ikastaroen testuinguruan garatu

ziren proiektuei, aholku eta bide-laguntza bila zetozenenak gehitzen zitzaizkien, ikus-entzunezko sorkuntza alor ezberdinak lantzen duen komunitate zabal eta aberatsa sortuz.

Azken berrikuntza hauen ondoren, ohiko ikus-entzunezko formatuei (dokumentalak, film laburrak, etab.), publiko gazteengandik gertuago dauden bestelako teknologia eta lengoaietara gerturatzeko eginahala izan zen 2024 urteko ezaugarrietako bat.


Narrazio Digitalen Laborategia egitasmoan sare sozialek, multimedia kontakizunek, ekitaldien antolaketak edota animazioen inguruko kolaborazioek aurrera egiteko



Pausa, Cía niMú



Boli, bili, boli, Pantzart



Taller de bideo

elkarlanerako gunea aurkitu zuten. Izan ere, lagun talde bat astero bildu zen, animazioaren bilakaera ezagutu eta teknika ezberdinekin esperimentatuz, animaziozko film labur bat egiteko asmoarekin.

Larrotxene Kultur Etxeaaren ezaugarrietako bat ikus-entzunezko alorrean eskaintzen duen material eta aholkularitza zerbitzua da. Proiektuek jasotzen duten babes horren beharra eta balorazio ezin-hobea urteko material lagapen eta aholkularitza eskaeren datu igoeran islatu zen. Izan ere, 2024an, Larrotxene Bideoko lantaldeak 300 bisitatik gora jaso zituen, eta proiektuak aurrera eramateko materialen zein espazioen lagapenerako eskaerak ia %20ko igoera izan zuen; 67 eskaera jaso ziren guztira.

Ikasketa-eskaintzari dagokionez, berriz, inoiz baino eskaintza zabalagoa egin zen iaz, eta ikasle kopuruak ere gora egin zuen. Aurreko urtean bost ikastaro atera baziren, iaz hamar izatera igaro ziren. **Larrotxene Bideoko** ikus-entzunezko ezagutzen alor tekniko edo tradizionalagoa osatzen duen ohiko eskaintza mantendu zen, batetik: **Oskar Tejedorren** *Realización de documentales*; **Pablo Maloren** *Dirección de cine*; **Michel Gaztambideren** *Guión avanzado*; **Ander Sagardoyren** *Zinema ekoizpena*; **Unai Rosenderen** *Color Grading* ikastaroa edota **Pello Gutierrezen** *Argazki zuzendaritza* tailerrak.

Eta eskaintza horrekin batera, izaera sortzaileagoa duten bestelako formazio berriak eskaini dira aurtan: **Edorta Subijanaren** *Video-Mapping experimental* ikastaroa; **Maria Elorzaren** *Cine-Collage*; **Ander Iriarteren** *Zinema-ekinatzaila*; edota **Maiden Oleagaren** *Hiria miatu, postalak filmatu* ikastaroa.

Ikastaro hauen guztien kasuan, ikasitakoa proiektu ezberdinetan garatu edota lantzeko aukera izatea baloratu zuten gehien ikasleek. Izan ere, **Larrotxene Bideok** ikasleen eta proiektu ezberdinen arteko kolaborazio eta elkarlan aukera ugari eskaini zituen.

Urtean zehar landu ziren hamaika proiektu horietako batzuk film labur forma hartu zuten, eta nabarmenenak ekainean antolatzen den **Bideoaldian** aurkeztu ziren jendaurrean. Antzoki Zaharrean antolatzen den jarduera horrek XVI. ekitaldia egin zuen 2024an, eta urteroko uztaren emaitzarekin gozatzeko parada eman zuen. Era berean, **Zinemaldiaren** programazioaren barruan ere film hautaketa horretan oinarritutako proiektzioa antolatu zen, irailean.

Larrotxene Bideo bestelako egitasmo eta eragileekin elkarlanean aritu zen 2024an ere. **Beldurrezko eta Fantasiatzko** zinemaldiarekin garatutako **Oihua!** ekimena izan zen horietako bat. Egitasmo horren bidez, euskaraz garatutako beldur edota fantasia generoko gidoi onena hautatu eta gauzatzen lagundu zen, **Donostiako Sustapen** Sailaren babesarekin. Era berean, azken urteetako ildoari eutsiz, Musikenerekin sinatzen den lankidetzaz-hitzarmenaren barruan, goi mailako ikasgune horretako ikasleek hainbat film laburren soinu banda konposatu zuten; eta **Larrotxene Bideoko** ikasle talde batek, Musikenen astebetez landu zuten **Ígor Stravinskiren Udaberriaren Sagaratzea** lan enblematikoaren *making offa* egin zuen.

Beste alde batetik, eta auzoarekin elkarlanerako ildo estuagoa eraikitze asmoz, **IZBE** eta **Politki** elkarrekin eta **Lauaizeta** ikastetxearekin elkarlanean, ikasturtean zehar garatuko zen **Intxaurdok** programa berriaren ekimen pilotua abiatu zen. DBH3 ikasturteko ikasleei zuzendutako ekimen honen bidez, ikasleak ikus-entzunezko tresnetan alfabetatzeaz gain, modu sortzailean auzoko memoria eta eragileekin harremanetan jartzeko dokumental pilulen sorkuntza-lanak bultzatu ziren. Adin honetako gazteentzat naturalak diren ikusizko kulturaren tresnetan oinarritutako egitasmo praktikoa hau, epe luzean egonkortzeko asmoz jarri zen martxan, eta **Ekialdeko Barrutiaren** laguntza jaso zuen.

Baina ikus-entzunezkoen arloaz harago, auzoko eragileekiko elkarlanak jarraitu zuen izaten Kultur Etxearen ardatzetako bat. Urtez urte, gero eta gehiago dira eragileek aretoak erabiltzeko egiten dizkiguten eskaerak.

Intxaurrondo Kantuz ekimenak astelehen arratsaldero 60 lagun inguru elkartu zituen, Kultur Etxea kantuz betez.

Eta kultur programazioa kalera ateratzeko eginahal horretan, hainbat emanaldi izan ziren auzoko plazan: **Zirika Zirkusen** antzerki emanaldia edota **Nikotine** taldearen kontzertua, auzoko festen egitarauarekin bat eginez. Eta, ikasturtean zehar, formatu txikiko eskaintza egonkor mantendu zen hilean behin, askotariko proposamenak ekarriz: **Eriz magoaren** edo **Xixka** elkarrekin magia ikuskizuna; **Teatro Firuleteren**, **Patata Tropikalaren** edo **Ostomila konpainiaren** txotxongilo proposamenak, edota **Eriz** eta **Ameztu** taldeen antzerki ikuskizunak gozatu ahal izan zen **Larrotxene Kultur Etxe**ko areto nagusian.

Azkenik, liburutegiak, ohiko mailegu-zerbitzua mantentzeaz gain, adin txikikoei zuzendutako eskaintza bermatu zuen, bi astean behin **Liburu Baby Kluba** saioak antolatuz. Gainera, auzoko ikastetxeetako ikasleen bisitak jasotzen jarraitu zuen. Horrela, **The English School**, **Zurriola Ikastola** eta **Salesianos** ikastetxeetako ikasleek astean behin joan ziren liburutegira, irakurketarekin lotutako ekintzak burutzera.



Nikotine



Zirika Zirkus

JARDUERAK

8

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 648

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

2

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 267

2

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 280

0

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 0

0

Erakusketak
Erabiltzaileak: 0

19

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 448

81

Liburutegiko
jarduerak
Erabiltzaileak: 1.883

0

Plus 55
Erabiltzaileak: 0

0

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 0

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
112
jarduera

3.526
erabiltzaile

ZERBITZUAK

6.001

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza
magazine-podcasts

2.628

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

0

bisitaldi
Plus 55

Guztira
8.629
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	31	30	446	299	147
2023-2024 IKASTAROAK	16	16	204	125	79
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	4	4	53	40	13
Gaztelaniaz	2	2	31	26	5
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	3	3	33	12	21
Gaztelaniaz	4	4	55	25	30
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	1	10	5	5
Gaztelaniaz	2	2	22	17	5
2024-2025 IKASTAROAK	13	12	130	93	37
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025eko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	3	3	39	29	10
Gaztelaniaz	2	2	31	28	3
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	3	3	20	11	9
Gaztelaniaz	1	1	8	2	6
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	3	3	32	23	9
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
IKASTARO PUNTUALAK	2	2	112	81	31
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	2	2	112	81	31
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 21.342

Loiola
Kultur Etxea



LOIOLA

Kultur Etxea

2024. urtean zehar auzoko eragileekin lankidetzaz esparru desberdinetan garatu eta finkatu zen: ingurumena, memoria historikoa, aisialdia eta liburutegiko bisitak.

Ingurumenaren esparruan, aipagarria da **Ur-Umeak** zeharkako proiektuari bultzada eta jarraipena eman zitzaiola, bai udaberrian bai udazkenean ekimen desberdinak burutu zirelarik Martutene auzoan **Arantzazuko Ama Ikastolako** LHko ikasleen partaidetza aktiboarekin.

Proiektu honen baitan, kronologikoki ekimen nabarmenenak izan ziren: udaberrian zehar, **Urumea Utopia Maushaus** arkitektura parte-hartzailea sustatzen duen kolektiboaren eskutik, **Ur-bila: lurraldearen esplorazioa maitekorra**, **Jone Taberna** artistaren gidaritzapean eta

ingurumenaren lanketa, hots, herbarioaren sorkuntza, Añarbera bisitak, ibaiko uraren kalitatearen azterketa, **Cristina Enea** fundazioaren lankidetzarekin.

Udazkenean, aldiz, **Haurrak kazetari** ekimenaren bitartez, **Itsas Museoaren** gidaritzapean, auzoko ondare eta memoria historikoaren ezagutzan murgildu ziren auzoko ikasleak, **Sarroeta auzo elkartearen** ezinbesteko ekarpenarekin. **Ur-Umeak** proiektuaren etorkizuneko funtsak finkatu zirela esan daiteke inolako zalantza izpirik gabe.

Memoria historikoaren eremuan, azpimarragarria da maiatzean eta ekainean zehar **Loiola K.E.**n ikusgai egon zen auzoko argazki zaharren erakusketa, **Urumea XIX-XX. mende artean**. **Jon Urbietaren** eskutik bisita gidatuak egin ziren



Ur-Umeak proiektua

auzoko ikastetxeekin, ikasleek auzoaren historia argazki zahar hauen azalpenen bidez ezagutu zezaten. **Altzako Historia Mintegiak** sustatutako erakusketa honen bitartez, Loiola auzoan prozesu parte-hartzaile bat ireki zen, gainera, argazki zahar hauek auzotarren artean banatu zirelarik. Horren ondorioz auzoko argazki zaharren inbentario bat sortu zen, eragile bakoitzari egindako lagapena zehaztu zelarik. Prozesua benetan aberasgarria izan zen eta argazki hauetako asko auzoko espazio publikoetan (ile-apaindegietan, tabernetan) kokatu ziren gerora auzotarren gozamenerako. **Loiolatarra K.E.**ren eta **Hontza elkartearen** lankidetzaz funtsezkoa izan zen prozesu parte-hartzailea aurrera eramateko.

Aisialdiari dagokionez, Gau Beltzaren testuinguruan, azaroaren 1ean **Sustrai Aisialdi Taldeak** bigarren urtez jarraian antolatu zuen **Nor da hiltzailea?** Kluedo jolasa **Loiola KEan**. Ekimenak sekulako arrakasta izan zuen, eta iazko partaidetza marka gainditu zen.



Ikasbide Ikastolaren bisita liburutegira



Nor da hiltzailea, Kluedo jolasa

Hezkuntza zentroekin liburutegira egin ziren bisitei dagokionez, urrats bat aurrera eman zen eta auzoko ikastetxe guztietako ikasleak izan ziren **Loiolako liburutegia** bisitatzen, hots, **Ikasbide Ikastola**, **La Salle Donostia**, **Arantzazuko Ama Ikastola**. Etorkizuneko elkarlana irudikatu nahi duen mugarria izan zen.

Dena dela, liburutegiko bisitak ez ziren izan ikastetxeekin egin ziren bisita gidatu bakarrik. Arestian aipaturiko Auzoko argazki zaharren erakusketaz gain, **Maria Teresa Martínez Imaz**

artistaren panpinen erakusketa, **Panpinen amets ezkutuak**, ezagutzeko parada izan zuten auzoko hainbat ikasleek, artista beraren azalpenak lehen eskutik entzunez eta erakusketan inspiratutako ipuinak idatziz. Ipuin hauekin bilduma gogoangarri bat sortu zen eta erakusketan bertan integratu ziren, erakusketari balio erantsia eskainiz.

Auzoko aliatu eta eragileen errepasoarekin jarraituz, ezin ahaztu 2024. urtean ospatu zela **Loiolatarra K.E.**ren 100. urteurrena. **Loiola K.E.**tik **Loiolatarrak 100 urte**, 100. urteurrenari eskainitako erakusketa antolatu zen ekainean. Bestalde, urtero legez, irailean eta urrian **25. Mikologia Astea** antolatu zen elkarlanean. Arrakasta handia izan zuen. Horren adibide, mikologia ikastaroan sortu zen itxaron zerrenda, inoizko handiena. Zentzu honetan, **Daniel Palacios** irakaslearen azken urtea izan zela aipatu beharra dago, eginkizun hauetan erretiroa hartuko baitu. **Gabriel Morenoren** katedradunaren hitzaldia perretxikozale aditu eta jantzienak erakarri zituen. Dena dela, urte osoan zehar 100. urteurrenarekin lotutako jarduerak ospatu ziren kultur etxean. Horien artean, benetan gogoangarria izan zen **Zikloturismoaren egoera** aztertu zuen mahai-ingurua, azaroaren 15ean, **Abraham Olano**, **Patxi Villa**, **Juanma Garate**, **Arantxa Orbegozo** eta **Ainhoa Artolazabal**en partaidetzarekin eta **Ander Izagirre** idazlearen gidaritzapean burutu zena. Zaletuek denbora luzez ezin ahaztuko duten juntadizoa izan zen.

Agifes elkarteko lagunekin ere harremana estutu egin zen. Urrian eta azaroan zehar Agifesen erabiltzaileen artelanekin sortutako **15 x 15** erakusketa kolektiboa ikusgai izan zen kultur etxean. Arte teknika desberdinak landu zituzten 15 x 15 zentimetrotako euskarrietan eta, hilabeteetan zehar hiriz hiri bidaiatu eta gero, artelan hauen azken geltokia **Loiolako K.E.** izan zen. Azaroan bertan Agifeseke erabiltzaileek landutako film laburra proiektatu zen areto nagusian, antzokia goraino bete zelarik. Gainera, udaberrian zehar **Baratzalanda edo Hiri baratza proiektua** proiektua abiatu zen **Agifes** eta **Plus 55**eko erabiltzaileekin elkarlanean. Urte osoan zehar kultur etxeko patioa baratza beraiek gestionatu zuten modu autonomoan. Proiektu honetan **Cristina Enea Fundazioaren** lankidetzaz azpimarratu beharra dago. Zeharkako proiektu berritzaile hau 2024. urtean zehar martxan jarri zen, etorkizunean finkatzeko asmoarekin. Uztarik onena etortzeaz dagoela esan daiteke, proiektua barruraino erroto baita.

Auzogintza mailan, kultur etxea **Udaberri-Fest 2024**ko antolaketa lanean murgildu zen, **Martutene** auzoko gainontzeko eragileekin batera eta ekainaren 7ko jai egunean, **Ines Azpiaz** DJaren erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zen **Martuteneko Arantzazuko Ama**



Panpinen amets ezkutuak erakusketa, María Teresa Martínez Imaz



Ines Azpiaz DJ, Udaberri-Fest



Eresmin Abesbatza

Ikastolaren patioan. Ez zen jarduera efimero bat izan, aurretik **Gaztelekuko** erabiltzaileek bi aste iraun zuen **DJ tailer** bat egiteko aukera izan baitzuten, **Ines DJ**aren gidaritzapean. Ikasitakoa festan bertan auzotarrei erakusteko aukera izan zuten **DJ-gaztetxo** hauek, hein batean protagonista bilakatu zirelarik. **Ur-Umeak** zeharkako proiektua ere jai honetan aurkeztu zen Martuteneko auzotarrei.

+55 zerbitzuari dagokionez, aurreko urtean martxan jarritako zerbitzuak garatu eta hobetu dira, hala nola **Mugikor tailerra**, **Bizi Proiektua**, **Konekta plus**, **Ostiralak Dantzan**. Aipagarria da otsailean kultur etxeko areto nagusian antolatu zen **Eresmin abesbatza**ren kontzertua.

Antzerki eskaintzari dagokionez, maiatzean, Donostiako gainerako auzoetan bezalaxe, **Poltsiko antzerkia** ospatu zen **Loiolan** eta **Martutene** auzoetan, **Gibelurdin tabernan** eta **Etxarrienen**, hurrenez hurren. Loiolan **Paco en La Luna** bakarriketa-lariak **Morirse de risa** ikuskizuna aurkeztu zuen. Txalo zaparrada jaso eta arrakasta itzela izan zuen bertaratuen aldetik. Martutenen, aldiz, bi obra antzeztu ziren: **Desorduetan**, **Tessa Andonegi** eta **Ainhoa Aierberen** eskutik eta **Material**, **Teatro de los chinos** antzerki-talde valentziarraren azken lana.

Ikuskizunekin jarraituz, 2024. urtea urte oparoa izan zen eta kultur etxeko eremuko hiru auzoetan, alegia, **Loiolan**, **Txomin-Enean** eta **Martutenen** jarduera ugari gauzatu ziren.

Loiola auzoko jaietan **Bella Vita** kaleko antzerki talde italiarrak emanaldi arrakastatsua burutu zuen Latsari Plazan eta ehunka auzotar hurbildu ziren ikuskizunaz gozatzeri: **Menu del giorno**. Loiolatarren barreak eta algarak aldameneko auzoetara iritsi ziren. Loiolako jaietan bertan **Burrunba elektrotzaranga** eta **Bentazaharreko Mutiko Alaiak** ere izan ziren, auzotarrak abesten eta dantzan ipini zituztelarik.



Ur-Umeak proiektua

Txomin-Enea auzoko jaietan, aldiz, **Orain-Bi** konpainiaren **Mute** kaleko zirku ikuskizunaz gozatzeko parada izan zen. Eguraldia lagun, ikuskizuna kalean burutu ahal izan zen eta jaiei hasiera bikaina eman zitzaien. **Artaleku plaza** lepo bete zen okasiorako.

Martutene auzoko jaietan **Porrotx** eta **Marimotots** izan ziren protagonista, **Lagunekin kantu, irri eta dantza** ikuskizunarekin. Ikastolako komunitateari omenaldi berezi bat egin zitzaion, espresuki prestatutako ikuskizun berezi eta hunkigarri bat dela medio, dozenaka pertsonen partehartzearekin eta ehunka ikusleren gozamenerako.

Urrian bertan, beste behin, **Loiola Vintage** jaialdia burutu zen. Aurtengo gai tematikoa zinema izan zen, horregatik izenburua: **Zinema paradise**. Jendetza hurbildu zen kontzertu

sorta ikustera eta arrakasta itzela izan zen. **Libe Hernando, Iñaki Miguel** eta gainerako musikariek **Loiola K.E.**ko areto nagusia dantzan jarri zuten. Une hunkigarriak bizi izan ziren hain kuttunak diren 80. eta 90. hamarkadetako filmetako abestiak entzunez eta, gau giroa lagun, musikazaleek gozatu ederra hartu zuten.

Ezin ahaztu **Abesbatzen Astea**. **Sing Philippines Young Choir**, 42 ahotsez osaturiko abesbatza filipinar gazteak ikuskizun ederra eman zuen **Loiolako elizan**, beste behin zaletuez goraino bete zelarik.

Literaktum Jaialdiaren ingurumarian, **Bertso saio espekulatiboa** bertsolaritza ikuskizuna burutu zen **Loiola K.E.**n, egungo eta garai bateko bertsolari interesgarrienetako batzuk entzuteko aukera izan zelarik: **Nerea Ibarzabal, Uxue Alberdi** eta **Unai Iturriaga**.



Mute, Orain-Bi



Bertso saio espekulatiboa, Literaktum

Proposamen berritzailea eta landua izan zen, literatura eta bertsolaritza uztartu zituen. Martutene auzoan, aldiz, jaialdiarekin lotutako bi jarduera burutu ziren: **Irabazi arte** erakusketa, lehen aldiz **Etxarrienen**, **Aitziber Alonso** ilustratzailearen eskutik eta, artista berak gidatutako komiki- tailerra, **Kirola handiak, komiki txikiak** izenburupean. Komikiaren bitartez literatura etxeko txikienei gerturatzeko apustua izan zen hura.

Euskararen eguna ospatze aldera, **Ameli** ipuin kontalariak ipuin kontaketa musikatua egin zuen **Loiolako liburutegiko** haurren txokoa: **Egutegi batean kabitzen dena**. Memento xarmagarriak bizi izan zituzten Loiolako haurrek Baztango euskaraz zipriztindutako istorio hauetan.

Gabonak zuretzat zikloaren barruan, **Taun Taun** txotxongilo konpainiak 4 egunez taularatu zuen **Tinglaur** ikuskizun interaktiboa. Material birziklatuak eta hondakinak soilik erabiliz sortutako txotxongilo hauei bizitza ematen ikastea zen instalazio interaktibo honen xedea. Ildo nagusi honi jarraiki, parte-hartzaileen irudimenak hegan egin zuen eta, egunez egun, bat-batean, kultur etxea ostrukaz, arrain exotikoz eta kolibri jostagarritz betetzen hasi zen. Adin guztietako jendea hurbildu zen eta saio guztiak harrera oso ona izan zuten: Familiei espresuki zuzendutako edukiei dagokionez, pisu nabarmenena literaturarekin lotutako jarduera eskaintzak izan zuen: **Liburu Baby Kluba**, **Ipuinaren Ordua** edota **Zeu Irakurle** programek adin tarte bakoitzari liburutegiarekin lotura estua izateko zubi lanak egin zituzten, astero-astero, bai **Loiola KE**ko liburutegian bai **Martuteneko Amundarain mediatekan** ere. Ikasturte berriarekin batera, **Zeu Irakurle LiburuLab** bilakatu zen, hitzekin jolasteaz gain, antzerkiari protagonismo gehiago eskainiz saio jostagarri hauetan. Horrez gain, eta modu xumean bada ere, haur antzerki eskaintzak ere bere lekua izan zuen programazioan. Horren adibide, **Firulete** taldearen **Basoa** ikuskizuna, **Eriz Alberdiren Munduari itzulia** edo **Anita Maravillasen Pintto Pinto** ikuskizun saritua.



Munduari itzulia 80 egunetan, Eriz Alberdi

Erakusketen atalean, aurreko lerroetan aipaturiko erakusketez gain, nabarmentzeko modukoa izan zen urteko lehen hiruhilekoan erakusgai egon zen **Ende, Emakume artistak** erakusketa, diziplina artistiko anitzak lantzen dituzten izen bereko, **Ende**, kolektiboaren partaideen eskutik. Modu berean, urte amaiera aldera **Stephen Webb** artistaren **Paper Cuts** erakusketa azpimarratu beharko litzateke. Diseinu islamiarraren printzipioetan oinarrituta, paperezko collage hauek **Kordobako** mesquita handian aurkitutako apaingarrietan oinarrituta garatu dira, **Al-Andalus** izan zen arragoa kulturean inspiraturik, estetika jazz arabiar gisa deskriba daitekeelarik, egile beraren esanetan.

Ikastaroen alorrean, **Loiola K.E.**k jauzi kualitatiboa eman zuen iaz. Euskarazko ikastaroen kasua azpimarragarria da, sekulako hazkundera izan baitzuen: euskarazko ikastaroen kopurua biderkatu egin zen eta 3 ikastaro izatetik (urte osoan) 7 ikastaro izatera pasa zen. Gaztelaniazko ikastaroen kasuan ere bikain joan zen matrikulazioa eta hainbat ikastaro kultur etxearen espazio faltagatik ezin izan ziren bikoiztu.

Berrikuntza gisa, aipagarria da, modu berean, lehenengo aldiz ikastaroak **Txomin-Enea** auzoan martxan jarri zirela, **Lanberri** ekipamenduan zehazki.



Arantxa Carcedo González,
Ende, Emakume artistak



Paper Cuts erakusketa, Stephen Webb

JARDUERAK

21

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.746

1

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 23

58

**Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak**
Erabiltzaileak: 3.438

0

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 0

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

2

**Hitzaldiak eta
mahai-inguruak**
Erabiltzaileak: 69

147

**Liburutegiko
jarduerak**
Erabiltzaileak: 1.530

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

9

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 1.380

8

Erakusketak
Erabiltzaileak: 1.656

30

Plus 55
Erabiltzaileak: 412

22

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 1.244

Guztira
298
jarduera

11.498
erabiltzaile

ZERBITZUAK

44.159

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
**KZgunea
(Nabigazioak)**

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
**Ispilu beltza
magazine-podcasta**

0

bisitaldi
Musika Eskola

Guztira
44.549
BISITALDI

390

bisitaldi
Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	69	41	572	483	89
2023-2024 IKASTAROAK	34	19	265	222	43
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	12	3	45	40	5
Gaztelaniaz	16	12	178	158	20
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	6	4	42	24	18
2024-2025 IKASTAROAK	35	22	307	261	46
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025eko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	13	5	74	67	7
Gaztelaniaz	13	13	184	152	32
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	8	3	39	32	7
Gaztelaniaz	1	1	10	10	0
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 78.963

Lugaritz
Kultur Etxea

2024

DK
memoria



LUGARITZ

Kultur Etxea



Txiki

2024ko ezaugarri nagusienetakoa izan zen handitzen jarraitu zuela kultur etxeak bertan zein kanpoan eskaini zituen programen eta zerbitzuen erabiltzaile kopuruak. Proposamenen izaera heterogeneoa kontuan hartuta, harrigarria izan zen publikoak emandako erantzuna.

Nabarmentzekoak izan ziren **Antton Telleriaren NININI bakarrizketek** izan zuten arrakasta, baita **Jorge Bolañosen Perreando** ikuskizunak, **Eden Serranoren El Show de Eden Serrano** lanak eta **Txiki** umorista donostiarraren emanaldi bikoitzak ere; azken honek agur esan zien eszenatokiei, beste artista batzuk lagun zituela, hala nola **Musergo**, **Ekiza** eta **Jon Plazaola**.

Euskal Herriko zein Estatuko hainbat **antzerki konpainiak** bisitatu zuten aretoa. Euskal



Estación Paraíso, La Maquiné

proposamenen artean, **Erre Produkzioak** taldearen **Solo hasta Mañana** gazteen munduan oinarritutako antzezlanak, **2112 Produkzioak-en M de Maite** antzezlana ganberroa, **Eukalyptus** lan harrigarria ta Mikel Laboaren abestiekin jolastan duen **Tartean** konpainiaren **Ay gure juaneteak** lana nabarmentzen dira. Estatuko artean, hirian izan genituen **Inconstantes Teatro** antzerki-taldearen **Hasta que la muerte nos separe** antzezlana tragikomikoa, **El mono habitado** konpainiaren **iGuapa!** hausnarketara garamatza lana, **Con los ojos cerrados**, **Germán Torresekin**, eta **Viridiana producciones** taldearen **Restos de un naufragio** lan poetikoa.

Haurren eta familien atalean, **Teatro Paraíso** antzerki-taldearen **Kutxartean** eta **La Maquine** kataluniarren **Estación Paraíso** antzezlana sarituez gozatzeko aukera izan genuen. **GluGlu**, **Hika**, **La**

Enana Naranja eta **Borobil** bertako konpainiek, besteak beste, **Xampatito** galiziarrekin eta **Cia. David Segura** talde andaluziarrarekin partekatu zuten eszenatokia.

Konpainia amateurrek ere erantzun bikaina jaso zuten. Txalo ugari jaso zituzten **Nueve Teatro**, **Anabasa-Les Figuretes** eta **Zurriola Antzerki Eskolaren** emanaldiek. Horiekin batera, Nafarroako **Puntido Teatro** eta Arabako **Aimara Teatro** izan genituen, bertako konpainien truke batean. Teatro Estudiok **La Cantante Calva** lanaren emanaldi pribatua grabatu zuen, zirku-itekin amateurren hedatzeko.

Jaialdien alorrean, **dFeria** jaialdian italiar txotxongiloak nabarmendu ziren martxoan; maiatzan, berriz, **Poltsiko Antzerkia** eszenatoki berrietara iritsi zen auzoan, eta **Gazteen Antzerki Topaketari** dagokionez, emanaldi gehiago izan ziren.

Kale-antzerkiak ere ziurtatu zuen bere presentzia urtean zehar, Antiguu, Igeldo, Ibaeta eta Añorgako hainbat ospakizunetan, umorearen eskutik eta, batez ere, frontoiak jendez gainezka jartzea lortu zuten **Muterren Orain-Bi** eta **Berdinkiren Micra** zirku-ikuskizunekin.

Musika-programazioaren barruan eskaini ziren estilo ezberdinek gustu guztietarako kontzertuak eskaini zituzten. Besteak beste, **Luberri** Donostiako abesbatzak lehenengoz jardun zuen Lugaritzeko

eszenatokian, eta publikoari asko gustatu zitzaion **Antología de la Zarzuela**, **Francisco Escudero** **Musika Kontserbatorioko** kantu-bakarlariak eta piano-jotzaileek interpretatu zutena. Beste horrenbeste esan genezake abesbatzen musika zikloaren barruan Ibaetako parrokiaren egin zen hirugarren kontzertuari buruz ere; Belgikako **Amaranthe** abesbatzak eskainitakoa, hain zuzen ere. Bertsolaritzak hitzordu bikaina izan zuen **Bilintxen Menda** programarekin udaberrian, eta urteroko **Donostia bertsotan** ekimenarekin udazkenean. Emanaldi guztiek izan zuten harrera oso beroa publikoaren aldetik.

Folk-rockak ere izan zuen bere presentzia, proposamen benetan interesgarriekin: **Korrontzi**, **Belar Hostoak II** eta **Xabi San Sebastián** izan genituen; azken horrek 20 urteko ibilbidea ospatu zuen, hainbat gonbidaturekin batera. Giro elektrikoago batean, **Mice**, **Audience** eta **Txuma Murugarrenen** kontzertuak nabarmendu ziren, **Mikel Azpiroz**en jazzarekin eta **Jabier Muguruzaren** lirismoarekin kontrastean, guztiak ere musikari bikainek lagunduta. **Udal Musika Eskolaren** eta **Jakintza Musika Akademiaren** urteko erakustaldiak gehitu behar dizkiegu aurrekoei, udaberrian eta neguan egin zirenak.

Eraikinean egin ziren hobekuntza-lanek mugatutako urte batean, aipatzekoak dira **Arkeolur** elkartearen **Naufregioak euskal kostaldean** erakusketa, eta **Jose Mari Razkin** artista amateurren **Itzalaren goraipamena** argazki-proiektua.



Kutxartean, Teatro Paraíso



Korrontzi

Liburutegi-zerbitzuak bisita kopuruen eta agirien maileguen maila ona lortu zuen, bisitari gehiago eta jardueretako parte-hartze handiagoa lortuz.

Astelehen bat, liburu bat euskaraz egiten den literatura-solasaldiak ere aurrera jarraitu zuen,

Aritz Gorrotxategirekin eta ohiko taldearekin.

Haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko jardueri dagokienez, **Liburu Baby Klubak** partaide gehiago izan zuen, baina **Ipuinaren ordua** ekimenak geldialdia jasan zuen, ohiko ziklo-aldaketa bat dirudienaren barruan. Parte-hartzaile gehiago izan zuten ikasleen bisitek ere, eta ostegunero **Agifes** elkarteko irakurketa-talde bat hartu zuen. Azkenik, **Literaktum** jaialdiaren barruan, nabarmentzekoa da **Agustín Martinezi** eta **Antonio Merceroni** egindako elkarrizketa; eleberri beltzaren fenomeno editorial bihurtu den **Carmen Mola** ezizenarekin idazten duten hiru egileetako bi dira horiek.

Ikastaroei eta tailerrei dagokienez, egiaztatu zen matrikulazioek goranzko joera dutela, arte eszenikoekin lotutakoetan, bereziki. **Bertso Eskolak** hurrei eskolak ematen jarraitu zuen. Kultur etxeko **baratzeak**, berriz, ikastetxeetako ikasleen bisitak jaso beharrean, gizarte-

bazterketako arriskuan dauden taldeenak jaso zituen. **Merkatu Zaharreko erabiltzaileen elkartean** jarduerak partaidetza-maila altuari eutsi zioten, eta dantza izan zen jardura nagusia, bere forma ezberdinetan. Beste horrenbeste esan daiteke instalazio horietan Gazteria departamentuak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez ere: **Haurtxokoa** eta **Gaztelekua**.

Plus 55 programarekin lotutako jardueren artean, harrera oso ona izan zuten **Giza Liburutegia** proiektuak eta urte guztian zehar programatutako antzerki-jarduerak, hitzaldiek, bideo-forumek eta ikastaroek ere. Zerbitzuak eta Lugaritz Kultur Etxeak hiriko hainbat zonatan dagoeneko abian dagoen **Erlauntza** ekimenaren nodo berri bat sortzen lagundu zuten. Diziiplina anitzetako profesionalentzako, ikuspegietarako eta erakunde publiko eta pribatuatarako elkargunea eta konfiantzazko espazioa da; guztiek dute auzoan bizi diren pertsonen bizi-kalitateari eusteko eta/edo berreskuratzeko helburua.

Azken batean, egindako jardueren heterogeneotasuna eta auzoko errealitate berrien azterketa gailendu diren urtea izan zen.



Agustín Martínez & Antonio Mercero, Carmen Mola. Literaktum

JARDUERAK

50

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 6.790

12

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.588

69

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 739

88

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 1.911

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

8

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 280

110

Liburutegiko
jarduerak
Erabiltzaileak: 1.701

88

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 2.571

17

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 4.119

2

Erakusketak
Erabiltzaileak: 516

22

Plus 55
Erabiltzaileak: 741

2

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 30

Guztira
468
jarduera

20.986
erabiltzaile

ZERBITZUAK

29.615

bisitaldi
Liburutegia

2.629

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Ikasgela

1.340

bisitaldi
KZgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Musikagela

1.998

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Ispilu beltza
magazine-podcasta

0

bisitaldi
Musika Eskola

Guztira
35.582
BISITALDI

0

bisitaldi
Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	221	156	1.193	803	390
2023-2024 IKASTAROAK	52	26	343	240	103
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	1	13	7	5
Gaztelaniaz	3	3	52	39	13
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	21	7	89	67	23
Gaztelaniaz	19	10	128	93	35
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	1	13	7	6
Gaztelaniaz	2	1	9	6	3
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	x	x	x	x
Gaztelaniaz	4	3	39	21	18
2024-2025 IKASTAROAK	45	25	338	256	82
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025eko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	18	6	79	69	20
Gaztelaniaz	19	14	189	142	47
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	6	3	42	23	9
Gaztelaniaz	2	2	28	22	6
IKASTARO PUNTUALAK	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	47	39	184	105	79
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	77	66	328	202	126

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 73.616

Okendo
Kultur Etxea

2024



OKENDO

Kultur Etxea

2024an ere topaketa-, ikaskuntza- eta adierazpen-gune dinamiko gisa mantendu zen Okendo Kultur Etxea, bai Groseko komunitatearentzat, bai kanpoko bisitarientzat. Urtean zehar, programazio anitz eta aberasgarria eskaini zen: arte garaikideko erakusketak, prestakuntza-jarduerak (ikastaroak eta tailerrak barne), hitzaldiak eta kultura-ekitaldiak, horien bitartez ideien trukea eta hausnarketa sustatuz.

2024a urte oparoa izan zen arteari dagokionez, hainbat gairen eta diziplinen bidez, erakusketek artearen eta kulturaren adierazpen ezberdinen inguruko esperientzia aberasgarria eskaini zuten, publiko zabalarari zuzenduta eta gustu desberdinak asetzeko modukoak; izan ere, guztiontzako artea eskaintzea da Okendo Kultur Etxearen helburu nagusia. Horrela, leku nabarmena izan zuen arteak ikastaroetan ere: akuarela, olio-pintura eta teknika mistoaren alderdi praktikoak zein teorikoak jorratu ziren, besteak beste, eta parte-hartzaileek artea modu sakonagoan ulertzeko aukera izan zuten, adibidez, bisita gidatuekin haien esperientzia osatuz.

Erakusketen artean, programazio erakargarri eta diziplina anitzekoa eskaini zen bi areto nagusietan. Beheko aretoan, honako hauek izan ziren ikusgai: **Jose Manuel Ábalosen *Bizitza olatuen artean***, formatu handiko mihise paregabe osatua; **Luis Valtueña Nazioarteko Sarien** argazki humanitarioen erakusketa, Giza Eskubideen Zinemaldian kokatutako argazkiak; **Xabier Obesoren *Arrazoiaren eta emozioaren artean***, filosofia eta pentsamendu sakonak islatzen dituzten obrak; **Stéphane Levallois** komiki egilearen ***Goya Hell Boy*** berezia, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin bat eginez; eta, urtea amaitzeko, ***Eulogy. Chillida 100 urte***, Eduardo Chillidaren mendeurreneko omenaldia, diseinu grafikoaren begiradatik.

Goiko aretoan, berriz, hainbat erakusketa interesgarri jarri ziren ikusgai, besteak beste: **Catalina de Erauso Arte Klubaren** urteurrenari eskainitakoa; ***Gailurrean izan gaitun***, Euskal Herriko emakumeen mendizale bide-urratzaileen argazkiak; ***Sirenak***, **Casey Laraek** Zurriolako hondartzan ateratako uretako argazkien bilduma; Gipuzkoako Artisten Elkartearen 75.



Goya Hell Boy erakusketa, Stéphane Levallois



Luis Valtueña Nazioarteko Saria © @azqueta_arts



Eulogy Chillida 100 urte erakusketa © José Luis López de Zubiria

urteurrenaren ospakizuna, teknika desberdinak erakutsiz; eta, urte amaieran, Literaktum Jaialdiaren barruan, **Anne Rearicken Gure bazterrak** argazki sorta zoragarria. Gainera, dagoeneko tradizio bihurtu diren erakusketa kolektiboak ere arrakastatsuak izan ziren, hala nola, **Pilar Gracia III. lehiaketako** lanak, +55 programako **Ereinduz lehiaketakoak** edo Okendo Kultur Etxeko **arte-ikastaroetako parte-hartzaileen** erakusketa plurala.

Auzoan ospatutako jaialdi eta ekitaldiak ere ez ziren falta izan, hala nola **Poltsiko Antzerkia** jaialdiko emanaldiak; Gros eta Saguesen; **Jon Zabal** mentalistaren bakarkako emanaldi jostagarria; **Famiglia** istorio txikia, **Xabin Fernández** eta **Maider Díaz** antzezleen familiaren inguruko hausnarketarekin; eta, azkenik, **Hau da hau euskandaloa!**, **Maitetxu Mia** artistak eskainitako umore saioa.



Pilar Gracia III. lehiaketa erakusketa



Hau da hau euskandaloa!, Maitetxu Mia. Poltsiko Antzerkia



Musika Gela Fest, Sagues



Camerata Chamber Choir, Abesbatza Zikloa

Sagueseko zabalguneak bizitasun handia izan zuen ekainean, bi ekitaldi jendetsu ospatu baitziren han: **Musika Gela Fest** eta **San Joan Erromeria**. Azken horretan, ohiko lore-banaketa, euskal dantzak eta **Iratzar** taldearen erromeria izan genituen protagonista. Nahiz eta euria iragarrita zegoen, hori ez zen inolaz ere oztopo izan, eta auzokideek elkarrekin gozatu zuten San Joan Suaren magiaz. Sagues, beste behin, musikaren, kulturaren eta komunitatearen topaleku ezin hobe bilakatu zen. Bitartean, Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuen eskutik, **Udako Solstizioa festa** ospatu zen Catalunya plazan.

Urte osoko zikloi erreparatuz, azpimarratzekoa da **alemanierazko eta frantsesezko zinema** zikloak 20 urte bete zituela urteroko programan eta, horrela, ostiraletan film luzeak atzerriko bi hizkuntza horietan ikusteko aukera izan zela. Alemanierazko filmen zikloaz **Goethe institutua** eta **Lorelei elkarte**a arduratu ziren, frantsesezko filmen zikloaz, aldiz, **Institut Français** eta **Alliance Française** erakundea.

Otsailean, berriz, urtero bezala, **Osasunaren astea** egin zen kultur etxean. Haurrak eta pantailak gaitzat hartuta, gai horren inguruko kezka eta jardunbide egokiak jorratu zituzten, betiere **Haurtxokoarekin** eta **Gaztelekuarekin**, **Groseko osasun-etxearekin**, **farmaziekin**, **Gros-Erlauntza** ekimenarekin eta osasunaren inguruko beste eragile batzuekin elkarlanean. Lanketa polita burutu zuten gaur egun pil-pilean dagoen kezka orokor horren inguruan, pantailek adin

txikikoengan duten eraginaren eta, azken batean, adikzioa sortzeko duten arriskuaren inguruan, alegia.

Bestetik, errepikatzen diren ziklo horien barruan legoke **Mendia eta natura** gaiarekin lotutako hitzaldi interesgarrien zikloa. Hitzaldiek auzoko eta hiriko mendizaleen interesa piztu zuten; urtero gai ezberdinak aztertzen dira; adibidez, izen bereko erakusketarekin lotutako **Gailurrean izan gaitun**, edo **Kayak batetik glaziarra** edo **Konfiantza itsua** eskaini ziren, hirurak ere natura eta mendiarekin lotuta egon arren, alderdi desberdinak proposatzen dituzten hitzaldiak.

Ziklo laburragoa, baina pil-pilean dagoen gai batetik lotutakoa antolatu zuen **Goldatu** elkarteak: **Atzoko eta gaurko erbesteratze eta migrazioak**. Programa honek mendetan zehar eginiko erbesteratze eta migrazioak aztertu zituen; hizlarien artean, **Aintzane Lasarte**, **Josu Chueca**, **Iñigo Mijangos**, **Amets Arzallus** eta **Itziar Gómez** egon ziren.

Auzoko txikientzat, emanaldi ugari eskaini ziren 2024an, aretoak gehienetan betez; azpimarragarrienak **Xepeta** konpainiaren **Tomaxen azken festa**, eta **Kuku ezkutuan dauden emakumeak**, **Eidabe** konpainiaren lan bikaina. Hurrei zuzendutakoak izan ziren auzoko Zipotz jaietan kale-antzerki formatuan egin ziren beste bi emanaldiak ere: **Matraka ma non troppo**, **Trakamatraka** konpainiarena, eta **Ameztu Antzerkia** taldearen **Organic** ikuskizuna.


2024. urtean, **Korrika Kulturalak** euskarazko hainbat jarduera ekarri zituen auzora. Horien artean, nabarmentzekoak dira **Andoni Mutiloaren** ***Esnatu naiz*** kabareta, **Neu Troiak** abeslariaren kontzertua eta Natura eta Mendia zikloko euskarazko hitzaldia, **Baguirathi III Hego-mendebaldeko hertza**, **Mikel Saez de Urabainek** eskaini zuena. Jarduera horiek guztiak auzoko talde eragileekin elkarlanean antolatu ziren, komunitatearen parte-hartzea eta euskara sustatzeko.

Abesbatzen Zikloaren ordezkari gisa, Danimarkako **Camerata Chamber Choir** abesbatzaren bisita izan genuen Groseko San Inazio Parrokian. Urtero bezala, erabat bete zen parrokia, eta koruak emanaldi berezia egin zuen, bertaratutakoei euskarazko kanta bat ere eskainiz.

Literaktum topaketan, udaberrian, **Maxim Osipov** idazle ospetsuarekin literaturaz hitz egiteko aukera izan zen. Ondoren, azaroan egiten den Literaturaren jaialdian, beste bost idazle nabarmen izan genituen bisitan: **Eduardo Halfon** eta ***Tarantula***; **Sergio del Molino** eta ***Los Alemanes***; **Monika Zgustova** eta ***Soy Milena de Praga***; **Javier Zamora** eta ***Solito***; eta **Adania Shibli** eta ***Detaile Xume bat***. Jardunaldi interesgarriez gozatu genuen idazle horiekin eta haien liburuekin.



Monika Zgustova, Literaktum



Gure Bazterrak erakusketa, Anne Rearick. Literaktum

Literaktum jaialdiaren egitaraua osatzeko, **Anne Rearicken** argazki erakusketa, ***Gure Bazterrak*** izeneko bilduma, Biarritzeko Mediatekarekin elkarlanean, eta, Haurtxokoan, **Judas Arrietaren *Azeri maskara tailerra*** familien jarduera artistikoa izan genituen.

2024a urteurrenez betetako sasoia izan zen Okendon: **Catalina de Erauso Arte Klubaren** 50. urteurrena; **Donostiako Udaltzaingoaren** 175. urteurrena; eta **Gipuzkoako Artisten Elkartearen** 75. urteurrena. Hiru ospakizun horien lekuko izan ziren Okendo eraikin zaharreko erakusketen aretoa eta liburutegiko atariko erakustokia. Urteurrenekin lotutako hitzaldi aberasgarriak eskaini ziren areto nagusian. Adibidez, ***Artea eta adimen artifizia*** hitzaldia, **Aitor Álvarezek** eskaini eta Gipuzkoako Artisten Elkarteak antolatu zuena.

Era berean, funtsezko zerbitzuak emankorrak izan ziren urte osoan zehar, hala nola liburutegiko eguneroko zerbitzu zabala. Gainera, asko eta anitzak izan ziren liburutegiak eskaini zituen jarduera tartekatua; adibidez, **Liburuaren Nazioarteko Eguna** ospatzeko, 55 urtetik gorako irakurleek narrazio laburren irakurketa musikatua egin zuten, **Iñaki Miguel** piano-jotzailearen zuzeneko musikaren laguntzarekin.

Okendo Kultur Etxeak 2024an komunitatearekin batera aurrera egiteko pausoak eman zituen, topaketak, ospakizunak eta jarduerak bizikidetzaren eta kulturaren zutabe bilakatuz. Groseko eta Uliako auzokideentzako erakusketa, ikastaro eta ekitaldi guztietan ugaritu ziren parte-hartzea eta bisitak aurreko urteko datuekin alderatuta, kultura guztiona zela aldarrikatuz. Horrek guztiak azpimarratu zuen Okendo etengabe garatzen ari den kultur etxe bizia dela.

JARDUERAK

14

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.925

1

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 107

23

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 3.532

23

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.481

149

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 10.208

23

Erakusketak
Erabiltzaileak: 79.578

92

Bilerak eta
elkarleen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 1.686

121

Liburutegiko
jarduerak
Erabiltzaileak: 1.819

125

Plus 55
Erabiltzaileak: 3.098

158

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 2.803

226

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 4.704

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
955
jarduera

110.941
erabiltzaile

ZERBITZUAK

120.572

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

3.911

bisitaldi
Gaztelekua

4.578

bisitaldi
Haurtxokoa

10.669

bisitaldi
KZgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza
magazine-podcasta

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

1.141

bisitaldi
Plus 55

Guztira
140.871
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintza Osatutako
ikastaroak Erabiltzaileak Emakumeak Gizonak

GUZTIRA	316	243	3.043	2.079	964
2023-2024 IKASTAROAK	60	35	655	527	128
Ikasturte osokoak (2023ko urria - 2024ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	24	2	28	17	11
Gaztelaniaz	25	24	475	380	95
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2024ko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	3	3	45	42	3
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	8	6	107	88	19
2024-2025 IKASTAROAK	65	29	527	412	115
Ikasturte osokoak (2024ko urria-2025eko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	28	3	38	20	18
Gaztelaniaz	26	22	439	352	87
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2024ko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	9	2	24	16	8
Gaztelaniaz	2	2	26	24	2
IKASTARO PUNTUALAK	5	5	337	191	146
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	2	2	210	114	96
Gaztelaniaz	3	3	127	77	50
KZgunearen IKASTAROAK	153	141	1.271	803	468
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	33	33	253	146	107

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 223.825

Liburutegiak

2024

DK
memoria



Adimen Artifizialaren aroan,
literatura eta liburutegiak
are eta ezinbestekoago eta
indartsuagoak dira.



Liburutegiak

2024an, Donostiako liburutegi-sareak %6,79ko igoera izan zuen mailegu kopuruari dagokionez, eta %10,68koa, berriz, bisitari kopuruari dagokionez.

870.197 bisitari izan zituzten liburutegiek (3.151 lagunekoa da eguneroko bisitari kopurua), eta **480.923 mailegu** eta **1.907 jarduera** egin ziren, **46.525 lagun**en parte-hartzearekin; horrenbestez, aurreko urtearekiko %9,86ko igoera izan zuen bertaratutakoen kopuruak.

Donostiako liburutegi-sareak, 1992an liburutegi-sare gisa sortu zenetik, zerbitzatzen duen gizarteari zerbitzu ematen saiatu da. Katalogoa paperezko fitxetan edukitzetik ordenagailuan eta OPAC online katalogoan edukitzera pasa zen. Automatizatu egin ziren prozesuak eta, geroago, dokumentuen digitalizazioa sortu zen.

2024. urtean, Adimen Artifizialaren (AA) booma bizi izan genuen. Ukiezintzat jotzen genituen liburutegi-prozesu batzuk, katalogazioa kasu, AAren laguntzarekin egin ahal izango dira etorkizun nahiko hurbilean. AAren historiaurrean gaude, baina beharrezkoa da prestatzea, trebakuntza handiarekin. **Elissa Malespinak** dio badagoela esaera zahar

bat: “zaborra sartu ahala, zaborra ateratzen da”. AA sortzaileak nola funtzionatzen duen eta ezagutza nondik eskuratzen duen jakin behar da. Kontua da informatuta egotea, eta liburutegia are ezinbestekoagoa izango da, informazioaren panorama hazi egin baita konplexutasunean. AA liburuzainen rola eraldatzen ari da berriro.

Nolanahi ere, irakurleak sortzeak jarraitzen du izaten eginkizun nagusia, horrela herritar kritikoak sortzeko. Irakurtzea bakarka egiten den jarduera bat da, baina ez da bakartia, munduarekin konektatzen gaitu. Inprimatutako orrietatik pantailetara pasatzerakoan, mezu zatikatuak eta testuingururik eta sakontasunik gabeak kontsumitzen ditugu. Hezkuntzaren arloan, eraso egin zaio literaturari, aukerazko ikasgai izatera baztertuz; hemen, liburutegien zientziaren parte gisa aldarrikatzen dugu. Horregatik, 2024. urtean, liburutegi-sareak ordu asko eskaini zion **Literaktum** jaialdiari. Literatura-liburutegi binomioa finkatu beharra dago. Irakurketak bakarrik oparitzen dizkigu gozamen-orduak eta horren ergelak izan ez gaitezen lortzen du. Literatura-liburutegia binomioak presente egon behar du liburuzain berrien prestakuntzan.

135



Literaktum, Unai Elorriaga © Iñaki Rubio

Sarea zenbakitan

Zenbakiak garrantzitsuak dira zerbitzuen errendimendua neurtzeko, baina interpretatu egin behar ditu zerbitzuaren zuzendaritzak, zenbaki hutsak desitxuratu egin baitaitezke. Urtez urte, liburutegien analisirako **Bertelsman Fundazioaren** programa erabiltzen dugu, errendimendua baloratzeko.

480.923 mailegu egin ziren guztira, **1.743 mailegu egunean**. Guztizko kopuru horretatik, 174.517 haur-liburuen maileguak dira, aurreko urtean baino %10,25 gehiago. **Biztanle bakoitzeko maileguen** kopurua **2,57koa** izan zen (186.667 biztanle), beraz, **Espainiako batez bestekoaren barruan mantendu zen, eta Europako batez bestekotik gertu (biztanle bakoitzeko 3 mailegukoa da Europako batez bestekoa).**

2024an mailegu gehien egin zuen liburutegia **Liburutegi Nagusia** izan zen, **99.853 mailegurekin**, aurreko urtean baino %7,43 gehiago; Okendoko Liburutegia gelditu zen hurrengo postuan rankingean, 71.702 mailegurekin, eta ondoren Ernest Lluch, 70.695ekin; horien kasuan ere igo egin zen mailegu kopurua aurreko urtearekiko, %3,15 eta %6,10, hurrenez hurren. Horien ondoren daude Aieteko liburutegia, 53.679 mailegurekin, eta Tomasene liburutegia, 33.467ekin. **Gainerako liburutegiek ere oso urte ona izan zuten, izan ere, guztietan igo edo mantendu zen mailegu kopurua.**

Bere funtsak eguneratzen ez dituen liburutegi bat ez da liburutegi bat, bilduma hil bat baizik. Liburutegiak bizirik egon behar dira, eta Donostia Kulturakoek haien funtsak eguneratu zituzten.

Sareko liburutegien ezaugarrietako bat da hilabetero edo hamabost egunean behin liburu eta dokumentu berriak edukitzea. **% 5,4koa izan zen berritze-kuota**, liburu berrien altak eta funtsetik ateratako liburuen bajak kontuan hartzen dituen.

Funts bibliografikoen erosketa-gastua 321.340 eurokoa izan zen; kopuru horretatik, 132.000 euro gastatu ziren literaturan. Gainera, 88.915 euroko gastua egin zen aldizkako argitalpenetan. Guztira, beraz, 410.255 gastua egin zen, hau da, biztanle bakoitzeko 2,20 eurokoa, eta bazkide bakoitzeko 3,77 eurokoa, iaz baino %13,51 gehiagokoa. Garrantzitsua da azpimarratzea Donostia Kulturak material berriak erosteko egiten duen ahalegin ekonomikoa, irakurleak lan berriez gozatu ahal izan dezan.

Bazkide kopurua 108.937 lagun edo erakundetara iritsi zen, 5.000 bazkide berrirekin. Horietatik 28.755 bazkide aktiboak izan ziren, hau da, mailegu-zerbitzua gutxienez behin erabili dutenak; bazkide guztien %26,40 izan ziren.

DonostiaTEKA gordailu digitalak 131.000 kontsulta digital jaso zuen, eguneko 112 bisitako batez bestekoarekin. *La Voz de Guipúzcoa: diario republicano* izan zen kontsulta gehien jaso zuena, egunean 21 bisitarekin; *El Pueblo Vasco: diario independiente* egunkariak 15 bisita jaso zuen egunean, eta *La Constancia: diario íntegro fuerista* egunkariak, berriz, 6 bisita egunean. Prentsaz gain, argazki-bilduma ere kontsultatzen da, egunean 5 bisitarekin, baita aldizkari historikoak ere, egunean 4,4 bisitarekin.

2024an 199 erregistro berri egin zen, eta 329 aldatu ziren, datuak osatzeko eta horiek kontsultatzeko modua errazteko: besteak beste, jaietako 41 kartel, 17 liburu eta liburuxka, eta 149 argazki.

Benetako gardentasunean sinesten dugun liburutegiak gara. Paperean eta formatu digitalean argitaratzen dira urtero datu guztiak, edonork ikus dezan bilakaera. Eusko Jaurlaritzarako, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarerako (EIPS) eta Estatistikako Institutu Nazionalerako (EIN/INE) ere biltzen dira datuak.





Dolores Redondo, Literaktum © Iñaki Rubio



Enrique Vila-Matas, Literaktum © Iñaki Rubio

Proiektu nabarmenak

2024. urtean, pisu berezia izan zuen literaturak. **Literaktum** jaialdiaren edizioa oso positiboa izan zen. Oso edizio osoa, salmenta handiak dituzten egileei zein *letra larriz idatzitako literatura* egiten duten egiletzat jotzen direnei lekua egin ziena. **Dolores Redondok** argi utzi zuen glamourra eta literatura bateragarriak direla, Victoria Eugenia Antzokia beteta. **Carmen Mola**, Lugaritzeko antzokian, polizia-nobelaren edo nobela beltzaren adierazgarri perfektua izan zen: ***El Clan*** bere azken eleberriak ***La novia gitana*** eleberriarekin hasitako saila ixten du. Egile biak lehian ari dira, nork saldu liburu gehien. Zalantzarik gabe, *best seller* ona literatura da, kontakizuna, aisia.

2024ko edizioko gai nagusia izan zen literaturaren eta gatazka belikoen, sozialen eta horiek ondorengo belaunaldietan izaten dituzten ondorioen arteko erlazioa. Hainbat idazle nabarmendu zen, **Eduardo Halfon** adibidez. Guatemalar idazlea maisua da bere eleberri laburretan. Bere prosaren etorriarekin sortzen duen unibertsoari esker, nortasunaren konplexutasunean murgiltzen da ***Tarántula*** bere azken lanean. **Fermina Cañaveras** kontzentrazio-esparruetako prostituzioaren gaiarekin ausartu da. **David Uclés** idazleak, ***La península de las casas vacías*** obrarekin, Espainiako gerra zibilari buruz falta zen eleberri bikaina idatzi zuen, errealismo



fantastikoaren estiloa erabiliz. **Monika Zgustovak** ahanzturatik berreskuratu du Pragako Milena. **Sergio del Molinok**, ***Los alemanes*** bere liburuan, ondorengo belaunaldietan egon daitekeen erruaren gaia planteatzen du. **Javier Zamorak** haurren emigrazioaren dramaren gaia jorratzen du ***Solito*** bere eleberrian. **Juan Manuel Zaragozaren** eta **Antonio Monegalen** saiakerek gerrak literaturan eta arteetan duen irudikatzea aztertzen dute; Zaragozak **Bruno Latour** soziologoari eskaintzen dio bere obra. **Adani Shibli** idazle palestinarra, eta ***Un detalle menor*** bere nobela.

Beste gai eta beritasun batzuen inguruan, **Unai Elorriaga**, **Sabina Urraca**, **Karmele Mitxelena**, **Beñat Sarasola** eta **Fatma Aydemir** izan genituen.

Lehendabiziko aldiz, azaroaren 7an, *literaktum aperitif*a izan genuen, **Martín Caparrós**en ***Antes que nada*** nobela autobiografiko berriarekin, benetako bonba literarioa dena.

Gainera, **Luis Martín-Santos** gogora ekarri zuen jaialdiak topaketa batean, ***Tiempo de silencio*** nobelaren edizio berriaren harira; **Enrique Vila Matasen** hitzaurrea darama eleberriak, eta bera egon zen topaketa horretan, **Javier Minak** elkarriketatuta.


Liburuen edizioagatik ere nabarmendu zen 2024a, lau liburu editatu edo editatzen lagundu baitzen.

Atotxa-Egia: *Harresiz kanpoko ingurune batetik hiri espazio batera* liburua, **Kike Otaegirena**; artxibo historikoan murgildu da Otaegi, Egia auzoaren historia ezagutzera emateko. **Elbira Zipitria andereñoa**, **Antton Kazabonen** testuekin eta **Jokin Mitxelenaren** ilustrazioekin osatutako haurrentzako liburua. VII. Poesia Saria irabazi zuen **Beñat Arrutiren** **Arkeologia Haragitan**.

Apalategien eta orrialdeen artean : bidaia bat liburutegien barrena blog inprimatua, zerbitzuko zuzendariak zortzi urtez, 2011tik 2018ra, idatzitako artikulua biltzen dituen.



Arkeologia Haragitan, Beñat Arruti



2024. urtean nabarmendu zen hirugarren proiektua izan zen funts historikoak gordailu bibliografikoetan berrantolatzeak lana. Liburutegi-zerbitzuak hainbat gordailu bibliografikotan dauden **134.045 dokumentuz** osatutako bilduma historiko garrantzitsua du. Urtez urte, ahalegin handia eginda, liburu horiek baldintza hobetan egon daitezten saiatzen gara. Jaso dugun eta iraun behar duen herentzia. Beharrezkoa da inbertsio handiak egitea. 2024an, liburuzainon jargoian 1 gordailua deritzogunaz arduratu ziren. Udal Liburutegi zaharraren eraikineko atondoan dago. Zoritxarrez, igarotze-espazio batean dagoen gordailua da. San Sebastian egunean denak pasatzen dira handik. Inbertsio bat egin zen igarobide hori modu erraz batean ixteko, estoreak jarrita. Horri esker, liburuak hautsetik eta lapurreta-arriskutik babestuta daude. Gure eginkizuna da liburuak kontserbatzea eta babestea. **11.838 liburu** garbitu eta berriro katalogatu dira, askotariko gaiak lantzen dituztenak, literaturakoak, historiakoak, etab.

Urte hasieran, lehenengo sei hilabeteetan, bere kokalekuagatik Pagola deritzon beste gordailu bibliografiko batean lan egin zen. Prentsa-bilduma eta Ateneoko liburutegia daude han.



María Belmonte, Natacha Appanah

Jarduerak

Emakume idazleen topaketaren 36. edizioa ospatu zen 2024an. Nabarmentzekoa da programaren jarraitutasuna, baita emakume idazle ugariren presentzia horren garrantzitsua ere. 2024an, **Natacha Appanah** eta **María Belmonte** ikusi ahal izan genituen.

2024an ere, Ateneo Guipuzcoanorekin lankidetzan antolatu zen **Literatura jazarriak** hitzaldi-zikloa, idazteagatik jazarpena jasaten dutenak edo jasan zutenak gogora ekartzeko, hainbat unibertsitate-irakasleren eskutik. **Jesús García Gabaldónek Sofía Parnoki** eta errusiar modernismoko poesia lesbikoari buruzko hitzaldia eskaini zuen; **Lydia Vázquezek** eta **Juan Manuel Ibeas Altamirak**, **Théophile De Viau** poetari eta **Olympe de Gouges** idazleari buruzkoa; eta **Ana Zamoranok**, **Oscar Wilde** idazleari buruz hitz egin zuen.

Poesia eta pentsamendua jardunaldiak ekainerako aurreikusita zeuden arren, irailaren 16an eta 17an egin ziren. Errezitaldia egin zen Victoria Eugeniako Klub Aretoan, **Iñigo Astiz**, **Lizar Begoña**, **Elena Olave**, **Jesús Rodríguez** eta **Julieta Valerorekin**, eta bete egin zen aretoa (70 pertsona).



Literatura jazarriak



Poesia eta pentsamendua



Poesia orduak iraileko lehenengo astean egin zen, hilaren 7 eta 9, hain zuzen ere. Bi saio egin ziren, guztira 120 lagunen parte-hartzearekin: **Hain zara eder**, **Fito Rodríguezena**, eta **Nola gorde errautsa kolkoan ez tulik egin gabe**, **Miren Agur Meaberena**.

Nabarmentzeko beste jardunaldi batzuk izan ziren **Leila Guerriero** idazlearena, **La llamada** bere liburuaren inguruan egin zena, eta **Kirmen Uriberena**, **En mis sueños siempre tienes veinte años** bere poema-sorta ardatz izan zuena.

Ipuin Kontalarien VI. Maratoia, Galtzagorriekin lankidetzan antolatzen dena, urrian egin zen San Jeronimo Areroan, eta 48 lagunek hartu zuen parte, hiru saiotan.

Liburutegiaren Eguna, urriaren 24an, Adimen Artifizial sortzailerako lehen hurbilketa bat izan zen -ChatGPT bezalako tresnetarako hurbilketa, zehazki- **Daniel Torres Salinas** eta **Wenceslao Arroyo Machadoren** eskutik. Tailer oso praktikoa izan zen, eta teknologia horien erabileraren ondoriozko alderdi teknikoak eta etikoak jorratu ziren, baita liburutegietan horien erabilerako kasu zehatzak aztertu ere.

Motorrak berotzeko, Kogonada zuzendariaren **After Yang** filma proiektatu zen, eta **Cardo Padial** idazle, gidoigile eta zinema-zuzendaria izan genuen, **Contenido** bere eleberriri buruz aritzeko. **Ylenia Benitok** zuzendu zuen ekitaldia.



Kirmen Uribe, Aizpea Goenaga.
En mis sueños siempre tienes veinte años



Ipuin Kontalarien VI. Maratoia

Liburutegi zerbitzua zenbakitan



Funtsak 617.274

Sarbide librea **483.229**
Historiko katalogatua **134.045**



Liburuak **501.505**
CD **31.337**
CD ROM / Bideo-jokoak **2.325**
DVD **57.095**
Mapak **251**
Material grafikoa **5.130**
Partiturak **11.087**
Aldizkako argitalpenak **8.342**
Ordenagailu eramangarriak **35**
E-reader / iPad **21**
Mahai-jokoak **146**



Euskaraz **114.947**
Gaztelaniaz **442.574**
Besterik **59.753**



Altak **35.407**



Bajak **25.282**



Bildumaren
hazkundera **%1,26**



Bildumaren
eraberritzea **%5,74**



Maileguak 480.923

Maileguak eguneko
1.743



Helduentzako liburuak **237.091**
Haurrentzako liburuak **174.517**
CD **5.451**
DVD helduak **31.799**
DVD haurrak **11.633**
CD ROM **7**
Aldizkako argitalpenak **5.628**
Mapak **0**
Partiturak **2.390**
Bideo-jokoak **6.152**
E-reader / iPad **34**
Ordenagailu eramangarriak **5.940**
Mahai-jokoak **281**



Euskaraz **90.243**
Gaztelaniaz **366.084**
Besterik **24.596**



e-Liburutegia **17.415**



Funts Historikoak Kontsultak
601



Bazkideak 108.937

Helduak **95.588**
Haurrak **12.695**
Besterik **654**
Gizonezkoak **48.777**
Emakumezkoak **59.496**

Berriak 5.000

Helduak **3.238**
Haurrak **1.748**
Besterik **14**
Gizonezkoak **2.191**
Emakumezkoak **2.781**

Aktiboak 28.755

Helduak **20.722**
Haurrak **7.431**
Besterik **602**
Gizonezkoak **11.619**
Emakumezkoak **16.809**



Bisitariak 870.197

Eguneko **3.151**

WWW. Kontsultak

KZguneetan **38.561**
Aretoan **26.599**
OPAC **588.800**
Web **145.851**
DonostiaTEKA **131.000**
Liburu Dantza **1.900**
DKOn **844**
Kontsulta digitalak **2.981**



Jarduerak 1.907

Etorritakoak **46.525**
Erakusketak **8**



LIBURUTEGI NAGUSIA

Sorrera urtea 1874

Irekiera leku berrian 1999



Funtsak

158.274

Sarbide librekoak 60.837

Historiko sailkatua 97.437



Altak

5.795



Bajak

5.022



Maileguak

99.853

Eguneko

334



Kontsultak funts historikoan

411

Kontsultak hemerrotekan

5.739



Bisitak

286.670

Eguneko

959



Jarduerak

282

Etorritakoak

18.523



Erakusketak

7

LIBURUTEGI NAGUSIA Haur Saila

Haur Liburuaren

Dokumentazio Gunea

Sorrera urtea 1970

Irekiera leku berrian 1994



Funtsak

51.779

Sarbide librekoak 25.978

Historiko sailkatua 25.801



Altak

4.190



Bajak

2.013



Maileguak

25.562

Eguneko

89



Bisitak

24.514

Eguneko

85



Jarduerak

256

Etorritakoak

5.449



Kontsultak funts historikoan

190

Kultur etxetako liburutegiak

AIETE Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
2010



Funtsak
40.973



Maileguak
53.679

Maileguak eguneko
181



Altak
2.709



Bisitak
51.138

Bisitak eguneko
172



Bajak
1.591



Jarduerak
130

Jardueretara etorritakoak
4.018

CASARES / TOMASENE Kultur Etxeak Liburutegia

Sorrera urtea 1986
Irekiera leku berrian 2006



Funtsak
42.474



Maileguak
33.467

Maileguak eguneko
112



Altak
2.638



Bisitak
57.236

Bisitak eguneko
192



Bajak
1.917



Jarduerak
154

Jardueretara etorritakoak
1.637

EGIA Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1997



Funtsak
28.193



Maileguak
22.178

Maileguak eguneko
97



Altak
2.122



Bisitak
26.472

Bisitak eguneko
116



Bajak
1.245



Jarduerak
191

Jardueretara etorritakoak
2.815



ERNEST LLUCH Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
2001



Funtsak
44.570



Maileguak
70.695

Maileguak eguneko
237



Altak
2.590



Bisitak
126.181

Bisitak eguneko
423



Bajak
3.832



Jarduerak
274

Jardueretara etorritakoak
3.954

INTXAURRONDO Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea 2000
Irekiera leku berria 2011



Funtsak
50.440



Maileguak
33.098

Maileguak eguneko
136



Altak
2.775



Bisitak
47.766

Bisitak eguneko
197



Bajak
2.591



Jarduerak
122

Jardueretara etorritakoak
1.321

LARRATXO Liburutegia

Sorrera urtea
1987



Funtsak
20.157



Maileguak
8.973

Maileguak eguneko
39



Altak
1.199



Bisitak
18.646

Bisitak eguneko
82



Bajak
212



Jarduerak
64

Jardueretara etorritakoak
1.329

Kultur etxetako liburutegiak

LARROTXENE Kultur Etxea Liburutegia

Irekita: 6 hilabete
Sorrera urtea: 1988



Funtsak
13.061



Maileguak
6.941

Maileguak eguneko
30



Altak
978



Bisitak
9.942

Bisitak eguneko
44



Bajak
1.323



Jarduerak
74

Jardueretara etorritakoak
1.644

LOIOLA Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1987



Funtsak
30.089



Maileguak
17.976

Maileguak eguneko
79



Altak
1.796



Bisitak
37.798

Bisitak eguneko
166



Bajak
1.729



Jarduerak
79

Jardueretara etorritakoak
1.141

LUGARITZ Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1993



Funtsak
38.714



Maileguak
25.603

Maileguak eguneko
112



Altak
2.094



Bisitak
29.615

Bisitak eguneko
129




Bajak
843



Jarduerak
110

Jardueretara etorritakoak
1.701



OKENDO Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea 1987
Irekiera leku berrian 2004



Funtsak
44.155



Maileguak
71.702

Maileguak eguneko
241



Altak
2.986



Bisitak
120.374

Bisitak eguneko
404



Bajak
1.886



Jarduerak
129

Jardueretara etorritakoak
2.423

SAN TELMO MUSEOA Liburutegia

Sorrera urtea
2011



Funtsak 18.856
Sarbide librekoak 10.647
Historiko sailkatua 8.209



Maileguak
848

Maileguak eguneko
4



Altak
691



Bisitak
3.536

Bisitak eguneko
17



Bajak
111

URGULL Liburutegia

Sorrera urtea
1997



Funtsak
4.435



Maileguak
616

Maileguak eguneko
8



Altak
199



Bisitak
3.709

Bisitak eguneko
49



Bajak
40



Jarduerak
12

Jardueretara etorritakoak
420

Beste liburutegiak

AMUNDARAIN
MEDIATEKASorrera urtea 2006
Irekiera leku berrian 2018Funtsak
5.296Maileguak
4.710Maileguak eguneko
21Altak
383Bisitak
7.045Bisitak eguneko
31Bajak
902Jarduerak
30Jardueretara etorritakoak
150DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA
ESKOLAKO LiburutegiaSorrera urtea
2006Funtsak
23.159Maileguak
4.990Maileguak eguneko
23Altak
2.262Bisitak
18.177Bisitak eguneko
83Bajak
25CRISTINA ENEAKO INGURUMEN
BALIABIDEEN ETXEKO LiburutegiaSorrera urtea
2002Funtsak
2.649Maileguak
32Maileguak eguneko
0,09Altak
0Bisitak
1.378Bisitak eguneko
4Bajak
0

Programazioa
Arte Eszenikoak



Programazioa

ARTE ESZENIKOAK

Gero eta birtualagoa den gizarte batean, arlo publikoaren eginkizuna gero eta beharrezko eta ezinbestekoagoa da. Antzoki batera joan eta esperientzia kolektibo ezberdin eta berezi bat bizitzearen liturgia gero eta gehiago hautematen da ezin utzizko zerbait bezala. Donostia Kulturak herritarrekin eta publikoarekin duen konpromisoa sendoa da; **ekintza kulturala demokratizatzea** eta **hausnarketa** eta **zentzu kritikoa eta autokritikoa** sustatutako duten entretenimendurako alternatibak eskaintzea oinarrizko misioa da eta, horretarako, beharrezkoa da artearen sektorea irmotasunez babestea, ardatz egituratzailea den aldetik. Beharrezkoa da jabetzea sare artistiko sendo bat izan ezean, zaila dela aurrera egiteko aukera emango dion bide bat ikusteko gero eta behar handiagoa duen gizarte baterako eduki interesgarriak sortzea.



2024ko MUGARRIAK

Honako hauek izan dira 2024ko urte
eszenikoko gertaera edo mugarri
garrantzitsuenak:

151



XXX dFERIA 2024

dFERIAren 2024. edizioak jarraipena eman zion azken urteotan abian jarritako nazioartekotze-ildoari, batez ere Europari begira. Italia izan zen edizio honetako herrialde gonbidatua, Istituto Italiano di Cultura di Madriden laguntzari esker. Fruituak eman zituen horrek, eta nabarmen handitu zen nazioarteko profesional akreditatuen kopurua (%27 inguru). Gainera, nabarmentzekoak izan ziren izandako maila artistiko altua eta proposameneren aniztasuna, dFERIA estatu eta nazioarte mailako erreferente bilakatzen dutenak. Azkenik, publikoaren erantzunak eta akreditatuen mailak edizio biribil bat ondu zuten.

dFERIAk sentsazio bikaineekin itxi zuen XXX. edizioa. **14.284 lagun izan ziren antolatutako jarduera guztietan:** 8.227 ikuskizunetara, batez beste % 84,48ko okupazio-mailarekin, eta 6.057 dFERIAko jarduera profesional eta ekitaldietara.

Proposameneri dagokionez, ikuskizunen kopuru handi bat (%60) estreinaldiak izan ziren modu batean edo bestean: bi mundu mailan, beste bat Europa mailan, hiru estreinaldi Estatuan eta hamar Euskal Herrian. Diziplinei dagokionez, %52

antzerkia izan zen, beste %44 dantza, %4 diziiplina anitzak. Konpainien jatorriari dagokionez, %40 euskal konpainiak izan ziren (10), %36 espainiarrak (6) eta %24 nazioartekoak. Italia, Kuba eta Argentinakoak izan ziren jaialdian parte hartu zuten nazioarteko konpainiak.

Akreditatutako lagunen kopuruak dFERIAk izandako marka guztiak hautsi zituen eta 2023arekin alderatuz ia %14 igo da. Guztira, **614** profesional etorri ziren. Horietatik, 228 programatzaileak, 76 banatzaileak, 204 ekoizleak edo konpainia-ordezkariek, 55 erakundeak, 23 kazetariak eta kritikariak, eta 28 beste sektore batzuetako profesionalak. Nabarmendu behar da nazioarteko profesionalen kopuruak ere hazkunde handia izan duela, %27 ingurukoa, 2023ko datuekin alderatuta. Edizio honek nazioarteko 71 akreditatu izan ditu, eta horietatik 49 programatzaileak eta nazioarteko jaialdiak izan dira. Nazioarteko akreditatuen jatorriari dagokionez, hainbat herrialdetatik etorri dira: Italia, Lituania, Ukraina, Finlandia, Eslovenia, Georgia, Norvegia, Txile, Uruguai, Kolonbia, Brasil...



iGuapa!, El mono habitado © Gorka Bravo

EGITARAUA

Edizio honetan parte hartu duten 25 konpainiek 25 ikuskizun aurkeztu dituzte, 34 funtziotan. 11 ikuskizunetan jarri behar izan da "Sarrerak agortuta" kartela.

Proposamenen hautaketari dagokionez, ondorengo ikuskizunak estreinatu ziren dFERIA-n:

- Estreinaldi orokorrak: ***El patio de las moreras, Vaivén Producciones y Vernos, Pérez & Disla***
- Europar estreinaldia: ***UNA, Compañía Perbacco***
- Estreinaldiak Estatuan: ***Yeled + Rhapsody In Blue + Shoot Me, Centro Coreografico Nazionale / Aterballetto, La Classe, Fabiana Iacozzilli I Cranpi y Geslomina Dreams, Compagnia BlucinQue.***
- Estreinaldiak Euskal Herrian: ***Together To Get There, Akira Yoshida & Lali Ayguadé, La Declamación Muda, Melania Olcina, Burgos & New York Dantz*** (tres piezas), ***Cidanz Producciones, Flamenco Negro, Fernando López & Germain Bounou, A fuego, La Bella Otero, En mitad de tanto fuego, Miramedia, Macho Grita, Alberto San Juan, Cía Nacional de Teatro Clásico, EQM, Nada ni nadie, María de Melo Producciones.***

Zortzi agertoki izan zituen jaialdiak: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Kluba, Victoria Eugenia Dantza aretoa, Antzoki Zaharra, Gazteszena (Egia), Imanol Larzabal (Lugaritz K. E.), Intxaurrondo K. E. eta Kutxa Fundazioa (Tabakalera).

Bestalde, Erre Produkzioak-en *Bihar arte soilik* eta Vaivén Producciones-en *Masustondoen* patioa izan dira euskaraz eskainitako ikuskizunak.



NAZIOARTEKOTZEA

Europa da erronka eta bidea. dFERIAri Europa interesatzen zaio, eta Europari dFERIA. Joan-etorriko bideak sortzea, elkarrekin bidaiatzea, topatzea eta baterako ekimenak bultzatzea dira dFERIAk, Eusko Jaurlaritzarekin eta Etxepare Institutuarekin lankidetzan, ahalik eta urrutien iristeko erabakiarekin planteatzen zituen erronkak, ahalik eta urrutien iristeko asmoz. Nazioartekotzearen aldeko apustuak emaitzak lortu ditu, nazioarteko profesionalen ehunekoa nabarmen handitu baita, %27 inguru.

Era berean, nazioarteko proiektzio handieneko ikuskizunek ingelesez izan zituzten gain tituluak, eta titulazioa ezinezkoa zutenek aldi bereko itzulpeneko audiogida eskaini zuten.

ESKERRAK

Lehenik eta behin, hemengo ikus-entzuleei, egundoko erantzuna eman baitziguten emanaldietara etorritz. Baita Donostian dFERIArekin duten hitzordura inoiz huts egiten duten profesionalen ere, komunikabideei, azokari ematen dioten oihartzunagatik eta, azkenik, gure esker ona adierazi nahi diegu azken urteotan dFERIA babestu duten instituzioei beren lankidetzagatik. Haien laguntzarik gabe, dFERIA ez litzateke izango gaur egun dena. Honako hauei, alegia: INAEM, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia; eta beste hauei, haien kolaborazio bereziagatik: KUTXA FUNDAZIOA, Istituto Italiano de Cultura de Madrid, SGAE Fundazioa, Etxepare Institutua, Nafarroako Gobernua, COFAE (Espainiako Estatuko Arte Eszenikoen Ferien Koordinakundea), REDELAE (Arte Eszenikoetarako Sare Eurolatinoamerikarra) eta María Pagés Fundazioa.

Bereziki nabarmentzekoa da euskal antzerki eta dantza konpainien inplikazioa, oro har, eta Eskenarena (Euskal Antzerki eta Dantza Enpresen Elkarte) eta EABrena (Euskal Aktoreen Batasuna) bereziki.

Horiek guztiek ekarri zituzten haien ideiak 2024ko edizioa definitzeko, ahal zuten guztian lagundu zuten, eta Feriarekin konprometitzen jarraitu, baita ekonomikoki ere.

XXIV. DONOSTIA ANTZERKI SARIA 2024

Euskarazko antzerkiaren aldeko lanaren gailurrean dago helduei zuzendutako Euskarazko Ikuskizun Onena saritzen duen **Donostia Antzerki Saria** emateko ospatzen den gala; sari horrek, gainera, zuzkidura ekonomiko garrantzitsua du. Sari-banaketaren egunean bertan, gainera, saritutako antzezlanaren emanaldia programatzen da, eta arte plastikoko lan bat entregatzen da. 2023, **Ttanttaka Teatroa** konpainiaren **Sexberdinak** lanak jaso zuen 2023ko Ikuskizun Onenaren saria. Maitasuna, sexua, bakardadea eta aurreiritziak ditu hizpide **Sexberdinak** antzezlanak. Bi lagunen istorioa kontatzen du, hazkuntza pertsonaleko istorio bat, umorez eta saminez neurri berean jantzita dagoena. **Mireia Gabilondo** da obraren zuzendaria, eta **Aitziber Garmendia** eta **Telmo Iruretak** antzezten dute.

Jaialdi horrek amaiera bikaina izan zuen, sari-banaketako galarekin, martxoaren 27an, **Antzerkiaren Mundu Egunean**. Hazten ari den publiko baten babesari esker, gazte eta helduentzako euskarazko antzerki-egitarau egonkor eta erregular bati eustea lortu du Donostiak, Euskal Herrian bakarra dena, Euskara Zerbitzuarekin lankidetza estuan.



UDAKO ANTZERKIA

15 ikuskizunek osatu zuen udako antzerki-programazioa. Bi hilabete eta erdiz, **27.000 ikus-entzule** erakarri zituzten Victoria Eugenia Antzokira eta Antzoki Zaharrera, antolatutako **75 emankizunek**.

Arrakastaz betetako uda izan zen Antzoki Zaharrean, honako emankizun hauekin, besteak beste: **iAy Dios!, Óscar Terolekin; Las que gritan, Beatriz Carvajalekin;** edo **Macho grita, Alberto Saan Juan** aktorearekin. Victoria Eugenia Antzokian, berriz, ondorengo antzezlanak gailendu ziren, besteak beste: **Prima facie, Vicky Luengorekin; Que Dios nos pille confesados, Josema Yusterekin;** edo **Agatha Christieren La**

ratonera. Baita formatu handiko ikuskizunak ere, hala nola **The Divas Xperience** edo **Yunke magoa**.

Udako antzerki-programazioa antzerki-fenomeno historiko eta harrigarria da urtez urte, garai berrietara egokitzen dena eta publiko masibo eta leial batengan behar berriak sortzen dituen. Ez dezagun ahaztu orain dela 25 urte Madrilgo konpainiak bakarrik etortzen zirela. Pixkanaka, bertako proposamenak iristen hasi ziren, lehenengo gazteleraz eta, aurrerago, baita euskaraz ere; horren adibide dira **Txalo** konpainiaren **Artea** edo **Oscarra Oscarrentzat**, eta **Tentazioa** taldearen **Ez naiz inoiz Dublinen egon**. Dantzak eta zirkoak ere izan dute euren tokia, neurri txikiagoan bada ere.



DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO XXVII. GALA

Gipuzkoako Dantzako Profesionalen Elkarteak hasi zen **Dantzaren Nazioarteko Eguna** ospatzen, 1996an. Urtebete beranduago antolatu zen jai horren oroitzapenezko lehenengo gala. Bere filosofiari eutsiz, Dantzaren Nazioarteko Egunaren XXVII. Galak dantza-estilo zabala eskaini zuen, dantzarien eta konpainien kolaborazio altruistari esker, arreta berezia eskainiz etxeko dantzari eta taldeei.

Aurten, berritasun gisa, bigarren emanaldia amaitu ondoren eman zen Dantzaren XXI. Saria. **Igor Calonge** eta **Oihana Vesga** dantzariak jaso zuten saria Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkartearen eskutik; Ibilbide Artistikoaren Saria eta Dedikazio Saria jaso zuten, hurrenez hurren, Calongek eta Vesgak.

Aurten, honako dantzari hauek hartu zuten parte Galan: **Igor Calongek** eta **Oihana Vesgak**, sari jaso ondoren, **JAC Ballet**, **Jon Vallejos** (Dresden), **Hodei Iriartek**, **Chihiro Tamaik** eta **Manuel Sánchezek** (Kieveko balleta), **Mikel Aranak**, **Compagnie Illicite Bayonne konpainiak**, **Elephant in the Black Box** dantza garaikideko konpainiak, **Verdini Dantza Taldeak** eta **Malandain Ballet Biarritz** konpainiak.

Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkartek antolatu zuen Gala, Victoria Eugenia Antzokiarekin lankidetzan, apirilaren 28an egin zena, emankizun bikoitzean, 12:00etan eta 19:00etan.

III ITURRITIK JAIALDIA

Iturritik Dantza Jaialdiaren hirugarren edizioa urriaren 15etik 20ra ospatu zen. Guztira, lau dantza-ikuskizun egin ziren aretoan eta beste bi kalean, gehienak euskal konpainienak: **Kukai Dantza**, **Gero Axular**, **Eskola Dantza Taldea**, **Aukeran Dantza Konpainia** eta **Berritza**.

Haien sorkuntzetarako tradizioa abiapuntutzat hartuta, hainbat artistak egin zituzten beraien lanak nortasunaren inguruan. Aurrez aipatu dugun bezala, euskal konpainiak izan ziren protagonista hirugarren edizio honetan. Halaber, artistekin elkartzeko eta hitz egiteko aukera sustatu zuen jaialdiak, entsegu irekiak, topaketak eta master class bat antolatuta.

Egitaraua, egunez egun: **Nire txokotik** (entsegu irekia), **Kukai Dantza**, urriaren 15ean, Victoria Klubean.

Rel i grapa, **Víctor & Raúl Pérez Armero**, urriaren 17an, Victoria Klubean. Aurrez, goizez, **Víctor Pérez Armerok** master class bat eskaini zuen, dantzako profesionalei eta maila aurreratuko ikasleei zuzendutakoa. Hurrengo egunean, espazio berean, **Kukai Dantza** konpainiaren **Nire txokotik**. **Aiko Taldearen Arratiako jota** lanari buruzko *master classa*, urriaren 19an, dantza aretoan.

Tradiziotik berrikuntzara, **Eskola Dantza Taldea**, urriaren 19an, Okendo plazan, **Gero Axular** dantza taldeak Victoria Eugenia Antzokian **Gero Axular**, **20 urte Gero-ago, más Gero que nunca** emanaldia eskaini aurretik.

Aiurri, **Aukeran Dantza Konpainia**, urriaren 20an, Okendo plazan, **Berritza** taldeak Victoria Eugenia Antzokian **Maxka'roa** ikuskizunaren emanaldia eskaini aurretik.



IKUSKIZUN-ERAKUSTALDIK

Antzerkia

Udalaren Victoria Eugenia Antzokiak eta Antzoki Zaharrak, Egiako Kultur Etxearen Gazteszena eta Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal aretoekin modu koordinatuan lan egiten dute, programazio anitz, ezberdin eta orijinal bat eskaintzeko, formatu guztiak hartuko dituen, era guztietako publikoarengana iritsiko dena eta eskaintza orekatu, zabal, orijinal eta kalitate kontrastatukoa eskainiko duena. Hasiberrien eta dramaturgia berrien aldeko apustua egingo duen eskaintza bat, baina, aldi berean, hiriak merezi dituen izen eta figura handiak eskaintzeko gai izango dena.

Arte eszenikoak etorkizuneko ikusleei hurbiltzeak izaten du jarraitzeko oinarritzko ardatz estrategikoetako bat, publiko berriak sortzeko helburuz. Gazteei arte eszenikoekiko maitasuna erakustea, zuzeneko arteekiko maitasuna, formei eta edukiei dagokienez berritzaileak diren eta, gainera, sortzaile gazteek sortu eta egindakoak diren ikuskizunen bitartez. Prezioen politika dugu konplize eginkizun honetan. **Ordu Gaztea** eskaintzak, hain zuzen ere, asko laguntzen du, berez edozein prezio duen edozein ikuskizunetarako sarrerak hiru euroren truke eskuratzeko aukera ematen baitie

30 urtez azpikoak direla egiaztatzen duten gazteei eta, gainera, emanaldia hasi baino 30 minutu lehenago eros baititzakete sarrerak. 2024. urtean, **902 gazte** baliatu ziren Ordu Gaztea laguntzaz gure espazioetan.

Haurrentzako antzerkiaren eragina hiriko hamar kultur etxeak eta udal antzokiak kezkatzen dituen esku-hartzea da. Arte eszenikoekiko zaletasunak erakustea funtsezkoa da txikienen prestakuntzan eta etorkizuneko publikoak sortzerako orduan.

Amaitzeko, nabarmentzekoa da orain dela 25 urte hasi ginela helduei zuzendutako euskarazko antzerki-proposamenen alde lan egiten. Horrela, Euskal Herri osoan bakarra den **euskarazko antzerki-programazio** erregular bakarra finkatzea lortu dugu. Sortutako eskariaren ondorioz, 2024an, **10.355 ikus-entzule** izan dituzte Donostia Kulturaren eszenatoki ezberdinetan programatutako **22 ikuskizunek**. Programatutako 36 emankizunetako bakoitzaren batez besteko okupazioa inoizko onena izan zen. Udal Euskara Zerbitzuarekiko lankidetzaren sendoak emaitza oso onak ematen jarraitu zuen.



Dantza

Victoria Eugenia udal antzokiak eta Egia Kultur Etxeko Gazteszena aretoak modu koordinatuan lan egiten dute, programazio anitz, ezberdin eta orijinal bat eskaintzeko, formatu guztiak hartuko dituen, era guztietako publikoarengana iritsiko dena eta eskaintza orekatu, zabal, orijinal eta kalitate kontrastatukoa eskainiko duena. Ballet klasikotik eta/edo neoklasikotik hasi eta dantza garaikideraino iristen den eskaintza, tartean flamenkoa, espainiar dantza edo hiri-dantzak ere hartzen dituena. Gainera, antzerkiaren kasuan bezala, hiriak merezi dituen izen eta figura handiak ekartzearen aldeko apustua ere egiten da.

Espainiako beste hainbat eta hainbat espaziotan ez bezala, Donostiak dantzaren adierazpide eta formatu guztien aldeko apustua egiten du; 25 ikuskizun programatu ziren 2024. urtean zehar, urtez urte dFERIA antzerki eta dantza azokaren egitaraua osatzen duten hogeiren bat dantza proposamenak kontatu gabe. Erregularitasun eta jarraikortasun garrantzitsuak benetan, Donostian dantzaren alde egiten den apustuaren erakusgarri.

Kolaboratzaile oso garrantzitsuak ditu Donostia Kulturak dantzaren arloan, hala nola **Kukai Dantza**, Dantzaren Sari Nazionala eskuratu duena, euskal dantzaren sustraieratik dantza garaikiderantz egin duen bide bikainagatik; baita **Malandain Ballet Biarritz** konpainia ere, Donostia Kulturarekin elkarlan estua izan duena 2007az geroztik. Biarritzen du egoitza, Ipar Euskal Herrian, eta koreografiaren arloan prestigioa handienetakoa duten frantziar zentro koreografiko nazionaletakoa bat da. Urte osoan zehar antolatzen diren dantzaren inguruko prestakuntzako eta sentsibilizazioko jarduerak koreografiko guztiak ardatz estrategiko bihurtzen dira dantzaren arloko esku-hartzean: topaketak, eskolak, tailerrak, laborategiak, master classak eta abar luze bat. Hortik sortu zen jaialdi berri bat: Iturritik.

Ez dugu ahaztu behar Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteak dantza sustatzeko eta garatzeko egiten duen lana; eta horren erakusgarri nabarmenena **Dantzaren Astea** da eta, zehazki, Victoria Eugenia Antzokiarekin lankidetzan antolatzen duen Dantzaren Eguneko Nazioarteko Gala.



Txalaparta, Kukai Dantza



Coraza abierta, Cía Marilen Ribot

Zirkoa

Pixkanaka, Udaleko espazio ezberdinetatik, eszenatokietarako zirkoaren alde lan egiten ari da, edo *zirko berria* deritzonaren alde. 2024an, dozena erdi bat proposamenek osatu zuten programazioa.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Formatu handia, erreferentziazko ikuskizunak, artista ezagunak, sormena eta kaudimen artistikoa dira Espainiar Estatuko antzokirik enblematikoenetakoa den honen ezaugarri nagusiak. Ezinezkoa izango litzateke memoria honetan urte osoa laburbiltzea. Hona hemen zertzelada batzuk...

La madre. Testua: **Florian Zeller**. Zuzendaritza eszenikoa: **Juan Carlos Fisher**. **Aitana Sánchez-Gijón** protagonista duen ikuskizuna; horrela, agertokietara itzuli zen, azkenaldiko pertsonaiarik goraipatuenetako batekin, bakardadearen, hutsaren eta zuhurtasunaren mugak zein diren zalantzan jartzen dituen lan honen eskutik.

Cielos. **Sergio Peris-Menchet**ak zuzentzen du **Wajdi Mouawad** idazle libanoar-kanadiar prestigiotsuaren **Cielos** lana. Obra honek leku bereizi batera garamatza, non kriptografoak, itzultzaileak eta ikertzaileak erlojuaren aurka ari diren lanean, gizartearen hondamendia eragingo lukeen eraso terrorista eragozten saiatzeko.

La isla del aire. **Mario Gas** zuzendariak gidatzen du **Nuria Espert** eta **Vicky Peña** buru dituen bost emakumez osatutako antzezle-zerrenda. Menorcan, bost emakumez osatutako familia bat, Mencía zaharraren gidaritzapean (famiako matriarka), txalupaz abiatzen da, Airearen Uharterako bidaia batean.



La isla del aire, Nuria Espert

El novio de España (Volver). **El novio de España** obra musika-komedia hunkigarria da, 1952an, **Luis Mariano** (Christian Escuredo) eta **Carmen Sevilla** (Carmen Raigón) aktore ahaztezinek antzeztutako **Violetas imperiales** filmaren erroldajea girotuta dagoena. Ekoizpena: Txalo. Zuzendaritza eszenikoa: **Juan Carlos Rubio**.

El color de la leche. Testua: **Nell Leyshon**. Zuzendaritza eszenikoa: **Fernando Bernués**. Leyshon-ek edertasun tragiko batez islatu du mikrokosmos izugarri bat, non pertsonaia bereziak bizi diren; hori guztia, urtaroen eta etxaldeko lanen erritmora dabilen ingurune bukoliko batean, tolesgabetasun lazarri batekin bizia hartzen duena, Maryk (Aitziber Garmendia) dagoeneko uko egiteko aukerarik ez duen hartutako patuaren idatzizko testigantza uzteko duen eginahalari esker.

Testu bikainez, zuzendari bikainez eta maila goreneko aktoreez gozatzeko aukera izan zen 2024an, kalitatezko programazio bati esker, zeinetan hitza eta gaurkotasunezko edukiak izan ziren protagonista. Horren zaila eta berezia izan den urte honetan, mailari eta publikoaren arretari eusteko gai izan den programazioa. Ez dugu ahaztu nahi **Asier Etxeandiaren** eszenatokiatarako itzulera, ezta beste izen batzuk ere, hala nola **Claudio Tolcachir**, **Goyo Jiménez**, **Faemino & Cansado**, **Jose María Pou**, **Carmelo Gómez** eta beste hainbat.

Eta gera daitezela jasota Morfeo Teatro konpainiaren **Polvo serán más polvo enamorado** antzezanaren edo Teatro Corsario-ren **El Alcalde de Zalamea** antzezanaren bisitak masiboki parte hartu zuen publiko baten babesa izan zuen programazio baten *delicatessen* modura.



La madre, Aitana Sánchez-Gijón

Dantzari dagokionez...

Txalaparta Kukai Dantza konpainia eta **Jesus Rubio Gamo** dantzaria elkartzearen ondoriozko sorkuntza berria da. Ez du mugarik, askatasun-espazio bat da. Sustraiko dantza eta ikuspegi garaikide bat elkartuta proposatzen den espazio emozional batean nabigatzen ari dira zazpi antzezle. Lurretik sortzen den erritmo bat, eragina du orainean eta ahots formaz egiten du euria etorkizunaren eraikuntzaren eta memoriaren artean eraikitako gorputzen gainean.

CC Nazionale Aterballetto. Estilo anitzak erabat ulertzeko gai diren 16 bakarlariz osatuta dago, eta nazioarteko eszenan aintzatespen handia lortu du **Centro Coreográfico Nazionale Aterballetto** konpainiak, bere dantzarien kalitate nabarmenari esker. Dantza garaikideko Italiako konpainia garrantzitsuentzat jotzen da, eta herrialdeko ballet ekoizpeneko erakunde iraunkor nagusia. Egitarau hirukoitza aurkeztu zuen dFERIA azokan, lan hauekin: Yeled, Shoot Me eta Rhapsody in blue.

Las estaciones, Malandain Ballet konpainiarena. **Thierry Malandain-ek Antonio Vivaldi-ren Cuatro estaciones** ospetsuak eta bere garaikide eta herrikide **Giovanni Antonio Guido-ren Las cuatro estaciones** ezezagunak fusionatzen ditu.

Paraíso de los negros zoriontasunaren etengabeko bilaketari buruzko lana da. **María Pagés-ek** sortutako koreografia flamenkoa da, eta berak zuzentzen eta interpretatzen du; koreografikoa honek bizigarritzat hartzen ditu Federico García Lorcaren **Poeta en New York** zeharkatzen duten askatasun- eta autoritate-printzipioen arteko tentsioa, **Carl Van Vechten-en** obra homonimoari darion aurkakoen esentzia, **Leopold Sedar Senghor-en** belztasunaren filosofia telurikoa, eta Nina Simoneren desio beltzaren aldarrikapena.

Querencia ikuskizunean, balioa ematen zaio espainiar dantzari, haren estilo guztietan. Estilo horien estilizazio bat da, **Antonio Najarro-ren** ikuspegi koreografiko pertsonalaren bitartez; horrela, bidaia bihurtzen du *Querencia*, eskola boleroaren, dantza estilizatuaren, dantza tradizionalaren eta flamenkoaren interpretazio



Las estaciones, Malandain Ballet © Stéphane Bellocq

eta estetikaren edertasunean barrena. Eta, bertan, estilo horien interpretazioarekin batera datozen janzkera eta osagarri guztiak, tartean kordobar kapela, manilako mantoia, espainiar kapa, mantal dandarduna eta Najarroren ezaugarri nagusi den instrumentua, kriskitinak, konpainiako dantzari moldakorrek jartzen dituzte jolasean, Espainiako dantzaren edertasuna eta proiektzio interpretatiboa eta estetikoa goratuz.

Ez dugu ahazterik nahi **Ertza Dantza konpainiaren** 25. urteurreneko gala, ezta **Verdini-ren** 30. urteurrenekoa ere.

Musikalak, zirkoa eta beste ikuskizun batzuk:

- MUSIKALAK: **Tiempo entre costuras, La movida, El musical de los 80, The Divas Xperience.**

- ZIRKOA: **Marilen Ribot**

- MAGIA: **Donostia vive la magia!** (Erregetan), GETIN musikaren arloko enpresa promotoreak ekoitzia, eta **Mago Yunke** (udan).

ANTZOKI ZAHARRA

Antzoki Zaharrak funtsezko lana egiten du bere esku-hartzearekin, oinarritzko hiru ardatz dituen zirkulu baten koadratura ixten lagunduz:

1. Victoria Eugeniari laguntzea eta haren osagarri izatea, formatu ertaineko gaztelerazko antzerki-proposamenekin, hala nola **Golden Apple Quartet**, **Yllana**, **L'om-Imprebis** eta **Histrion**. Baita zirko pixka batekin ere, **Mahmud y no solo Mahmud** ikuskizun bikainarekin.

2. Euskal Herriko euskarazko antzerki-programazio egonkor eta erregular bakarraren oinarri nagusia. Kale Nagusiko eszenatokitik, euskarazko antzerki-ekoizpenean erreferente diren konpainia guztiak igarotzen dira: **Txalo**, **Vaivén**, **Tentazioa**, **Egoitz Sánchez**...

3. Haurrentzako ikuskizunak bultzatzea



Trash!, Yllana



Go Figure, Sharon Fridman © Yaron Abulafia

GAZTESZENA

Nabarmenezkoa da Egia Kultur Etxeko aretoak dantza garaikidearen arloan egiten duen lana. Hainbat artista eta konpainia izan genituen Gazteszenan, hala nola **Adriana Bilbao**, **Sharon Fridman**, **Lali Aiguadé**, **La Analógica** eta **La Intrusa**.

Zirko Berria deritzonaren barruan, **Leandre** aurkeztu zen. Euskarazko antzerki-programazioari dagokionez, **Barrexerka** antzerki-taldea, **Artedrama Miñán** lanarekin eta **Hika** konpainia **Zorretan** antzezlanarekin izan genituen; gaztelerazko antzezlanak ekarri zituzten konpainiei dagokionez, **Olatz Gorrotxategi** eta **Khea Ziater** aipa genitzake, besteak beste.



IMANOL LARZABAL

Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal aretoaren lana nabarmena da, formatu txikiko lanei dagokionez. Artista hasiberri ugariri eman zion hirian muturra sartzeko aukera. Donostia Kulturaren esku-hartzea oso eta globalizat jotzea errazten duten ikuskizunak eskaintzen dituzte. Estilo ezberdinak, kontzeptu ezberdinak, artista gazteentzako aukera, eta haiei hiriko ateak irekitzen zaizkie.

Viridiana, **El Mono Habitado**, **Inconstantes** konpainiak, esaterako, eta euskaraz, **Erre Produksioak** eta **Tartean**, besteak beste. Formatu txikiko antzerki-eskaintza zabala, anitza eta irekiaren erakusgarri, gaztetasunez eta talentuz betea.

Zifra bikainek bermatzen dute donostiarrek babesten duten programazio hau.

IKUSKIZUNEN PRODUKZIOA

Victoria Eugenia Antzokia arte eszenikoen, antzerkiaren, dantzaren eta, neurri txikiagoan, zirkoaren sektorearen eragile dinamizatzailea da, urtez urte eta urratsez urrats, sektorearen sareetan gero eta modu aktiboagoan parte hartzen duena. Antzerkia ikuskizunen erakuslelhoa baino zerbait gehiago da. Antzerki dinamiko bat izan nahi du, kudeaketa-bide berrien aldeko apustua egingo duena, erronka berriak bere gain hartuko dituen, eta erakustaldi hutsetik harago joango dena, proiektuetan beste modu batera, intentsitate handiagoz, inplikatur eta konpromisoak hartuz. Ez gastuak partekatuz soilik, baizik eta baita ikuskizunaren garapenean eta haren ondorengo bizitzan kolaboratuz ere. Hortik dator koproduzitzeko nahia, zati batean besterik ez bada ere, eta egitasmoetan lagun egiteko, horiek abalatzeko eta bultzatzeko nahia, proiektuaren kide izanez. Ekoizpenak garestiak direnez eta ondorengo banaketan zailtasunak sortzen direnez, beharrezkoa da elkartzea eta egitasmoen aldeko apustua egitea. Lasaitasun handiagoz eta baliabide gehiagorekin sortzearen aldeko apustua, emaitza artistiko onak eta ustiakuntza- eta itzulkin-aldi luzeagoak lortzeko helburuz.

2024an, ondorengo ikuskizunak koproduzitu ditu Victoria Eugenia Antzokiak:

***Las estaciones* / Malandain Ballet Biarritz**

Koprodukzioa: Donostia Kultura - Victoria Eugenia Antzokia - Donostia (Espainia) - Ballet T, Chaillot-Théâtre National de la Danse - Paris, Saint Etienne opera, CCN Malandain Ballet Biarritz, besteak beste

Koreografia: **Thierry Malandain**

Musika: **Antonio Vivaldi & Giovanni Antonio Guido**

***Txalaparta* / Kukai dantza**

Koprodukzioa: Donostia Kultura - Victoria Eugenia Antzokia - Donostia (Espainia), Malandain Ballet Biarritz, Oreretako Udala eta Kukai dantza

Koreografia: **Jesús Rubio Gamo**

Proiektuaren zuzendaria: **Jon Maya Sein**

Musika: **Aitor Etxebarria**

***El novio de España (Volver)* / Txalo Produkzioak**

Koprodukzioa: Donostia Kultura - Victoria Eugenia Antzokia - Donostia (Espainia), Txalo produkzioak, Olympia Metropolitana eta Pentación

Zuzendaria: **Juan Carlos Rubio**

Egilea: **Juan Carlos Rubio**

***¿Quién nos disparó después del 22? ¿Y ahora?* / Alexandru Scanciu**

Koprodukzioa: Nuevas Dramaturgias -ANTZ3RKIZ (Arriaga Antzokia - Gasteizko Principal Antzokia-Gasteiz - Donostiako Victoria Eugenia Antzokia) - Pabellón 6

Egilea: **Alexandru Scanciu**

Zuzendaria: **Ramón Barea**

Emakume Baten Borroka eta Metamorfosis

***Lucha y metamorfosis de una mujer* / Tanttaka Teatroa**

Koprodukzioa: Donostia Kultura - Victoria Eugenia Antzokia - Donostia, Arriaga Antzokia, Eusko Jaurlaritza

Egilea: **Édouard Louis**

Zuzendaria: **Fernando Bernués**

JARDUERA PARALELOAK ETA SENTSIBILIZAZIOKOAK

Arte eszenikoen inguruko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak dira Donostia Kulturean arreta handiz zaintzen diren ardatzetako bat, urtero **3.700 lagun** inguru mugitzen dituen, tailer, laborategi, ikastaro, master class, truke, ikuskizunen eskola, entsegu ireki, artisten eta publikoaren arteko topaketa eta bestelakoetan.

Helburua da arte eszenikoak herritarrarengana hurbiltzea, erabiltzailearentzat aberasgarriak izango diren ikuspuntuak txertatzea, arte eszenikoak ezagutzen laguntzea eta, azken batean, dantzaren eta antzerkiaren publikoa eta publiko berriak sortzen joatea.

Epigrafe honen barruan, badaude bi proiektu, haien garrantziagatik eta sendotasunagatik, berariazko kapitulu bat merezi dutenak: **Eskolatik antzokira**, eta **Dramaturgia berriak**, idazketa dramatikorako laborategia.

Eskolatik antzokira 2023 / 24

Eskolatik antzokira egitasmoa hazten joan da urtetik urtera eta, gainera, adin-tarte guztietan hazi da. Guztion artean, haurrentzako onuragarriak izango diren konplizitateak eta leialtasunak lortu dira. Gazteenei arte eszenikoekiko, zuzeneko arteekiko, maitasuna irakastea osagarri oso garrantzitsua da haien prestakuntza akademikoan eta pertsonalean. Arte eszenikoekiko duten lotura horrek bizitza osoan iraungo die. Sei ikuskizun izan ziren guztira, 36 emankizunetan, eta 5.178 ikaslek hartu zuen parte.

Eskolatik antzokira ekimenaren edizio berria erakargarria eta interesgarria izan zen:



Muna, Ganso & Cia

Bi urtetik gorako haurrentzako, **Muna, Ganso & Cia.** konpainiaren ikuskizuna. Keinu bidezko eta clown proposamena, testurik gabea; protagonista lurpean bizi da, eta irudimenezko bidaia bati ekiten dio ilargira iristeko, zuzeneko musikaz eta eszenaratze bisual eta soinuazko batez lagunduta.

Lau urtetik gorakoentzako, **Titiriguiri** konpainiaren **Oilar Bat Dago Zure Teilatuan** ikuskizuna. Hainbat diziplina uztartzen dituen lana, txotxongiloak, antzerkia, arte plastikoak eta teknologia berriak konbinatuta, hirian, eraikin bateko teilatuan harrapatuta dagoen oilar baten istorioa kontatzen duena.



N'importe quoi, Clown Leandre cie

Sei urtetik gorako haurrentzako, **Katagorriaren Elezaharra** lana, **La Baldufa** konpainiarena. Kirikino baten eta katagorri baten arteko bizikidetza oinarri hartuta, ezberdintasunei eta mestizaiaren inguruan hausnartzera gonbidatzen ditu haurrak ikuskizun honek, izaki ezberdinen artean elkarrengandik ikasteko eta aberasteko aukerak nabarmenduz.

Zortzi urtetik gorako umeentzako, **N'importe quoi** ikuskizuna, **Clown Leandre cie** konpainiarena. Keinu bidezko eta clown ikuskizuna; bost pailazok ate batekin interaktuatzen dute, bakardadea eta bizikidetza arakutzen dituzten egoera absurduak eta poetikoak sortuz, umorez eta poesiaz gainezka, dena posible den unibertso batean.

12 urtetik gorako umeentzako, **Cricle of trust & Logela** konpainien **Suirrealismoa**. Reakdancea, arte bisualak eta musika fusionatzen dituen

ikuskizuna, XXI. mendean surrealismoa berrinterpretatzeko.

14 urtetik gorako gaztetxoek **La dramática errante** konpainiaren **Yerma** antzezlanak ikusteko aukera izan zuten, Lorcaen izpiritua berreskuratzen duena, ondorengoak izateko ezintasunaren gaiari heltzeko, gaur egungo emakume askoren esperientziak islatuz.

Antzokira joan ziren irakasleei esperientzia modu pedagogikoan aprobetxatzeko aukera eman zitzaion. Horretarako, ikusleak trebatzeko gida batzuk prestatu ziren, hautatutako ikuskizunari buruzko hausnarketak eta informazioak jasotzen zituztenak, baita emanaldira joan baino lehen eta/edo ondoren ikasgelan egiteko jardueren proposamenak ere. Ikuslearen emozioak adierazteko aukera ematen duten iradokizunez gain.

Dramaturgia Berrien VIII. edizioa

Dramaturgia berriak ekimena Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua-ren legatu bat da, Bilboko Arriaga Antzokiarekin eta Gasteizko Principal Antzokiarekin lankidetzan egiten dena. Programaren helburua da idazketa dramatikoaren sustatzea, sortzaileei eta dramaturgoei lagunduz eta haiek trebatuz, bakarkako ohiko lana horren ohikoa ez den lan kolektiboarekin nahastuta, antzerki-konpainiei eta sorkuntza eszenikoari erreferente gisa balioko dien material dramatikoaren korpus bat eratu dezaten. Halaber, ekimen honekin, antzerki-testu berriak sor daitezkeen sustatu nahi da; testua, antzerki-zuzendari batek taularatu dezakeen partitura entregagarri gisa ulertuta. Hautatutako pertsonen gehienek ere zortzi-, lau hilabetez zehar, antzerki-lan bat garatu beharko dute, arte eszenikoetako bi profesional handiren esanetara: **Patxo Telleria** eta **Mireia Gabilondo**.

Urtero, aurreko edizioan idatzitako testu bat aukeratu, eta ekoiztu eta taularatu egiten da. Proiektuaren ardura duten hiru antzokiak arduratzen dira lana ekoizteaz. Edizio honetan, **Sergio Serranoren Los días infinitos** izan da hautatutako testua.

ANTZERKIA	Lanak	Emanaldiak	Ikus-entzuleak	Ordu Gaztea
NEGUKO DENBORALDIA	123	195	45.890	228
Antzerki Profesionala				
Euskaraz	19	33	6.817	37
Gaztelaniaz	29	45	17.113	191
Haurrentzako Antzerkia				
Euskaraz	15	23	6.596	
Gaztekaniaz	2	2	651	
Testurik gabe	6	6	887	
Klub Aretoa				
Euskaraz	1	2	194	
Gaztelaniaz	1	4	375	
Antzerki amateurra				
Euskaraz	15	15	2.127	
Gaztelaniaz	15	15	1.657	
Eskolatik antzokira				
	6	36	5.178	
Kale antzerkia				
Euskaraz	4	4	1.095	
Gaztelaniaz	1	1	250	
Testurik gabe	9	9	2.950	
UDAKO DENBORALDIA	13	57	26.654	495
Antzerki Profesionala				
Euskaraz	3	3	3.538	76
Gaztelaniaz	10	54	20.149	338
Dantza				
	1	4	1.812	58
Musikala				
	1	5	1.155	23
DANTZA	29	33	11.386	105
Dantza Profesionala				
	26	30	11.181	105
Klub Aretoa				
	3	3	205	
MUSIKALA	2	11	4.667	63
ZIRKOA	3	3	487	11
JAIALDIAK	58	85	12.677	
dFERIA				
	25	34	8.227	
Poltsiko Antzerkia				
	17	32	2.640	
Gazteen Antzerki Topaketa				
	16	19	1.810	
	Jarduerak	Egunak	Parte hartzaileak	
BESTE JARDUERA BATZUK	48	134	3.603	
Dantza				
	46	134	3.603	
Antzerkia				
	2	2	110	

Programazioa
Musika

20  24



Programazioa

MUSIKA

Ohikoa den bezala, hiru bloke handitan aurkeztu zen Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko Musika programazioa 2024an:

Alde batetik, bertako proposamenak nabarmendu behar dira. 24 bat talde euskaldun igo ziren Victoria Eugenia Antzokiko eszenatokira. **Idoia** eta **Eñaut Elorrieta** adibidez, baita **Gure Ahotsak** zikloaren barruan, **Neomak**, **Merina Gris** eta **Queralt Lahoz** taldeak ere; horiek guztiek eta beste askok erakutsi zuten zer nolako kalitatea duten gure musikariek. Euskal Musikaren ekarpena aitortzen duen **Adarra Saria**, bestalde, **Errobi** taldeak eskuratu zuen, eta ia erabat bete zen aretoa, sari-banaketako egunean eskaini zuen kontzertuan. **Ene Kantak** taldeak, lau


emanaldirekin, eta **Ruper Ordorika** abeslariak ere maila bikaina erakutsi zuten, Antzokiko areto nagusiaren edukieraren %65 betez. **Ricardo Aldarondoren** ekimenak, Eguberrietako **Discos Mon Oncle** kontzertuak, berriro erakarri zuen bere publiko leiala, bertako musikari ugariaren parte-hartzearekin egin zen proposamenaz goatzera: **Mikel Erentxun**, **Eñaut Elorrieta**, **Sara Zozaya**, **Easo Abesbatza**, **Idoia Asurmendi** eta **Maite Larburu** musikariak izan genituen, besteak beste, Antzoki Zaharreko eszenatokian, Gabon-kanta herrikoien haien bertsioak eskaintzen.



Queralt Lahoz © Inti Gajardo



Idoia



Zaz © Jan Welters - Funnybones

Bestalde, Estatu eta nazioarte mailako musikariei dagokienez, abenduan **Zaz** taldeak eskaini zuen kontzertu intimista nabarmendu behar da, batez ere; erabat bete zuten aretoa. **Ismael Serrano** eta **Yerai Cortes** ere gailendu egin ziren haien gaitasunengatik, **Israel Fernández** eta **Diego el Morao** bezala.

Aurreko urteetan bezala, musika klasikoak ere izan zuen bere tokia **Donostia Musikak** (**Andoni Mercero, Josetxu Obregón, Conductus ensemble...**) eta Batura musika zikloak sustatutako proposamenei eta Sasibil Elkarte Lirikoak eskainitako zarzuelei esker (*La Tabernera del Puerto*, lehenengo seihilekoan, eta *La Revoltosa* eta *El Caserío* azkeneko seihilekoan)


Guztira, 23.000 lagun joan ziren programatutako 55 kontzertuetara.



Israel Fernández © Jokin Fernández



Merina Gris



Ruper Ordorika



Janus Lester



Christina Rosenvinge © Pablo Zamora

Programazioa
**Zinema eta Ikus-
entzunezkoak**

20  24



AEBetako western post-klasikoa eta garaikidea

koordenatzailea
Iñigo Marzabal



XII
Nosteratu bilduma

Programazioa

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Asteroko Nosferatu zikloak berriro heldu zion Tabakaleran zinema-genero jakin bati, aurtengoan, **Western** estatubatuarri (1962az geroztikoa). Hogeita hamar proiektzio liluragarri baino gehiago egin ziren, pantaila handiak gozatuak izateko pentsatutako zintak berreskuratuz.

Aurrera jarraitu zen Donostia Kulturak diruz lagundutako formatu ertaineko jaialdiekin, hala nola **Dock of the Bay XVIII** (ekainean), film laburren **Donoskino VIII** (urrian), eta **Itsaspeko 48. Zinema Jaialdia** (azaroan).

Zinema eta mendia uztartzen dituen **Menditour** zirkuituaren saioek (otsailean) ikusle ugari erakarri zituen 2024an ere. Bilboko beste jaialdi batekin lotuta, **Zinegoak** jaialdiaren Hedapena iritsi zitzaigun Donostiara (ekainean). **Emakumeen Etxearen** ziklo berria (urrian) arabiar emakume errealizadoreei buruzkoa izan da oraingoan, Tabakalerarekin lankidetzan.

Antzoki Zaharrean, bestalde, **ikus-entzunezko eta gizarte-arloko** askotariko galak izan ziren: Larrotxeneren ikasturte-amaiera, gure Bideoaldiarekin; AGISAS gala, *Bideak Zabalduz* proiektuarekin (urrian); **Begiradak** jaialdiaren amaierako gala (azaroan), baita **Klimametraje** gala ere (azaroan). Victoria Eugenia Antzokian, Atzegiko ikasleek haien trebetasunak erakutsi zituzten ekainean, ikasturte-amaierako galan.

Ikus-entzunezko ondorengo lanen aurkezpen publikoak ere egin ziren: **Balenciaga** telesailaren lehenengo kapituluak (urtarrilean); **Arantzazu** dokumentala (apirilean) eta Hika Teatroaren beste dokumental bat, **35 urte eszenara begira** (ekainean).

Tinko euskara elkartearekin hitzartuta, **Euskara Zine Aretoetara** programak ikasleak zinema-aretoetara eramaten jarraitu zuen, goizeko saioetan, adin-taldeen arabera hautatutako filmen gaiak lantzeko gida didaktiko eta guzti.

Azkenik, **Bang Bang Zinemak** bere programa bikoitz arrakastatsuak eskaini zituen, horietako bat Beldurrezko Zinemaren Astearekin lankidetzan, eta ez-ohiko beste bat, bere hamargarren urteurrenaren harira.



Festak

20 **DK** memoria 24



Errege Magoak

Ekialdeko Errege Magoek argi zuten aurten behar zuela izan; horrenbeste urtez gure hiria bisitatzera etorri ondoren, konturatu ziren ez zutela argazkirik gure hiriaren ikuspegi panoramiko batekin, eta erabaki zuten **ostiralean, urtarrilak 5**, azkenean erronka hori beteko zutela. Beharbada ez zen egunik aproposena eguraldiari dagokionez, eguna ilun eta euri-iragarpenekin hasi baitzen, baina ezin zieten hutsik egin eguna haiek ikustera joateko gorritz markatuta zuten milaka hurrei. Horregatik guztiagatik, **Igeldo Mendian** egin zuten gure hirian lehenengo agerraldia eta, **zozketa bidez** hautatutako **21** umerekin, badia atzean zutela argazkia egin ondoren, **funikularrean** jaitsi ziren, Ondarretan dagoen plazaraino.

Goizeko hamaiketan, gure hiriko auzoak bisitatzeko erabili zuten **kabrioleta** prest zegoen bere ibilbideari ekiteko: **Loiolako Erriberak, Txomin, Intxaurrondo, Altza** eta **Bidebieta** bisitatu ondoren, 14:20 aldera iritsi ziren udaletxera. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, hurrek Erregeak ikusteko zuten gogoa gailendu zen, eta neskato eta mutiko ugari elkartu zen geldialdiak egiteko ezarritako lekuetan. Bisita horietan, **errege-postariak eta Joselontxos txaranga** izan zituzten lagun.

15:30ean hasi zen **udaletxeko harrera**, eta **17:30** arte iraun zuen; ordu horretan, desfilerako prestatu ziren Errege Magoak. Hurbiltasun une hori aprobetxatu zuten hurrek egun horretarako haien azken nahiak jasotzen zituzten **gutunak emateko** eta Erregeei urtean zehar *bikain* portatu zirela erakusteko.

Normaltasunez egin ahal izan zen hiri-erdiguneko desfilea, atertu eta ez baitzuen ibilbidean zehar gehiago euririk egin. **Bost karrozaz (Jaiotza, Meltxor, Gaspar, Baltasar** eta gure hiriko **buruhandiei** eskainitakoa) osatuta zegoen segizioa, eta **18:00etan abiatu zen Boulevardetik**.

Hirian zehar Errege Magoak eraman zituzten karrozak greziar zibilizazioan (Meltxor), egiptoarrean (Gaspar) eta Afrikako sabanako animalien munduan (Baltasar) girotuta zeuden. Desfileari kolorea eta erritmoa jarri zioten **pajeek eta animazio-taldeek** ere hartu zuten parte.

Behin desfilea amaitu ondoren, Errege Magoek kontuan izan zituzten adineko pertsonak ere eta, **Los Pasai** txarangarekin batera, **adineko pertsonen** hiru zentrotara joan ziren, egun berezi horretan beraien maitasuna eta hurbiltasuna erakustera. **San Jose de la Montaña, Villa Sacramento** eta **Matia Rezola** izan ziren, hain zuzen ere, Erregeek bisitatu zituzten zentroak.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

San Sebastian Eguna - Danborrada

San Sebastian eguna **larunbata** egokitu zenez, jai egun hori are jendetsuagoa izan zen; **urtarrilaren 20aren** aurreko egunetan, urtero gure jaia iragartzen duten ekitaldiak ospatu ziren. Horrela, **ostegunean, urtarrilak 18, Haurren Danborradako pertsonaiak eta konpainiak** aurkezteko ekitaldia egin zen **Victoria Eugenia Antzokian**. **San Jose Ikastetxeko Anir Guyenbat** izan zen 2024ko **Danbor Nagusia**. Correspondió al **Colegio Santa Teresa Ikastetxea** la elección de las niñas y los niños que representaron a la sociedad donostiarra; **Marko Etxezarreta Hermida** encarnó el papel de alcalde de la ciudad.

Hiritar Merezimenduaren Dominak hilaren 19an eman ziren, udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan. Honako pertsona eta erakunde hauek jaso zuten aurten domina hori: **Adsis** fundazioak, **Ángel Rueda Aramaiok**, **ATECE** elkarteak, **Bizikletaz Adinik Ez** erakundeak eta **Mentxu Medelek**.

San Sebastian egunean bertan, eta leku berean, entregatu zitzaion **Urrezko Danborra Verdini Dantza Taldea** proiektuaren bultzatzaile **Isabel Verdini Carranzari**.

Ordu batzuk lehenago, hiriko banderaren igoerarekin eman zitzaion hasiera Donostiako jai nagusiari. **24 orduko** parentesia egiten dute horrela donostiarrek, **kalera irten eta haien egunik bereziena ospatzeko**. Bi danbor-talde berriekin –**Mamelena Elkartea** eta **Gaztelubide Gazte**– dagoeneko helduen **160 danbor-talde** daude.

2024an lehenengo aldiz, **danbor-talde mistoekin** hartu zuten parte **Catedral Centenario**, **Ondar Gain** eta **Zubi Gain** taldeek. Horrela, 2024ko edizioan, **154 danbor-talde** mistok, gizonezkoz osatutako bostek eta emakumez soilik osatutako batek hartu zuten parte. Danbor-taldeek eurek



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

emandako datuen arabera, **21.306** helduk hartu zuen parte danbor-talde horietan; emakumeak izan ziren % 54,23, eta % 45,76 gizonezkoak.

Bestalde, **25 urte** bete ziren gure hiriko auzoetako danbor-taldeetako ordezkariak Banderaren **igoeraren** ekitaldi ofizialean lehen aldiz parte hartu zutenetik. **120 lagunek** eman ahal izan zioten hasiera jaiari Konstituzio Plazatik, **Gaztelubideko** danbor- eta barril-jotzaileekin batera.

Erabateko arrakasta izan zuen ekitaldiak parte-hartzeari dagokionez, bai plazan bertan, bai telebista bidez -Banderaren igoeraren ETBko emanaldiak % 7,8ko sharea izan zuen-; arrakasta hori zaindariaren eguneko gainerako ospakizunetara ere hedatu zen eta, zalantzarik gabe, izan genuen eguraldi bikainak ere lagundu zuen horretan.

2024. urtean, **Loiolatarra kirol elkarteari** eman zitzaion San Sebastian egunean 24 orduz Konstituzio Plazan egon zen **hiriko Bandera**, elkartearen mendeurrenagatik.

Haurren Danborradak identifikazio-irudia estreinatu zuen: Horretarako egindako lehenengo irudiaren sortzaileak, Óscar Caslak (Cállate la Boca), haur-konpainia gehienetan dauden hiru pertsonaia sexugabekoren diseinua oparitu zion hiriri: danbor-jotzaile bat, sukaldari bat eta urketari bat, txuri-urdinez uniformatuta, gure banderaren koloreei keinu bat eginez.

Bai bezperan, bai hilaren 20an bertan eta, ikastetxe eta ikastolen kasuan, baita aurreko egunetan ere, haur-danborraden irteerak egin ziren. **Gaztelubide Txiki, UA 150 Haur Danborrada** eta **Kresala Txiki** Alde Zaharreko kaleetan ibili ziren urtarrilaren 19an, ostirala, arratsaldean, eta **Amaratarra Txiki Danborrada** hilaren 20an atera zen, arratsaldean hau ere.

Hilaren 20an, eguerdiko hamabietan, **41 ikastetxetako 48 konpainiatako 4.732 neska-mutiko** elkartu ziren **Alderdi Ederren**, erdiguneko kaleetan zehar haien danbor, barril eta ferretak astintzeko.

Bandera-igoeraren ekitaldiak bezalaxe, jende ugari batu zuen **bandera-jaitsierak** ere, ospakizuna larunbat gauez ospatzen zela aprobetxatuz. Kasu honetan, **108 lagunek** hartu zuen parte **Konstituzio Plazan** danbor-taldeak ordezkatzuz, eta **Unión Artesanarekin** batera hartu zuten parte jaiari amaiera eman zion ekitaldian. Orain dela dagoeneko urte batzuk irekitako berdintasunezko parte-hartze ildoarekin jarraituz, 2024an, **Unión Artesanak** hiru emakume izan zituen sukaldarien taldean, eta emakume bat danbor-jotzaileenean.

Hauexek izan ziren 2024ko festan egindako beste bi **ekintza aipagarri**: **Khaos** ikasle-elkarteko bi kidek, **Lucía Gorostidik** eta **Paula Sevillanok**, planteatutako **Gure Donostia** ekimena, komertzioetako **erakusleihoetan** Danborradarekin zerikusia duten **esaldi esanguratsuak** itsastea eta, horrela, donostiarrentzako balio emozional handiko espazio bihurtzea proposatzen duen egitasmoa; eta urtarrilaren 20an, 16:30etik 20:30era, hiriko erdigunea **ibilgailuentzako ixtea**.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Donostiako Kaldereroak

Otsailaren 3an, larunbata, ospatu zen Kaldereroen jaia, **hiriko zaharrenetako bat eta Inauteriak iragartzen** dituen. Fermin Calbeton kalean elkartu ondoren, **Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionaleko** kideak Konstituzio Plazarantz abiatu ziren, eta hantxe jarri zuten kanpalekua 22:00etan. Han, **Raimundo Sarriegik** konposatutako jai-errepertorioa jo zuten, Donostiako Udalaren **Musika eta Dantza Eskolako Bandaren** eskutik, eta **Kresala Dantza Taldearen** parte-hartzearekin.

Guztira, **19 tributan** antolatutako **412 kaldererok** hartu zuen parte, **Juan Antonio Anterok** antzeztutako **Erreginaren** eta haren **dama Amaia eta Ibon Anteroren** agindupean. Ondoren Alde Zaharreko kaleetan zehar egin zuen ibilaldian, Gauerdi txarangarekin aritu zen Konpartsa.

Urtez urte konpartsako kideak identifikatzen dituen pin oroigarria **Joseba** Galarragari eskainitakoa izan zen; **Galarraga** zuzendu zuen urte luzez konpartsa, erreginari eta haren damei beraien lana erraztuz eta irteeretan beste edozein kaldererok bezala parte hartuz, 1971tik 2023ra.



© Sonia Urreizti

Hiriko auzoetan, urtarilaren 27tik otsailaren 17ra, **Kaldereroen beste 12 konpartsak** egin zituzten desfileak.



© Sonia Urreizti

Inude eta Artzainak

Kaldereroen ospakizunaren hurrengo egunean, **igandean, otsailak 4, Kresala Elkarteko Inudeak eta Artzainak Konpartsako** 200 kidek baino gehiagok, **Joselontxos txarangarekin** batera, Alde Zaharreko kaleetan zehar desfilatu zuten, ohiko ibilbidea eginez.

XX. mende hasietako donostiar gizartearen antzezpen bat, non askotariko pertsonaiek duten lekua, baita *danborrada* batek eta **inude eta artzain** bikoteek ere; azken horiek beraien dantza-ikuskizuna eskaini zuten, pertsonaiek garai hartako ohiko egoerak irudikatzen zituzten bitartean. Behin Konstituzio Plazara iritsita, inude eta artzain bikoteek haien errepertorio guztia eskaini zioten Donostiako publikoari, **Udal Txistulari Bandaren** parte-hartzearekin.

Beste bi Inude eta Artzain konpartsak desfilatu zuten egun horretan bertan Gros auzoan –**Artaiñu Groseko Artzain eta Inudeak Konpartsa**– eta Amara Berri auzoan –**Ikasbide Ikastolako Iñude eta Artzainen Konpartsa**–. Otsailaren 10ean, **Antiguako Iñude eta Artzainen Konpartsak** desfilatu zuen auzoan.



© Sonia Urreizti

Inauteriak

Luis Angel Argotek donostiar ohiko elementuekin egindako kartela, **Caballero Dragón** izenburuarekin, hautatu zuten Donostiako 2024ko Inauteriak iragartzeko; **otsailaren 8tik, osteguna, 13ra, asteartea**, ospatu genituen.

Momo jainkosa, inauterietako pertsonaia nagusia, Bidebietako **Showtime** konpartsako **Mabel Vidal Sastrek** antzeztu zuen, eta berarekin batera ibili ziren segizio moduan, **Lydia Simón Callejón, Irati Núñez Calzada** eta **Joseba Vergara Torner**. **Banpiro Gotikoen** gaia aukeratu zuten beraien karakterizaziorako.

Illunben egindako konpartsen aurkezpena izan zen, zalantzarik gabe, konpartsetako kide guztien unerik kuttunena; 2024ko inauterietan, **otsailaren 9an** egin zen, **26 konpartsaren** parte-hartzearekin, haien janzkien diseinuak eta dantzarako duten trebetasuna erakutsi

zioten han zegoen publiko suharrari. Aurreko urteetan bezala, **streaming** bidez ere ikusi ahal izan zen gala **Donostia Kulturaren webgunean** eta **Festak-en YouTube-ko kanalean**. Galaren amaieran, **Inauterietako Jantzien Diseinu Onenaren Saria** eman zioten –bosgarren edizioa izan zen 2024koa– **Eureka** konpartsari, **La Circa Mágica** gaiarekin lotutako diseinuagatik; **Intxaur Txiki** konpartsak eta bere **Reino Mágicok** eskuratu zuten bigarren saria, eta bi konpartsak jaso zuten hirugarren saria: **Mystic** konpartsak –**Carnaval de Bichos**– eta **Txasiss** konpartsak – **Les Lumière**–.

Konpartsek desfilea egin behar zuten ordurako eguraldi-iragarpenak ez ziren batere onak **otsailaren 10erako, larunbata, haizeagatik alarma hori** eta guzti; beraz, goiz hartan bertan egindako bilera batean, DKFestak-ek konpartsei proposatu zien karrozarik gabe egitea desfilea; bozketa egin ondoren, eta kontuan hartuta



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

iganderako iragarpena ona zela, **konpartsek erabaki zuten larunbatean desfilerik ez egitea**. Otsailaren 11n, igandea, **26 konpartsak** hartu zuten parte, **hiru kategoriatan** banatuta: txikiak, ertainak eta handiak (kide kopuruaren arabera).

Konpartsa eta Karrozen Lehiaketako palmaresari dagokionez, aurtan ere **Eureka konpartsak** irabazi zuen **Inauterietako Sari Nagusia**; aurrez esan bezala, **La Circa Mágica** gaia antzeztu zuten. iHa vuelto el Grand Prix! gaiarekin, **Furius** konpartsak jaso zuen **Umorearen Sari Nagusia**. Aurrez aipatutako hiru kategorietako bakoitzaren barruan ere saritu zituzten konpartsak eta karrozak. Otsailaren 16an **Urnietako Oianume** jatetxean egindako **afari** batean eman zituzten sariak.

Beste ekitaldi batzuk ere egon ziren Inauterietako jai-egitarauaren barruan, hala nola **Inauteri hasierako festa beldurgarria!**, udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan egin zena, inauteririk autoktonoenarekin lotutako jarduerekin, eta hainbat talderen parte-hartzearekin, hala nola **Eskola, Goizaldi, Gero**

Axular, Zubietako joaldunak... konpartsa enblematikoen irteerak **Los Bebés de la Bulla** kasu-, txarangak eta batukadak, herri-dantza, tangoa... Jende ugari erakarri zuen beste ekitaldi bat inauterietako **konpartsa historikoen** emanaldia izan zen; larunbat arratsaldean eta igande goizean, haien ikuskizunak eskaini zituzten, kaleetan zehar eta Konstituzio Plazan. Aurtan, **Eskolako** Lorezainen Konpartsak, **Donostiako Tennis Elkarte Errealeko** danbor-taldeak, **Unión Artesanako** Percebes Konpartsak, **Amarakaldeko** Kaldereroen Konpartsak eta **Gaztediko** Oilarren Konpartsak hartu zuten parte.

Sardinaren Ehorzketaren ondoren **otsailaren 13an, asteartea**, izan zen hori-, oraindik ere beste hiru aukera egon zen konpartsak hiriko kaleetan desfilatzen ikusteko: **Loiolako Erriberatako** desfilea, otsailaren 17an, larunbata, egin zena; **Piñataren** desfilea, Altzan, hurrengo egunean; eta **Bidebietan** egin zena, otsailaren 24an, larunbata.

San Joan bezpera

Ekainaren 23an, iluntzean eta gauean, guztira **20 San Joan su** piztu ziren hiriko auzoetan, eta udako solstizioa ospatzeko **hainbat ekitaldi egin zen suaren bueltan**.

Konstituzio Plazan egin zen San Joan bezperako ekitaldi nagusia, udalbatzaren, Udal Txistulari Bandaren eta **Goizaldi, Arkaitz, Eskola** eta **Gero Axular** dantza-taldeetako dantzarien parte-hartzearekin.

San Joanetako zortzikoaren eta zuhaitzaren errituaren ondoren, plazan elkartu zirenek plaza erdian jarritako lizarraren azala bildu ahal izan zuten; ekitaldia amaitzeko, erromeria egin zen, Udal Txistulari Bandaren eskutik.



19 suak

Auzoak

Aiete	
Intxaurrondo (2)	Morlans
Amara	Egia
Larratxo	Oleta
Amara Zaharra (2)	Gros
Loiola	Alde Zaharra
Antigua	Herrera
Martutene	Loiolako Erriberak
Bidebieta	Igeldo



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Aste Nagusia

Abuztuaren 11tik 17ra ospatu zen **2024ko Aste Nagusia**. Guztira, **376 jarduera** antolatu ziren zazpi egun horietarako. **Eneko Goia** hiriko alkatearen esanetan, **bikaina** izan zen Aste Nagusia, **aho-zapore oso ona** izan zuen eta programatutako jarduera gehien-gehienak egin ziren, gorabehera aipagarriarik gabe.

Eskubaloiko **Bera Bera** taldeko neskek eman zioten hasiera Asteari, **Artillero** interpretatuz; jokalar horiek Liga, Kopa eta Superkopa irabazi zituzten 2024an.

Dagoeneko sustraituta dagoen programazio-eskema batekin, nahiz eta hainbat aldaketa zehatz eta Kursaleko terrazetako gaueko programazioan kontzeptu berri bat txertatu zen, egun horietako jai-giroa helarazi zitzaizen donostiarrei zein bisitariei.

59.000 lagun joan ziren **Sagueseko** kontzertuetara; aipamen berezi merezi dute

La La Love You taldearen kontzertuak (12.000 lagun) eta **Nil Moliner** musikariarenak (9.000 lagun). **Kursaaleko** eszenatokiak **estilo ezberdinak** konbinatu zituen: hasi reaggea doinuetatik eta hiri-musika berriagoetara, beste genero batzuk ahaztu gabe, hala nola erromeria tradizionalak eta DJ ugari egunez eta gaez eskaini ziren emanaldietan, Food Truck direlakoek jatorri ezberdinetako askotariko proposamen gastronomikoak eskaini zituzten espazio batean. Musika-eskaintza osatzeko, hainbat orkestraren emanaldiak izan ziren gauero **Easo Plazan**, hainbat bandaren kontzertuak **Boulevardeko kioskoan**, eta estilo ezberdinetako musika-kontzertuak leku berean, gaez.

Antiguo, Amara eta Gros auzoak ere jai-giroko gune bihurtu ziren Aste Nagusian; kontzertuak, antzerki-ikuskizunak, magia-ikuskizunak, jarduera gastronomikoak, monologoak eta beste antolatu zituzten auzo horietan.

Haurrek gozatu egin zuten **Erraldoi eta Buruhandiekin** eta **Suzko Zezenekin, Bizikleta Festarekin**, antzerki- eta magia-emanaldiekin, puzgarriekin, haurrentzako jolasekin eta adin-tarte horretako umeentzako antolatutako kirol-ekitaldiekin.

Parte-hartzea handia izan zen ekitaldietan; lehiaketa gastronomikoetarako eta ibaian zehar piraguaz egin ziren bisitetarako, beharrezkoa zen alde zuretik izena ematea, eta argi eta garbi gelditu zen, kasu bietan, plaza kopuru handiagoa eskainiko balitz ere arazorik gabe beteko liratekeela. Herritarrentzako kirol-txapelketak eta -ekintzak ere -igeriketa zeharkaldia, hondartzako bolei jarduerak, pilota, jai-giroko ibilaldia bizikletaz eta patinez, nordic walking saioak, etab.- arakastatsuak izan ziren, eta kirola eginez tarte atsegin bat igarotzeko prest zegoen jende ugari erakarri zuten.

Konstituzio Plazako **ekitaldi folklorikoek** eta Easo Plazako **bertso saioek** jende ugari bildu zuten.

Herri-kirol txapelketetan, bikaina izan zen kirol-maila eta, **harri-jasotze** probetan, zehazki, emakumeen zein gizonen kategorietan, errekorrak hautsi ziren; horrela, **Uliako Harriaren** proban, 70 kiloko harria **21 aldiz** altxatzea lortu zuen **Ainitze Zumeta** zarauztarrak eta, horrenbestez, Zumetak berak aurreko urtean, 17 altxaldirekin, lortutako errekorra gainditu eta errekor berria ezarri zuen. Zazpi kirolarik hartu zuten parte norgehiagokan. Gizonen kategorian, **Igeldoko Harria** txapelketan, **Mikel Lopetegi Gereka Urrea** harri-jasotzaileak, zarauztarra hura ere, errekor historikoa gainditu zuen, **Goenatxok** 2002az geroztik 19 altxaldirekin zuena, eta **20 altxalditan** ezarri zuen errekor berria. Hamabi harri-jasotzaile lehiatu ziren. Bitxikeria bezala, esan behar da **Stepan Tsirkin** harri-jasotzaile errusiarrek hartu zuela parte 2024ko edizioan, eta 12 altxaldi egin zituela; gogora dezagun aurreko urtean, 2023an, **Ryan Richard Stewart** iparramerikarrak hartu zuela parte, eta 9 altxaldi egin zituela. Aizkolarien **Urrezko Kopan**, berriz, **Iker Vicente** nafarra izan zen irabazlea.

2024ko Aste Nagusia iragartzen zuen kartela Lanzagorta estudioak egin zuen, eta *Aste Handia* izenburua zuen. Letraset orriak omentzen zituen diseinuak, dena digitalizatu baino lehen testuak errotulatzeko erabiltzen ziren hizki transferigarri haiek.

Aste Nagusia Abuztuaren 10etik 17ra

Jarduerak
376

ASTE NAGUSIKO PALMARESA

Herri Kirolak

Urrezko Kopa: **Iker Vicente**

Igeldoko Harria: **Mikel Lopetegi "Urre"**
(errekorra hautsiz - 20 altxaldi)

Uliako Harria: **Ainitze Zumeta**
(errekorra hautsiz - 21 altxaldi)

Aste Nagusiko XVII. Marmitako Lehiaketa
Idurre Aristizabal & Ibai Turrillas

"Etxekoekin sukaldean"

III. Lehiaketa Gastronomikoa
"Marxa"

(Apiñaniz - Aramburu familia:
Idoia, Antxon, Markel eta Xabat)

Aste Nagusiko VII. Legatza Saltsa Berdean Lehiaketa
Lourdes Saigos & José Barreiro

Aste Nagusiko VII. Paella Lehiaketa
Tomás Núñez & José Manuel Irigoyen

Aste Nagusiko I. Txipiroiak bere saltsan Lehiaketa
Tomás Núñez & José Manuel Irigoyen

Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa

Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketaren 59.

Edizioa jokatu zen, Estatuko lau pirotekniaren eta atzerriko hiruren parte-hartzearekin. Aurreko urteetan bezala, jende gehien erakarri zuen egitarauko ekitaldia izan zen. **585.000** bat lagunek gozatu zuten astean zehar piroteknien bildumez. Abuztuaren 14a, 15a (lehiaketa irabazi zuen **Pirotecnia Valenciana**-ren txanda izan zen) eta 16a izan ziren jende gehieneko egunak, gau bakoitzeko 80.000 lagun inguruko zifrekin; piromusikalaren gauak bakarrik erakarri zuen jende gehiago: 95.000 lagun.

Igandean, **abuztuak 11**, sargori handiko egunaren ostean, galerna altxatu zen **ezustean**, eta ezinezkoa izan zen **Pirotecnia del Mediterráneo**-ko valentziarrek gau hartarako prestatu zuten bilduma jaurtitzea. Haize bortitzak jarraitu egiten zuenez, eta 22:40etan hasita, hamar minutuero neurketak egin ondoren, 23:30ean, **jaurtiketa bertan behera uzteko** erabakia hartu behar izan zen.



© Pilar Aguayo

Aste Nagusiari eta Lehiaketari amaiera eman zien ikuskizun piromusikala **Pirotecnia Oleirense** portugaldarren obra izan zen, eta piroteknia filmetako soinu-bandekin uztartu zuen.

Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketaren 59. edizioa iragartzen zuen kartelaren izenburua **Erreflexuak** izan zen, eta 2023an egin zen argazki-lehiaketa irabazi zuen irudia erakusten zuen, **Svitlana Omelyanenko**-rena.

SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO LEHIAKETAREN 59. EDIZIOA

Abuztuaren 10etik 16ra + amaierako ikuskizun piromusikala, abuztuaren 17an

Publiko zenbatetsia

585.000 pertsona

Parte hartu zuten pirotekniak

- Pyrogenie Feuerwerk (Alemania)
- Pirotecnia del Mediterráneo (Valentzia)
- **Galernagatik bertan behera geratu zena**
- Illusion Fireworks (Erresuma Batua)
- Pirotecnia López (A Coruña)
- Luigi di Matteo Fireworks (Italia)
- Pirotecnia Valenciana (Valentzia)
- Pirotecnia Vulcano (Madril)

Palmaresas

Urrezko Maskorra:

Pirotecnia Valenciana (Valentzia)

Zilarrezko Maskorra:

Pirotecnia Vulcano (Madril)

Brontzezko Maskorra:

Illusion Fireworks (Erresuma Batua)

Epaimahai Gaztearen "Super Amara" Saria:

Illusion Fireworks (Erresuma Batua)

Herri-epaimahaiaren Saria:

Pirotecnia Valenciana (Valentzia)

Abuztuaren 31aren oroitzapenezko ekitaldiak

Bete egin ziren abuztuaren 31rako iragarpen meteorologikoak, eta ezin izan ziren egin 1813an gure hirian bizi izan zen zoritxarra oroitzeko programatutako ekitaldietako batzuk.

Normaltasun osoz ospatu ahal izan ziren goizerako aurreikusitako ekitaldiak; 12:45ean San Vicente elizan ospatu zen **oroitzapenezko mezaren** ondoren, udal agintariek **lore-eskaintza** egin zuten Itsas Atean (Portaletas), 1813an hiriaren arpilatze eta suntsipenaren biktimen oroipenean. Arratsalderako aurreikusita zegoen **antzezpen historikoa** eta, hasiera batean, 16:00etan, Kursaal inguruan programatutako ekitaldiak hasi ziren arren, eguraldiak berehala hondatu zituen ekitaldiok eta, 19:00ak aldera, bertan behera utzi behar izan ziren tropen desfilea eta ondorengo antzezpena.

21:30etik aurrerako ekitaldiak egin ahal izan ziren, euriak atsedean pixka bat eman baitzuen;

hiriko hainbat elizatako **kanpaiei joaldiaren** eta Apaizen Pasealekuan hiriaren **erreketa** antzeztu ondoren, abuztuaren 31 kalea **herriarren prozesioaren** eszenatoki bihurtu zen, argiteria itzalita eta kandelen argitan. Amaitzeko, **baterako emanaldia** eskaini zuten Santa Maria Basilikan Santa Zezilia, Easo eta Gaztelupe abesbatzek, Gorka Mirandaren esanetara, Udal Txistulari Banda eta Imanol Artola errezitatzaileak, Xabier Otegik aurkeztutako ekitaldi batean.

1813ko sutea baino lehenagoko hiriaren osaketa azaltzen duten panelak

San Jeronimoko hitzaldi-aretoan, abuztuaren 24tik 30era, **erakusketa** bat jarri zuten, hiria erre eta suntsitu baino lehen nola osatuta zegoen erakusten zuten azalpen-panelak eta garai hartako agiri orijinalak ikusteko aukera ematen zuena. Abuztuaren 27an, 28an, 29an eta 30ean, gaiari buruzko **hitzaldiak** egin ziren.

Euskal Jaiak

Abuztuaren 28an hasi ziren 2024ko Euskal Jaiak eta, 12 egunez, **60 ekitaldiz** osatutako egitaraua eskaini zieten donostiarrei zein egun horietan bisitatu gintuztenei.

2024ko **Sagardo Eguna** irailaren 7an egin zen (hilabeteko lehenengo larunbatean), Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko **39 sagardogileren** parte-hartzearekin. Gure herrialdean egiten diren sagardoak eta plazan bertan egin zuten muztioa dastatzeko aukera izan zuten herritarrek. **Arantza Eguzkiza** (Iparragirre Sagardotegia); **Iñaki Bengoetxea** (Ola Sagardotegia); **Joxe Angel Goñi** (Gurutzetza Sagardotegia) eta **Maria Jose Arregi** (Olagi Sagardotegia) omendu zituen sagardogileen kolektiboak.



© Sonia Urreizti

Dantza sueltoko txapelketan, berriz, 14 bikotek hartu zuen parte. Fandangoko bi pauso (*besoak dantzan*) eta arin arineko bi pauso (*txapela gainean*) egin zituzten; **Katerin Artolak** (Oiartzun) eta **Iker Belintxonek** (Lezo) osatutako bikoteak irabazi zuen 2024ko edizioa.

Egitaraua osatzeko, **Euskal Jaietan** dagoeneko errotuta dauden **ekitaldiak** ere izan genituen, hala nola gastronomiarekin lotutakoak –lehiaketak zein askotariko azokak–, kirol-txapelketak, musika-emanaldiak, ikuskizunak eta beste berri batzuk, adibidez, **Easo Abesbatza Kalez Kale**. Bestalde, **Juan Ignacio Iztueteri** omenaldia egin zitzaion, **Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira edo Historia** bere liburua argitaratu zenetik 200 urte bete zirela eta (1824-2024).

Sektoreko profesionalen artean aukeratu zen aurtengo kartelaren egilea, eta **Joseba Larratxe Berazadi Josevisky** komikigilearen obra izan zen: **Erromeria Digitala**.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Donostiako Traineruak

Donostiako estropadak hasi ziren iraileko lehenengo bi igandetan Kontxako Bandera zein traineruk -gizonezkoen zein emakumezkoen kategoriatan- jokatu zuten erabakitzeke estropadekin. **43 traineruk** hartu zuten parte sailkapen-probetan: horietako **23 gizonezkoen** kategorian, **abuztuaren 28an**, eta **20 emakumezkoenean, abuztuaren 29an**.

Iraileko lehenengo bi igandeetan, **irailaren 1ean eta 8an, 11:00etan (emakumeak) eta 12:00etan (gizonak)** jokatu zituzten **estropadak, jardunaldi bikoitzean**. Ezinbesteko hitzordua da hau Kantauri itsaso osoko arraunaren zaleentzako, eta jende ugari etorri zen gure hirira.

Bederatzigarren urtez jarraian, ADEGI Gipuzkoako enpresarien elkarteak **Adegi Sariak** eman zizkien bi egunetako lehiak kontuan hartuta denborarik onenak lortu zituzten Gipuzkoako traineruei. Aurten, **emakumeen kategorian, Donostia Arraun Lagunak** traineruak eskuratu zuen saria (Kontxako Banderaren irabazlea 2024an), eta **gizonezkoen kategorian, berriz, Amenabar Donostiarra** traineruak.

Asier Iturralde Gastón (Studio Gastón) loiolatarra izan zen Kontxako Banderaren 2024ko edizioa iragartzen zuen **kartelaren egilea**; arraunketaren munduan emakumeari protagonismoa ematen zion kartel horrek. **Beti aurrera!** zen kartelaren izenburua.

XVII. Kontxako Bandera Emakumeen kategoria

Parte hartu zuten traineruak
20 + Nortindal Donostiarra

Sailkatutakoak

Donostia Arraun lagunak
Tolosaldea Arraun Kluba
Astillero Eneryt Servicios
Chapela - Wofco
Hibaika Jamones Ancín
Kaiku Nortegas
Orio - Orialki

Irabazlea

Donostia Arraun Lagunak
(Denbora: 21:04:42)



© Sonia Urreizti

Kontxako Bandera Gizonezkoen kategoria

Parte-hartzaileak
23 + Amenabar Donostiarra

Sailkatutakoak

Zierbena Bahías de Bizkaia
Bermeo
Orio - Orialki
Cabo-Rianxeira-Boiro
Getaria
Orsa Hondarribia
Kaiku Berez Galanta

Irabazlea

Bermeo
(Denbora: 38:10,08)



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Santo Tomas Azoka

Beharbada **larunbategin egin zelako**, beharbada eguraldia lagun izan genuelako arratsalde erdira arte, 2024ko Santo Tomas Azokak ez zuen kale egin.

Azokaren kokaleku ezberdinetan, 162 postu jarri ziren, askotariko produktuekin; ez ziren falta izan frutak, barazkiak, gaztak, hestebeteak, kontserbak, eztiak, gozo gauzak, artisau produktuak, etab. Azokako produktu nagusia, txistorra, 42 postutan egon zen salgai, eta etengabekoak izan ziren talo postuetako ilara luzeak, goizean goizetik hasita.

Salmentei dagokienez, pozik azaldu ziren saltzaileak lortutako emaitzarekin, eta nabarmendu zuten salmenta oso onak izan zituztela goizean zehar. Turroiak, txokolateak, euskal pastela, erroskillak eta gaztak izan ziren eskari handieneko produktuak.

Oro har, inolako gorabehera aipagarriarik gabe egin zen Azoka, eta egitarauan aurreikusitako ekitaldi guztiak egin ahal izan ziren batere arazorik gabe.

Kaxilda Duroc arrazako 400 kilo inguruko txerri eme hibridoak bisita ugari jaso zuen Konstituzio Plazan.

Santo Tomas Azoka
Abenduak 21

Postuak
162

Kaxilda txerri emea
≈ 400 kg



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Txistorra, ezti, ortuari, barazki, fruta, txorimalo eta gastronomia lehiaketak egin ziren.

Gero Axular dantza taldeak antolatutako baserritar jantzien lehiaketa osatzeko, euskal jantzi tradizionalen erakusketa egin zen San Jeronimo kaleko hitzaldi-aretoan, abenduko bigarren hamabostaldian; guztira, gizonezko, emakumezko eta haurren 50 jantzi jarri ziren ikusgai, Gero Axular dantza taldeak euskal dantzen munduan egin duen 20 urteko ibilbidean zehar egin eta erabili dituenak.

Ez ziren falta izan herri-kirolak, animaliak, haurrentzako tailerrak, bertsolariak eta erromeria ere; hain zuzen ere, erromeriak eman zion amaiera, Boulevarden, San Tomaseko jai-egunari.

Kalkuluen arabera, 75.000 lagun inguruk bisitatu zuten Azoka egun osoan zehar.

Aurreko egunetan zein Santo Tomas egunean bertan, hainbat ospakizun egin zen gure hiriko **beste 9 auzotan**.

2024KO SANTO TOMAS AZOKAKO PALMARESA

Lur-gaien lehiaketa

Barazkiak: Carmen Etxeberria Irusta (Bergara)

Frutak: Maddi Iradi Peñagarikano (Hernani)

Jose Salaberria Memoriala:

Maddi Iradi Peñagarikano (Hernani)

Euskal Herriko XXVIII. Txistorra Lehiaketa

Ainhoa Loidi Iturzaeta - Kepa Loidi (Orio)

Donostialdeko Ezti Lehiaketa

Iñaki Alzuri (Donostia)

Txorimalo Lehiaketa

Thamessis Kultura Elkarte

Baserritar Jantzien VI. Lehiaketa -

Dotore Jantzi

Haurrak - Emakumeak: Maddi Galarraga

Haurrak - Gizonak: Hegoi Madina

Helduak - Emakumeak: Nora Bárbulo

Helduak - Gizonak: Unai Unanue

(aipamen berezia): Aritz Irazusta

Taldea: Lucía de la Fuente, Rosa Gisasola, Larraitx Artetxe

Aizkolarien VII. Urrezko Kopa

(emakumeak)

Nerea Sorondo (Nafarroa)

V. Esku Pilota Txapelketa

(emakumeak)

Sorondo - Rey (Alde Zaharra KKE)

Olentzero eta Mari Domingi

Olentzerok eta Mari Domingik eguraldi txarrari aurre egin eta ez zuten hutsik egin donostiar haurrekin zuten hitzordura; Urumea ibaitik iritsi ziren, txalupaz, eta Frantziako pasealekuan lehorreratu ziren, Gabonetako Azokaren ondoan. Han, hamarka haurrek egin zieten harrera eta, ondoren, antzinako kotxe batean sartu eta ibilbide bat egin zuten hiriko erdigunean zehar, bizikletaz jarraitzen zien segizio baten laguntzarekin: galtzagorriak, egurgin eta **Olentzerok eta Mari Domingik** gure hirian igaro zituzten lehenengo une horien lekuko izan nahi zuten guztiak joan zitzaizkien atzetik.

Udaletxera iritsi eta agintariak agurtu ondoren, 15:30ean, **harrera-ekitaldia** hasi zen Osoko Bilkuren Aretoan; han, haurrak agurtu eta azkeneko eskutitzak jaso zituzten, txikien nahi eta eskariekin. 17:30ean amaitu zen ekitaldi hori, eta lasaia, jarraitua eta jende-pilaketarik gabea izan zen.

Ondoren, **Olentzero eta Mari Domingi** beraien karrozara joan ziren, **desfileari** hasiera emateko. Eguraldiak batere lagundu ez zuen arren, etengabeko zirimiriarekin, jende ugari jarraitu eta txalotu zituen Olentzero eta Mari Domingi, eta gozatu egin zuten haien hurbiltasun eta umore onarekin. Desfilean, **17 taldetan, 500 bat lagunek** parte hartzea aurreikusten zen arren, azkenean, eguraldi txarraren erruz, taldeetako batzuk desfilean ez ateratzea erabaki zuten.

Gure hiriko **auzoetan** aurreikusita zeuden irteera batzuk ere zapuztu egin zituen eguraldi txarrak, eta gehienak bertan behera gelditu ziren edo barruko espazioetan egin behar izan ziren.

Desfilea amaitu ondoren, **Olentzerok eta Mari Domingik** udaletxeko terrazatik agurtu zituen Donostiako herritarrak, eta hurrengo urtean itzuliko zirela agindu zieten, oso pozik gelditu baitziren haur donostiarrek egin zieten harrerarekin.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Donostiako auzoetako jaiak

Guztira, **31 kolektiboren** baimenak kudeatu ziren, eta gure hiriko auzoetako jaiak ospatzeko beharrezko udal zerbitzuen ekarpenak koordinatu ziren. Beharrezko azpiegitura eskaini eta horien muntaia koordinatu zen, batzorde antolatzaileen lana errazteko helburuz. Uda-sasoian ospatu ziren jai gehienak (25).

Erregio Etxeak

Guztira lau jai antolatu zituzten gure hiriko eta probintziako Erregio Etxeek. Maiatzaren 26an ospatu zen urteko lehenengoa, **Erregio Etxeen XXXVII. Eguna**, hain zuzen ere, Konstituzio Plazan; egunean zehar, erregio ezberdinetako produktu tipikoak dastatzeko eta flokloraz gozatzeko aukera egon zen. Bost erregio etxek hartu zuten parte.

Casa de La Rioja etxeak **Errioxaren Eguna** ospatu zuen Bretxako plazan, ekainaren 15ean, eta **Mahats-bilketaren Jaia**, berriz, irailaren 29an, Boulevarden.

Centro Extremeño etxeak, bestalde, **Extremadurako Kultura Astearen 43. Edizioa** ospatu zuen Intxaurrendoko bere egoitzan eta, Behobia-Donostia lasterketarekin bat eginez, azaroaren 10ean, Bretxa-San Juan-Sarriegi zonan, **Extremadurako Ogi-mamien Eguna** antolatu zuten.

Senidetzeak

Martxo hasieran, **plaka eta trofeo** trukea egin zen Japoniako **Marugame** hiriarekin; gero, sari modura erabiltzen dira plaka horiek, Kontxan jokatzeko den hondartzako futbol txapelketan eta Marugamen egiten diren beste kirol-txapelketa batzuetan.

Wiesbaden hiriari dagokionez, **Wiesbadener Chorage** abesbatzako kideek gure hiria bisitatu zuten, Easo Abesbatzak 2023an Wiesbaden hirira egin zuen bisitari erantzunez. **Urriaren 15etik 20ra** izan genituen hirian. Egonaldi horretan, alkateak **harrera egin zien udaletxean**, eta **bi kontzertu** eskaini zituzten: bat San Vicente elizan, urriaren 16an, eta bestea Pasai Donibaneko San Joan Bataiatzailearen elizan.

Beste kolaborazio batzuk

Guzti honetaz gain, Donostia Kultura Festak unitateak 40 bat kolektibo eta elkarterekin kolaboratu zuen, espazio publikoa erabiltzeko beharrezko baimenak lortzeko laguntza emanez, bai eta haien ekitaldiak behar bezala garatzeko laguntza logistikoa eta aholkularitza ere.

Reafilma-ren **Traineras** dokumentalaren estreinaldira joan ziren unitateko ordezkariak, **MUGA** filmean kolaboratu zen, **Bartzelonako Mercé jaietan** parte hartu zen erraldoiekin, eta tokiko artisauei lagundu zitzaient, astebururo azokak eginda, baita pintore amateurrei ere, hilean behin azoka bat antolatuta...

Babesleei eskerrona

Eskerrak eman nahi dizkiogu hainbat erakunde eta markari, haien laguntzarik gabe ezin izango baitzitezkeen hemen aipatu diren ekitaldietako batzuk egin. Eskerrik asko zuen laguntzagatik: **El Diario Vasco, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insalus, Nestle, EKP, Frigo, Super Amara, ADEGI, Garbera, 18/70, Sagardoa Route, Euskaltel, Luckya, Basque Culinary Center** eta beste hainbat pertsona, enpresa eta erakunderi, lan hau posible egin duzuelako.

Jaialdia
Donostiako
Jazzaldia

20  24



Jaialdia DONOSTIAKO JAZZALDIA



EDIZIO PERFEKTUA

Erabateko arrakasta izan zuen **Donostiako Jazz Jaialdiaren 59. edizioak**, alde batetik, izan zuen maila artistiko eta musika-maila bikainagatik eta, bestetik, jendearen erantzun ezin hobeagatik, ia kontzertu guztiak egon baitziren jendez gainezka; guztira, **185.600** entzule izan zituen jaialdiak.

165.000 lagun erakarri zituzten **doako** kontzertuek, eta **20.604** lagun, berriz, **ordainpekoek**; horrela, Jaialdiaren historiako marka guztiak hautsi ziren. 32 herrialde ezberdinetatik erosi ziren sarrerak, 13 kontzertutan agortu egin ziren, eta salgai jarritako zenbakitutako sarrera guztien %88 saldu ziren.

Trinitate Plazako lau kontzertuetatik hirutan zintzilikatu zen *sold out* kartela, **Kutxabank Kursaal Auditorioko** sei kontzertuetatik hirutan, **Škoda San Telmo Museoko** lau kontzertuetatik hirutan, **Chillida Lekun** eskainitako bi kontzertutan, **FCC Victoria Eugenia Antzokiko** kontzertu batean, bai eta **Maria Cristina Hotelean** egin zen kontzertuan ere.



Gregory Porter © lolo vasco

Bikaina izan zen 2024ko edizioko musika-kalitatea; artista bikainak, bertako eta nazioarteko izarrak, artista hasiberriak, musika-estilo ezberdinak... Gure oroimenean geldituko diren kontzertuak eta momentuak: **John Zorn** artista zabal eta sutsuaren egundoko hiru saioak; **Donostiako Jazzaldia Saria** eskuratu zuen **William Parkerren** abangoardia eta askatasun sortzailea; **Silvia Perez Cruzen** ahots paregabea; **Lakecia Benjaminen** indarra; **Potter-Mehldau-Patittucci-Blake** artistaren maisutasuna; **Scofield Holland Duo** duetoaren jakinduria; **Gregory Porterren** ahots sakon eta liluragarria; **Larkin Poe** eta **North Mississippi Allstars** taldeen hegaldetar rocka; **IZARO** abeslari euskaldunaren adierazkortasuna; **Marcin Masecki** poloniarraren latindar sentsualitatea; **Júlio Resenderen** dotoretasuna...

Jazzaldiak asko eskertzen eta baloratzen du jendearen erantzuna; izan ere, musika-gune guztiak betetzeaz gain, 2024an ere, jokaera eredugarria izan baitzuten entzuleek, inolako arazorik eragin gabe. Musikaz, jai-giroz eta ospakizunez bete zen hiria **Jazzaldian**.



North Mississippi Allstars © lolo vasco



Izaro © lolo vasco



Marco Mezquida © lolo vasco



John Scofield - Dave Holland © lolo vasco



Marco Mezquida © lolo vasco



John Zorn © lolo vasco

Trinitate Plaza

Uztailaren 25ean, sarrera guztiak salduta eman zien hasiera Trinitate plazako kontzertuei Jazzeko izar bikainez osatutako laukote batek. **Chris Potter**, **Brad Mehldau**, **John Patitucci** eta **Johnathan Blake** artistek ezin hobeki ulertu zuten elkar, eta kalitate goreneko Jazza eskaini zuten. Gero, **Youn Sun Nah** musikariak, ñabarduraz eta kolorez betetako bere ahots hunkigarriarekin, **Elles** (2024) diskoa eta bere beste abesti batzuk aurkeztu zizkigun.

Ostiralean, **uztailak 26**, orduan ere Trinitate plaza beteta, bi kontzertu zoragarri gozatzeko aukera izan zen. Sasoi betean dagoen **Marco Mezquidak** bere azken proiektua eskaini zuen, **Tornado** (2023), baita ezusteko batzuk ere, hala nola **Xabier Leteren** *Xalbadorren Heriotzean* abestiaren bertsio ikaragarri bat. **Gregory Porterren** txanda iritsi zen ondoren; zentzu guztietan bikaina den artista honek plaza konkistatu zuen bere ahots paregabearekin.

Uztailaren 27an, **John Scofield** eta **Dave Hollandek** osatutako duetoarena izan zen lehendabiziko saioa, eta jazzaren inguruko jakinduriak betetako kontzertu paregabea eskaini zuten. **William Parker** etorri zen ondoren bere laukotearekin; hainbat unetan alboka erabiltzera animatu zen, gainera, inprobisatzaile bikain eta kontrabaxu-jotzaile ospetsu hau.

Azkeneko egunean, **uztailaren 28an**, **John Zorn** izan zen erabateko protagonista. **Jazzaldian** parte hartu duen beste aldietan bezala, 59. edizio honetan ere aztarna sakona utzi zuen estatubatuar musikariak. Berezia, zabala, emankorra, nabarmena, ozena, sormen handikoa eta zoro-zoroan aparta. Gozarazi egin zigun zorionez han egoteko aukera izan genuenoi; ahozabalik eta txundituta utzi gintuen bere musikarekin eta energiarekin.





William Parker Quartet © Iolo Vasco

Kutxabank Kursaal Auditorioa

Kursaal jauregia izan zen **Jazzaldiaren** aurtengo edizioaren protagonista handienetako bat, maila bikaineko sei kontzerturekin. Lehendabiziko egunean, **Silvia Perez Cruzek** erabat konkistatu zuen publikoa bere ahots zoragarriarekin, eta bere azkeneko lana aurkeztu zuen: ***Toda la vida, un día*** (2023). **Rufus Wainwright** kanadiarrak izugarri gozarazi zien entzuleei, bere ahots adierazkorrekin eta pianoarekin. Hilaren 25an, **Marisa Montes** brasildarrak ez zituen bere jarraitzaileak dezepzionatu. **John Zorn** musikari aparta ere izan genuen Kursaal jauregian; bi kontzertu eskaini zituen, uztailaren 26an eta 27an, eta berriro utzi zuen argi erabateko jenioa dela, eta Jazzaren mito bizia. Amaitzeko, uztailaren 28an, **Diana Krall** artista kanadiarraren emanaldirako sarrera guztiak agortu ziren, bere ahotsak eta pianoak erakarritako publiko sutsu batez betetako Kursaal jauregian.

FCC Victoria Eugenia Antzokia

JazzEñeren hamargarren edizioa izan dena hartu zuen FCC Victoria Eugenia Antzokiak. **570 bat lagun** joan zen, batez beste, kontzertu guztietara, eta kalitate handiko 8 musika-proposamenez gozatu ahal izan zuten: **Trinidad Jiménez, Roberto Nieva 4tet, Mariola Membrives Dúo, R.S. Basque Faktor, David Sancho, Juan Saiz, Marcelo Escrich Silent Quartet** eta **Martín Leiton Quartet**.

Uztailaren 28an, **Donostiako Jazzaldia Saria** jaso zuen **William Parkerrek** eta, jarraian, bere hirukotearekin batera, edizio honetako bere hirugarren eta azken kontzertua eskaini zigun baxu-jotzaile ospetsuak, argi utziz erreferente ukazina dela abangoardiako musikari dagokionez.

Keler Gunea

Zurriola hondartzan, eszenatokirik jendetsuena izan zen 2024an ere Keler Gunea (**123.000** lagun). Egunean bi kontzertu izan ziren han, uztailaren 24tik 27ra.

Uztailaren 24an, IZAROK inauguratu zuen Keler Gunea, eta **45.000** lagun joan ziren bere kontzertuaz gozatzera. Ondoren, 23:30ean, **Larkin Poe** taldearen txanda izan zen; **Lovell** ahizpek erakutsi zuten hegotar rock bandarik garrantzitsuenetakoa direla gaur egun.

Uztailaren 25ean, Merina Gris donostiarrek eman zioten hasiera egunari, zuzeneko biribil batekin. Ondoren, **Shinova** bizkaitarrek milaka jarraitzaile erakarri zuten.

Uztailaren 26an, Les Amazones d'Afrique taldeak dantzan jarri zuen jendea, bere afrikar erritmo alaiekin. Ondoren, bi hamarraldiko musika-ibilbidean zehar irabazi dituzten jarraitzaileak modurik onenean agurtzeko aukera izan zuten **El Columpio Asesino** nafarrek, haien musikarekin, eta jende guztia abesten eta dantzan jarrita.

Uztailaren 27a izan zen Keler Guneako emanaldien azken eguna. **North Mississippi Allstars** taldeko **Dickinson** anaiek entzuleak eurenganatu zituzten, maila goreneko haien hegotar rock bluesarekin. Jarraian, **Chill Mafia** kolektiboak eman zion amaiera eszenatoki honi, eta handizki egin zuen, gainera, **12.000** lagun dantzan jarritz, bere musika lotsagabe eta dibertigarriarekin.



Larkin Poe © Iolo Vasco

Skoda San Telmo Museoa

San Telmo Museoko **klaustroan** eskaini ziren goizeko lau kontzertuek musikari bikainak bakea eta lasaitasuna eskaintzen duen eta, kontzertuetan, pianoaren eta beste musika-tresna akustiko batzuen anplifikatu gabeko soinu garbiaz betetzen den espazio batean ikusteko eta entzuteko aukera oso berezia izan ziren aurtengoan ere.

Uztailaren 25ean izan zen lehendabiziko kontzertua, **Eri Yamamoto** piano-jotzailearekin batera aritu zen **William Parkerrena**; baxua jotzeaz gain, txistuarekin ere animatu zen, gainera. Bigarren egunean, uztailaren 26an, ostirala, kontzertu gogoangarria eskaini zuen **Júlio Resendek, Bruno Chaveiroarekin** batera (gitarra portugaldarrarekin). Uztailaren 27an berriro utzi zuen jendea bere musikarekin liluratuta, oraingo honetan pianoarekin, bakarka. Museoko azkeneko kontzertua **Marta Sánchezena** izan zen, eta argi utzi zuen zergatik den gaur egun Jazzaren munduan indarra hartzen ari den piano-jotzaileetako bat.



Larkin Poe © Iolo Vasco

Frigo Gunea, Fnac Gunea, Nauticool eta Chillida Leku

Milaka lagun joan zen (**37.250**) Frigo Guneko eta Fnac Guneko terrazetako doako kontzertuetara. Gustu guztietarako egitarau anitz batekin, tokiko hainbat talde aritu zen agertoki horietan, hala nola: **Elkano Browning Cream, Musika eta Dantza Eskola Big Band, Iñar Sastre, Nacho Sotso Trio, Oscar Garrido Quintet, Femm & Band, Gregario de Luxe, Les 4 Saxes & Co, Nhil, Alex Haro's Freedom, Euskal Hot Club, Fran Serrano Quartet 0202 eta Motelas.**

Nazioarteko izen handi ugari ere pasatu zen agertoki horietatik: **Lakecia Benjamin, Eddie Henderson & Steve Davis Quintet, Carolina Katun, Bigyuki Band With Tomoaki Baba, Pere Bujosa Trio, Marcin Masecki eta North Mississippi Allstars.**

Jazz kontzertu batez gozatzeko espazio pribilegiatua den Nautikoa ere bete egin zen **Jazzaldian, Carolina Katún eta The Fake Cousins** artisten emanaldietan. **Paul San Martin** eta haren lehengusuak izan ziren **Nauticool** eszenatokiko protagonistak, lau egunez jarraian eman zituzten kontzertuekin.

Eduardo Chillida jaio zeneko ehungarren urteurrenarekin bat eginez, **Jazzaldiak** bost kontzertu eskaini zituen **Chillida Leku** museoko lorategietan: **Iñaki Salvador** uztailaren 21ean, **Noa & The Hell Drinkers** hilaren 25ean, **Federica Michisanti Quartet** uztailaren 26an, **Carole Alston** 27an, eta **MAC Saxophone Quartet-Rosario Giuliani** hilaren 28an.



Lakecia Benjamin © lolo vasco



Iñaki Salvador © lolo vasco



Carole Alston © Iolo Vasco

12. Txikijazz

Bikainak izan ziren 12. edizio honetako bost kontzertuak. Aipagarriena, sortu zen giroa, gurasoek musikarekiko erakutsi zuten errespetua eta, batez ere, txikien gozamina. Elkarren artean oso bestelako bost kontzertu izan ziren, baina guztiak ere kalitate oso onekoak. **Noa & The Hell Drinkers** taldeak etorkizuneko blues zalez bete zuen **Chillida Leku**, eta **Itziar Yagüe** eta **Carole Alstonek** gozara egin zieten familiei, haien ahots zoragarriekin. **Swingtronics** eta **Elkano Browning Cream** taldeek dantzan jarri zuten jendea, lehendabizikoek **Tabakalerako Kutxa Fundazioa** plazan -lepo bete zen- eta bigarrenak, berriz, **Fnac Terrazako** eguzki distiratsuen azpian. Edizio oso berezia izan zen.

Streamingak eta sare sozialak

Edizio honetan, **JazzEñeko** zortzi kontzertuak eskaini ziren streaming bidez, doan. Youtube-ko kanalean zintzilikatuta eta eskuragarri geldituko dira kontzertu horiek.

Sare sozialei dagokienez, **45.979** jarraitzaile izan genituen.

WEBGUNEAK

www.jazzaldia.eus

Azkeneko 30 egunak:

- 54.818 erabiltzaile
- 571.000 bisita
- 1.393.720 ekitaldi
- Batez besteko interakzio-denbora: 2'14".

Azkeneko 12 hilabeteak:

- 135.076 erabiltzaile
- 909.432 bisita
- 2.326.325 ekitaldi
- Batez besteko interakzio-denbora: 1'50".
- 172 herrialdetatik sartu da jendea gure webgunera.

60. Jazzaldia (2025):

Donostiako Jazzaldiaren hurrengo edizioa, hirurogeigarrena, **2025eko uztailaren 22tik 27ra** ospatuko da, eta dagoeneko lanean ari gara.

Jaialdia
Glad is the Day

20  24



ABUZTUA 4
4 DE AGOSTO
12:00 - 21:00

CRISTINA ENEA
PARKEA,
DONOSTIA
DOAN/GRATIS

GUAYO IS THE DAY

1111
ALDI
ALCALA NORTE
ALTA

LA TXARRA
MAGIA BRUTA
MAKEDA
SALA GOKUA

ERROMINTXELAK
IGIL BADI
KALIROIXO
LA CLA MALDITA

SILVERIO
SIX SEX
SATE GUARO



KELER
BERRUNTIA 1010

KUTXA
FUNDA
ZIOA



le BUKAYEN
maldita klaka



Jaialdia GLAD IS THE DAY

Pasa den abuztuaren 4an, Cristina-Enea parkea berriro bihurtu zen kulturaren eta musikaren Donostiako epizentro, Glad is the Day jaialdiaren zortzigarren edizioarekin. Egun eguzkitsua eta tenperatura ezin hobea egin zuen, eta **15.000 lagun** inguru elkartu ziren, Donostiako udako jaialdirik enblematikoenetakoa bihurtuz. Donostia Kulturako kultur etxeek antolatuta eta **Egia Kultur Etxeak**, **Dabadabak** eta **Le Bukowskik** koordinatuta, kultura-esperientzia anitz eta eskuragarria eskaini zuen jaialdiak. **Keler-en** babesletzari eta **Tabakalera** eta **Kutxa Fundazioaren** kolaborazioari zor zaie arrakasta hori.

Etenik gabeko bederatzi ordu musika eskaini zuen egitarauak, jende guztiarentzako proposamenekin. Eszenatoki nagusian, **La Ola Maldita** taldearen energiaz betetako surf rocka, **Erromintxelak** taldearen swing eranskorra eta **Alcalá Norte-ren** postpunka nabarmendu ziren. Azpimarragarriak izan ziren **La Txama** taldearen doinu eklektikoak, **Magia Bruta-ren** ereserki emozionalak eta **Ibil Bedi** taldearen hitz introspektiboak ere. **Silverio** mexikar artista karismatiko eta polemikoak itxi zuen jaialdia, egun gogoangarri hura adrenalinaz gainezka amaituz.



La Ola Maldita © Juan G. Andrés (@foteropanico)



La Txama © Juan G. Andrés (@foteropanico)



Ibil Bedi © Juan G. Andrés (@foteropanico)



Silverio © Juan G. Andrés (@foteropanico)

Aldi berean, trap, hip hop eta musika urbanoarentzako espazio zirrargarria eskaini zuen **Ruina Sónica** taldeak. Talentu handiek eskaini zituzten emanaldiak, **Makeda** (DJ), **1111** (Live) eta **Sara Goxua** (DJ) artistek, esaterako. Gainera, tokiko artisautza, *vintage* moda eta gastronomia konbinatzen zituzten 50 postu baino gehiagoko azokaz gozatu ahal izan zuten bertaratu zirenek. Haurrentzako antolatutako jarduerak eta elementu jasagarrien integrazioak berretsi egin zuten jaialdiak ingurumenarekiko eta belaunaldi arteko bizikidetzarekiko duen konpromisoa.



Sara Goxua © Juan G. Andrés (@foteropanico)

Bezperan, **Gladys Aperitifa** egin zen Nestor Basterretxea plazan, **Tabakalera** ondoan. Musika-gosea piztu zuen ekimenak, **OEP** Musikagelako taldeetako baten emanaldi bereziarekin; horrela, argi geratu zen berriz ere tokiko musikak duen garrantzia, huraxe baita jaialdiaren oinarria.

Ekitaldi horrekin, musika- eta kultura-aniztasuna ospatzeaz gain, hiri-parkeek aisialdi jasagarri baterako espazio gisa duten balioa ere aldarrikatu zen. Glad is the Day jaialdiaren 2024ko edizioak, bere izaera familiar, inklusibo eta jasagarriarekin, arrasto gogoangarria utzi zuen, Donostiako kultura-egutegiko galdu ezinezko hitzordu gisa duen pisua berretsiz.



Makeda © Juan G. Andrés (@foteropanico)

Jaialdia
**Fantasiatzko eta
Beldurrezko
Zinemaren Astea**

20  24





Alex de la Iglesia, kartelaren aurkezpena

Jaialdia

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

35. Astea (urriak 25-azaroak1) berriro izan zen fantasiako eta beldurrezko nazioarteko zinemarik onenaren erakusleihoa. Kalitate eta aniztasun jaia, proiektzioetara **11.318 ikusle** erakarri zituen (2023ko edizioan baino gehixeago); gainera, **9.735** lagunek hartu zuen parte aldi berean antolatu ziren jardueretan (iazko antzerako kopuruak).

Argi geratu da berriz ere euskal zinemak indarra duela; hala, inaugurazioko filma (***Daniela Forever***, **Nacho Vigalondo** zuzendariarena) zein itxierakoa (***Una Ballena***, **Pablo Hernandorena**) kalitatezko **euskal ekoizpenak** izan ziren, eta Estatuko generoan ez-ohiko proposamenak. Eta ezin ahaztuko dugu beste film bat, sail ofizialean, **Galder Gaztelu-Urrutiak** zuzendutako ***Rich Flu***.



Nacho Vigalondo & Aura Garrido, inaugurazioa



Halloween Gaia



Donostia Ghoul

Álex de la Iglesia euskal maisuak egin zuen jaialdiaz gozatzeko deia; poster ofizialaren protagonista izan zen, **Franz Kafkaren** heriotzaren ehungarren urteurrenean idazlea eta haren ***Metamorfosis*** omentzen zituen. Halaber, sendotu egin zen **euskal film laburren** saila, 2023an abiarazi zutena; lehenengo aldiz, EITB lanik onenari eskaintzen dion saria eman zen. Nabarmentzekoa da, bestalde, ***Planetagatik*** film laburraren estreinaldia, Donostia Kulturaren euskal sorkuntzarako ***Oihua*** ekimenaren hirugarren edizioari esker sortua (Euskara Atalarekin eta Gipuzkoa Film Comission bulegoarekin batera).



Animedon aurkezpena

Aurtengo berritasun nagusia izan zen gelditzeko etorri den sail berri bat sortu dela: **Animedon**. Japoniar animaziozko ikus-entzunezko produkzioak estreinatzeko espazio bat, jarduera osagarri ugari dituen (hitzaldiak, tailerrak, erakustaldiak...), eta publiko berriak sortzera bideratuta dagoena, publiko gaztea batez ere. Hasiera bikaina izan zuen sailak, **Dragoi Bola** telesail mitikoari egin zitzaion omenaldi jendetsuarekin. **Akira Toriyama** sortzaileari ere omenaldia egin zitzaion, erakustaldi kolektibo batean.

Stephane Levallois frantziar artista kontzeptualaren lanak eta **Goya-Hellboyren** unibertsoek, eta **Nacho Fernández** eta **Josean Olabe** istorio-sortzaileen proposamenek osatu zuten erakusketen zerrenda.



Dragoi Bola



Goya-Hellboy erakusketa, Stéphane Levallois

Jaialdia
**Giza Eskubideen
Zinemaldia**

20  24



Jaialdia

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Konpromisoa eta kontzientzia eraikitzen lagundu nahi duen jaialdi honen aurtengo edizioa apirilaren 12tik 19ra ospatu zen. Erantzun bikaina jaso zuen publikoaren aldetik, eta euskal zinemaren presentzia handia izan zen, baita palmaresean ere.

Indarkeriaren oi(h)artzunak (Publikoaren Saria) eta **Muerte en Amara** dokumentalak estreinatu ziren lehen aldiz, eta **Nina** euskal filmaren estreinaldia ere izan genuen. Bestalde, lau euskal film laburrek hartu zuen parte formatu horretako nazioarteko sailean.

Fernando Leóni eman zitzaion ohorezko sariak inauguratu zuen presentzia interesgarritz betetako astea; gure artean izan genituen, esaterako, **Benito Zambrano, Andrea Jaurrieta, Amaia Merino** eta **Ander Iriarte** zinemagileak, bai eta **Tamara Murielagoienaren, José Antonio Luengoren** eta **Carmen López Alonso** katedradunaren testigantzak. Ukraina, Palestina eta osasun mentala izan ziren interes handiena piztu zuten gaietako batzuk.

8.001 ikusle joan ziren Jaialdiko zinema-proiektzioetara: **4.920** lagun Victoria Eugenia eta Principal antzokietako **21** emanaldietara; **2.790 ikasle Principal** antzokiko goizetako **9** saioetara, eta **291** lagun Tabakaleran, **Zinema eta memoria** zikloaren barruan programatutako saioetara.



El salto, Benito Zambrano. Inaugurazioa



Nina, Andrea Jaurrieta & Iñigo Aranburu. Klausura



Fernando León de Arano, 2024 Saria

21

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2024

12 - 19 apirila / abril



Webguneak
www.zinemaetagizaeskubideak.eus
www.cineyderechoshumanos.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus
www.cineyderechoshumanos.eus

Patroizak / Patrocinadores



Erakundeak / Patrocinadores



Partenariatuak / Partners



Laguntzaileak / Colaboradores





Baloreak erakusketa

7.847 lagunek bisitatu zituzten antolatutako lau erakusketak: **Pakistan: Indusen ibaibideak** (Aiete Kultur Etxea), **26. Luis Valtueña Nazioarteko Saria - Argazkigintza Humanitarioa** (Okendo Kultur Etxea), **Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 20. Erakusketa** (Victoria Eugenia antzokia) eta **Baloreak** (Liburutegi Nagusia).

Gainerako jardueretan (**Mugi TÚ** online jokoa, Lamine Thiorren bakarrizketa Principal antzokian, eta Amnesty International erakundeak antolatutako mahai-ingurua: **Protestar no es un crimen**) **1.502** lagunek hartu zuen parte.



Los cauces del Indus erakusketak



Españul, Lamine Thior

Jaialdia
Literaktum

20  24



Jaialdia LITERAKTUM

Literaturarekin hitzordu sendoa

Azaroaren 11tik 24ra, Hitzen Hiri bihurtu zen Donostia Literaktum 2024 jaialdiarekin, antolatutako 53 ekitaldietan 8.400 bildu zituen edizioan. Donostia Kulturak antolatzen duen jaialdi honek literaturaren eta beste diziplina batzuen arteko elkarriketarako erreferentzia-gune izaten jarraitzen du; 2024ko edizioan, *Letrak zeruertzean* gaia jorratu zen, gatazka sozialetan, gerretan eta haien ondorioetan zentratuta.



Dolores Redondo © Iñaki Rubio



Eduardo Halfón © Iñaki Rubio

Figura nabarmenen parte-hartzea

Izen handiak izan genituen gure artean, hala nola **Eduardo Halfón**, **Monika Zgustova**, **Carmen Mola**, **Dolores Redondo** eta **Adania Shibli**. **Enrique Vila-Matas** idazleak **Luis Martín-Santosen** mendeurrenari eskainitako hitzaldi batean izan zuen parte-hartzea izan zen momenturik nabarmenenetako bat.

Literaktum Aperitifa: berritasun arrakastatsua

Lehenengo aldiz antolatu zen *Literaktum Aperitifa*, jaialdia ofizialki hasi baino lehenagoko ekitaldi bat, azaroaren 7an ospatu zena, eta **Martín Caparrós** kazetari eta idazleak hartu zuen parte. Ekitaldi horrek jende asko erakarri zuen, eta jaialdiaren egun nagusien atariko sendoa ezarri zuen.



Markos Gimenoren Karteletrek erakusketa © Iñaki Rubio



Carmen Mola © Iñaki Rubio

Egitarau anitza

Literaktum jaialdiaren 2024ko edizioak, literaturaren inguruko hitzaldiak eta aurkezpenak eskaintzeaz gain, bestelako ekitaldiak ere eskaini zituen, hala nola *Gernika*, *ikur bat baino gehiago* errezitaldi musikatua, Kafkaren *Metamorfosis* lanean oinarritutako irrati-antzerkia, eta haren omenezko afari tematiko bat. *Bertso saio espekulatiboa*, erakusketak eta Kutxa Fundazioa Donostia Literatura sarien banaketa ere izan genituen.

215

Funtsezko kolaborazioak

Nabarmentzekoa da kolaboratzaile-sare sendoa duela jaialdiak, hainbat erakunde barne, hala nola **Kutxa Fundazioa**, **Goethe Institut**, **Acción Cultural Española**, **UPV/EHU**, **Biblioteca Nacional de España** eta **Gipuzkoako Liburudenden Elkarte**.

Erakusketak eta omenaldiak

Egitaraua osatzeko, **Iau** erakusketa egin ziren, tartean **Luis Martín-Santos: Askatasun garaia**, San Telmo Museoa, eta **Markos Gimenoren Karteletrek**, Ernest Lluch Kultur Etxean.



Sabina Urraca & Ines Azpiazu © Iñaki Rubio



Beñat Sarasola © Iñaki Rubio

Literaktum Txiki arrakastatsua

Haurrei zuzendutako Literaktum Txikiak hainbat jarduera eskaini zituen, ipuin-kontalariak, antzerkia eta ilustrazio-tailerrak, besteak beste. Bere laugarren edizioan, **Nur-en abenturetan** oinarritutako **Ilustrazio Lehiaketak** 250 proposamen jaso zituen, eta jaialdiak gaztetxoenen artean irakurzaletasuna eta sormena sustatzearekin duen konpromisoa berretsi zuen.

Emakumeen protagonismoa eta aniztasuna

Literaturaren eskutik, gaurkotasunezko gai sozialei buruz hausnartzeko espazioa izan zen jaialdia. Emakume idazle ugari hartu zuen parte, hala nola **Dolores Redondok**, **Monika Zgustovak** eta **Adania Shibli**, eta parte-hartze horrek Literaktum jaialdiak duen ikuspegi inklusiboa eta anitza azpimarratu zuen.

Espazio anitz eta irekiak

Hiriko askotariko espaziotan egin ziren jarduerak: **kultura etxeetan**, **liburu-dendetan**, **Victoria Eugenia Antzokian**, **Antzoki Zaharrean**, **San Telmo Museoan** eta **Gastronomiaren Euskal Kofradian**, besteak beste. Sakabanaketa geografiko horri esker, Literaktum jaialdiak literaturaz blaitu zuen hiri osoa.

Presentzia digitala DK ON! eta DK Irratian

Ekitaldietara joan ezin izan zirenentzat edo haiek berriz bizi nahi dutenentzat, jardueren audioak entzungai daude DK ON!-en, DK Irratian eta beste plataforma digital batzuetan, era horretan jaialdiaren eskuragarritasuna eta irismena indartuz.

Etorkizunari begiratzen dion jaialdia


Balantze positibo batekin eta parte-hartzeari dagokionez markak hautsita, Literaktum jaialdiaren 2024ko edizioak berretsi egiten du literatura eta eztabaida garaikideak sustatzearekin duen konpromisoa. Publikoaren eta erakundeen inplikazioak jaialdia Donostiako kultura-ekitaldi garrantzitsuenen artean sendotu dadin bermatzen dute.



Monika Zgustova © Iñaki Rubio

Jaialdia
dFERIA

20  24



dFERIA 2024

MARTXOA
11-14
MARZO

DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

XXX. ARTE ESZENIKOEN FERIA
FERIA DE ARTES ESCÉNICAS




Ane Pikaza

Antolatzailea / Organizador



Babesleak / Patrocinadores



Laguntzaileak / Colaboradores



dferia.eus

Jaialdia dFERIA

dFERIA azokaren XXX. edizioa, inoiz baino nazioartekoagoa

dFERIAren 2024. edizioak jarraipena eman zion azken urteotan abian jarritako nazioartekotze-ildoari, batez ere Europari begira. Italia izan zen edizio honetako herrialde gonbidatua, Istituto Italiano di Cultura di Madriden laguntzari esker. Fruituak eman zituen horrek, eta nabarmen handitu zen nazioarteko profesional akreditatuen kopurua (%27 inguru). Gainera, nabarmenezkoak izan ziren izandako maila artistiko altua eta proposamenen aniztasuna, dFERIA estatu eta nazioarte mailako erreferente bilakatzen dutenak. Azkenik, publikoaren erantzunak eta akreditatuen mailak edizio biribil bat ondu zuten.



Negozio foroa, Tabakalera © Gorka Bravo



Feriaren hasiera, Victoria Eugenia Antzokia © Gorka Bravo



Yeled + Rhapsody In Blue + Shoot Me, Centro Coreografico Nazionale / Aterballetto © Gorka Bravo

dFERIAk sentsazio bikainekin itxi zuen XXX. edizioa. **14.284 lagun** izan ziren antolatutako jarduera guztietan: 8.227 ikuskizunetara, batez beste %84,48ko okupazio-mailarekin, eta 6.057 dFERIAko jarduera profesional eta ekitaldietara.

Proposamenei dagokienez, ikuskizunen kopuru handi bat (%60) estreinaldiak izan ziren modu batean edo bestean: bi mundu mailan, beste bat Europa mailan, hiru estreinaldi Estatuan eta hamar Euskal Herrian. Diziplinei dagokienez, %52 antzerkia izan zen, beste %44 dantza, %4 diziiplina anitzak. Konpainien jatorriari dagokionez, %40 euskal konpainiak izan ziren (10), %36 espainiarrak (6) eta %24 nazioartekoak. Italia, Kuba eta Argentinakoak izan ziren jaialdian parte hartu zuten nazioarteko konpainiak.

Akreditatutako lagunen kopuruak dFERIAk izandako marka guztiak hautsi zituen eta 2023arekin alderatuz ia %14 igo da. Guztira, **614 profesional** etorri ziren. Horietatik, 228 programatzaileak, 76 banatzaileak, 204 ekoizleak edo konpainia-ordezakariak, 55

erakundeak, 23 kazetariak eta kritikariak, eta 28 beste sektore batzuetako profesionalak. Nabarmendu behar da **nazioarteko profesionalen** kopuruak ere hazkunde handia izan duela, %27 ingurukoa, 2023ko datuekin alderatuta. Edizio honek nazioarteko 71 akreditatu izan ditu, eta horietatik 49 programatzaileak eta nazioarteko jaialdiak izan dira. Nazioarteko akreditatuen jatorriari dagokionez, hainbat herrialdetatik etorri dira: Italia, Lituania, Ukraina, Finlandia, Eslovenia, Georgia, Norvegia, Txile, Uruguai, Kolonbia, Brasil...



Forever, Kulunka Teatro © Gorka Bravo

Egitaraua

Edizio honetan parte hartu duten 25 konpainiek 25 ikuskizun aurkeztu dituzte, 34 funtziotan. 11 ikuskizunetan jarri behar izan da "Sarrerak agortuta" kartela.

Proposamenen hautaketari dagokionez, ondorengo ikuskizunak estreinatu ziren dFERIA-n:

Estreinaldi orokorrak

- *El patio de las moreras*, Vaivén Producciones eta Vernos, Pérez & Disla

Europar estreinaldia

- *UNA*, Compañía Perbacco

Estreinaldiak Estatuan

- *Yeled + Rhapsody In Blue + Shoot Me*, Centro Coreografico Nazionale / Aterballetto
- *La Classe*, Fabiana Iacozzilli / Cranpi
- *Geslomina Dreams*, Compagnia BlucinQue

Estreinaldiak Euskal Herrian

- *Together To Get There*, Akira Yoshida & Lali Ayguadé
- *La Declamación Muda*, Melania Olcina
- *Burgos & New York Dantz* (hiru pieza), Cidanz Producciones
- *Flamenco Negro*, Fernando López & Germain Bounou
- *A fuego*, La Bella Otero
- *En mitad de tanto fuego*, Miramedia
- *Macho Grita*, Alberto San Juan, Cía Nacional de Teatro Clásico, EQM
- *Nada ni nadie*, María de Melo Producciones

Zortzi agertoki izan zituen jaialdiak: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Kluba, Victoria Eugenia Dantza aretoa, Antzoki Zaharra, Gazteszena (Egia), Imanol Larzabal (Lugaritz K. E.), Intxaurren K. E. eta Kutxa Fundazioa (Tabakalera).

Bestalde, Erre Produkzioak-en *Bihar arte soilik* eta Vaivén Producciones-en *Masustondoen patioa* izan dira euskaraz eskainitako ikuskizunak.



Del color de la leche, Tanttaka Teatro © Gorka Bravo



Macho Grita, Alberto San Juan, Cía Nacional de Teatro Clásico, EQM © Gorka Bravo



En mitad de tanto fuego, Miramedia © Gorka Bravo



La Declamación Muda, Melania Olcina © Gorka Bravo

Nazioartekotzea

Europa da erronka eta bidea. dFERIAri Europa interesatzen zaio, eta Europari dFERIA. Joan-etorriko bideak sortzea, elkarrekin bidaiatzea, topatzea eta baterako ekimenak bultzatzea dira dFERIAk, Eusko Jaurlaritzarekin eta Etxepare Institutuarekin lankidetzan, ahalik eta urrutien iristeko erabakiarekin planteatzen zituen erronkak, ahalik eta urrutien iristeko asmoz. Nazioartekotzearen aldeko apustuak emaitzak lortu ditu, nazioarteko profesionalen ehunekoa nabarmen handitu baita, %27 inguru.

Era berean, nazioarteko proiektzio handieneko ikuskizunek ingelesez izan zituzten gain tituluak, eta titulazioa ezinezkoa zutenek aldi bereko itzulpeneko audiogida eskaini zuten.



Ongi etorri ekitaldia, Kutxa Fundazioa © Gorka Bravo



Yeled + Rhapsody In Blue + Shoot Me,
Centro Coreografico Nazionale / Aterballetto © Gorka Bravo

Eskerrak

Lehenik eta behin, hemengo ikus-entzuleei, egundoko erantzuna eman baitziguten emanaldietara etorritz. Baita Donostian dFERIArekin duten hitzordura inoiz huts egiten duten profesionalei ere, komunikabideei, azokari ematen dioten oihartzunagatik eta, azkenik, gure esker ona adierazi nahi diegu azken urteotan dFERIA babestu duten instituzioei beren lankidetzagatik. Haien laguntzarik gabe, dFERIA ez litzateke izango gaur egun dena. Honako hauei, alegia: INAEM, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia; eta beste hauei, haien kolaborazio bereziagatik: KUTXA FUNDAZIOA, Istituto Italiano de Cultura de Madrid, SGAE Fundazioa, Etxepare Institutua, Nafarroako Gobernua,

COFAE (Espainiako Estatuko Arte Eszenikoen Ferien Koordinakundea), REDELAE (Arte Eszenikoetarako Sare Eurolatinoamerikarra) eta María Pagés Fundazioa.

Bereziki nabarmentzekoa da euskal antzerki eta dantza konpainien inplikazioa, oro har, eta Eskenarena (Euskal Anzerki eta Dantza Enpresen Elkarte) eta EABrena (Euskal Aktoreen Batasuna) bereziki.

Horiek guztiek ekarri zituzten haien ideiak 2024ko edizioa definitzeko, ahal zuten guztian lagundu zuten, eta Feriarekin konprometitzen jarraitu, baita ekonomikoki ere.

dFeria-ren XXXI. edizioa

dFERIAren hurrengo edizioa **2025eko martxoaren 17tik 20ra** bitartean egingo da.

Jaialdia
Dkluba

2024

DK
memoria



Jaialdia DKLUBA

Dkluba programa musika-emanaldien zirkuitua da, auzoetako eta hiriko musika-eskaintza dinamizatzea, hasten ari diren tokiko taldeak ezagutzera ematea eta, gainera, izen handiko artistak etor daitezen bultzatzea helburu duena. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez, horren komertzialak ez diren proposamen alternatiboak programatzen dira eta balioa ematen zaio musikari, kolektibo, elkarte, klub eta sustatzaileen tokiko sareari. Azken batean, tokiko musika-talentuaren berezko erreferentea da Dkluba.

2024. urteko kanpainan, bete-beteko arrakasta izan zuen Dkluba programak. Eta horren erakusgarri izan zen **Glad is the Day** jaialdia; horrela, aurreko urtean bertan behera utzi behar izan ondoren, berrindartuta itzuli dena, eta edizio honetan eguraldi bikainarekin ospatu dutena. 15.000 bat lagunek gozatu zuten Cristina-Enea parkean Donostiako udako kultura-egutegian galdu ezinezko hitzordu bihurtu den ekitaldi honetaz. Azken batean, orain arte gogoratzen diren ediziorik biribilenetakoa izan zen 2024koa, bai bere edukiagatik, bai jendearen parte-hartzeagatik.



La Ola Maldita, Glad is the Day © Juan G. Andrés (@foteropanico)




Ibil Bedi, Glad is the Day © Juan G. Andrés (@foteropanico)

Dkluba zirkuituak –kultura etxeetako gainerako programek bezala (Musikagela, Larratxo Kultur Etxeko metal kontzertuak edo Lugaritz Kultur Etxeko askotariko musika-emanaldiak)–, bete egin zituen kontzertu-aretoak, izen handiekin; aldi berean, baina, tokiko artisten aldeko apustua egiten jarraitu zuen.

2024. urtean zehar, dagoeneko beraien lekua hartu duten artisten aldeko apustua egin zuen Lugaritz Kultur Etxeak, besteak beste, **Mice, Audience, Txuma Murugarren** eta **Jabier Muguruza** artistekin.

Dkluba programaren eszenatoki nagusia den Intxaurrondo Kultur Etxeari dagokionez, **Willis Drummond**en agurreko kontzertu gogoangarriarekin ekin zion 2024ari. Dagoeneko etxeko bihurtu den **Ariel Rothen** emanaldiaren ondoren, **Musikagela Weekend XIV** jaia iritsi zen, rock-doinurik amerikarrenekin, **Koko Jean and The Tonics** taldearen eskutik.



Jabier Muguruza

225



Udaberriaren iritsierarekin, musikarik onenaz gozatu ahal izan dugu aurten ere. Gurean izan ziren **El Kanka, Liher, Anari, Kulto Kultibo, Triángulo de amor bizarro, Höpper** eta, bi emanaldirekin eta sarrera guztiak agortuta, **Doctor Deseo**.

Uda-giroa iritsi zenean, ekainean, **V. Musikagela Fest** jaialdia itzuli zen Tomas Alba Plazara (Sagues), tokiko taldeen aire zabaleko jaialdi ibiltaria, Musikaren Eguneko jaiarekin bat egin zuena (ekainaren 21ean). Musikagelako tokiko zortzi talde aritu ziren (**Los Veletas, Shasha Smith, Suite Seda, Luke Armstrong, Oep, Thee Eliam, Gardena, La Ola Maldita**), eta talde gonbidatua, **Drugos** asturiarrak.



Sixsex, Glad is the Day © Juan G. Andrés (@foteropanico)



Alta, Glad is the Day © Juan G. Andrés (@foteropanico)

Abuztua izan zen aipatutako **Glad is the Day** jaialdiaren itzuleraren hilabetea, bere zortzigarren edizioan. Balia dezagun espazio hau jaialdiaren B aurpegia dei geniezaiokeen beste eszenatoki hori nabarmentzeko. **Ruina Sónica** deitzen da, eta trap, hip hop eta doinurik emergenteenak egiten dituzten figurarik berrienak izan genituen: **Makeda, 1111, Alai, Sara Goxua, Kalipotxo, Sixsex, Alta** eta **Sofy Suars**.

Ginmusica eta **Donostia Kulturaren** eskutik, publikorik gazteenarekin ekin zitzaion urriko egitarauari. Doinurik urbanoenez gozatu ahal izan zuten musikazale gazteenek, **Donostiakluba Festibalaren** hemezortzigarren edizioan, hainbat artista gazterekin, hala nola **Parkineos, Giovaaz, Rebe** eta **Lamia Mari**. **Kutixik** jaialdia ere iritsi zitzaigun urrian; tokiko musika-taldez osatutako **Balio dute** kolektiboak antolatzen duen ekimena da Kutixik. Haien lanari balioa emateko eta

euskarazko zirkuitu alternatiboa promozionatzeko osatu zuten kolektibo hori. **Neutroia, Bloñ, Tatxers, Mice** eta **Miruak** osatu zuten kartela.

Azaroan, indartsu ireki zuten hilabetea **Albert Plá** eta **Diego Cortés** musikariek, Dklubaren doinu aniztasuna erakusten duen itzulinguru bat emanez; hilabete amaieran, reggae eta dub musikaren onena ere itzuli zen Intxaurreondora: **Revolutionary Brothers**-ek antolatutako **Revolution JamRock 2024** ekimena, gauez ospatu zen jaialdi itzel batekin; **Mellow Mood Feat Dub Files, Marina P, Belén Natalí** eta **Eira** musikarien emanaldiak izan genituen.

Twangero, Los Veletas, Ander Zubillarga, Belako eta **Anariren** emanaldiekin eman zitzaion amaiera hirian klub musikarako gogoangarria izan zen 2024. urteari.

Jaialdia
Poltsiko
Antzerkia

2024



Jaialdia POLTSIKO ANTZERKIA

2024ko maiatzaren 2tik 19ra egin zen **Poltsiko Antzerkia Jaialdiaren 33. edizioa**, Donostiako kultura-hitzordurik garrantzitsuenetakoa dela berresteko balio izan zuena. Oraingo honetan, **2.640 lagun** joan ziren hiriko 25 espazio ezberdinetan eskainitako **32 emanaldiez** goatzera, jaialdi honen izaera berezi eta hurbilekoa sendotuz.

2024ko egitarauaren ezaugarriarik nabarmenena bere aniztasuna izan zen, gaiei eta alderdi artistikoari dagokienez, antzerki, umore, magia, mentalismo, kabaret, monologo eta musika proposamenekin. Gainera, bost produkzio berri estreinatu ziren, **Antzerkia Euskaraz Sortzeko Proiektuen XIV. Deialdiko** irabazle izan zen muntaia, **Promesa berdina egin diegu lagun guztiei**, **F Taldearena**, eta **Famiglia** obra finalista, **Maider Díaz** eta **Xabin Fernández** sortzaileena. Estreinaldi horiek euskarazko eskaintza aberastu zuten, eta jaialdiak sorkuntza berriak sustatzearekin

duen konpromisoa erakutsi zuten. Hizkuntza- eta genero- parekidetasuna izan zen jaialdiaren oinarrietako bat 2024an ere. Eskaini ziren 32 emanaldietatik, 16 izan ziren euskaraz, eta beste hainbeste gazteleraz. Parte hartu zuten konpainiei dagokienez, orekatua izan zen emakumeen, gizonen eta talde mistoen ordezkaritza, era horretan, espazio inklusibo eta anitza dela berretsiz.



Famiglia, Maider Díaz & Xabin Fernández © Iñaki Rubio



Promesa berdina egin diegu lagun guztiei, F Taldea
© Iñaki Rubio



Fiesta, The Chanclettes © Iñaki Rubio

Jaialdiaren alderdirik bereizgarrienetako bat da eszenatoki ez oso konbentzionalak hautatzen direla, hala nola tabernak eta publikoarengandik hurbileko beste lokal batzuk. Ikuspegi horrek, esperientzia intimo eta berezia sustatzeaz gain, aukera ematen die herritarrei haien hiria ikuspegi kultural batetik deskubritzeko. 2024an, Convent Garden aretoan egin zen **amaierako jaia, The Chanclettes & La Mega Pubilla** taldearen ikuskizun gogoangarri batekin, eta **Andoni Mutiloaren Gora Poltsiko Antzerkia!** kabaretaren estreinaldiarekin.

2024ko egitarauaren helburua izan da harritzea eta berritzea, gaurkotasuneko gaiak ikuspegi fresko eta probokatzaileetatik arakutzen dituzten **Ainhoa Aierbe** eta **Teresa Andonegiren Desorduetan** eta **Beatriz Egizabalen Magma Mia** ikuskizunekin, besteak beste. Halaber, sutsua izan zen publikoaren parte-hartzea; horrela, frogatuta geratu zen publiko leiala duela ekimenak, urtez urte Donostiako kulturaren klasiko bihurtu den hitzordu honetara hutsik egiten ez duena.



Desorduetan, Ainhoa Aierbe & Tessa Andonegi © Iñaki Rubio

Parte hartu zuten konpainiek eskertu egin zuten Donostia Kulturaren babesa, formatu txikiko antzerkiaren aldeko apustua egiten jarraitzen duelako; publikoari ere eskerrak eman zizkioten, ikuskizun guztietan erantzun baitzuen berotasunez eta konpromisoz. Elkarrenganako babes hori funtsezkoa izan da edizio honek arrakasta izan zezan eta, horrela, argi gelditu da jaialdi hau ezinbesteko espazioa dela arte eszenikoa sustatzeko eta hartaz gozatzeko.

2024ko edizioan, tradizioaren eta berritasunaren arteko oreka perfektua lortu zen. Finkatutako proposamen artistikoei lekua egiteaz gain, formatu, ideia eta talentu berriei ere ireki zizkien ateak jaialdiak, Poltsiko Antzerkiak esperimentazio kulturalerako plataforma bizi eta dinamikoa izaten jarraitzen duela erakutsiz.

Euskarazko antzerki-sorkuntzaren arloan ere inpaktu berezia izan zuen Poltsiko Antzerki Jaialdiak, **Udaleko Euskara Zerbitzuarekin** eta

Euskal Herriko Antzerkizale Elkartarekin duen lankidetzari esker. Baterako esfortzu horrek, euskarazko eskaintza aberatsa bermatzeaz gain, tokiko antzerki-produkzioa eta hizkuntza eszeniko berrien garapena ere sustatzen ditu.

2.700 lagun joan dira aurten emanaldietara; horrek agerian uzten du Poltsiko Antzerkiak Donostiako kultura-programazioan duen errotzea. Ekimen hau jaialdi bat baino zerbait gehiago da; artisten eta publikoaren arteko topagunea da, sormenerako erakusleihoa, eta hiri osoan eragina duen kultura-dinamizazioko motorra.

Edizio honek izan duen arrakastak erakusten du formatu txikiko antzerkiak leku pribilegiatua duela donostiarren bihotzetan. Poltsiko Antzerkiak aurrera jarraitzen du bere bilakaerarekin, etorkizunera bere sustraiak ahaztu gabe begiratu, eta arte eszeniko eskuragarri, hurbileko eta berritzailea sustatzearekin duen konpromisoa berretsiz.



Duzhe Gaizki, Amahiru © Iñaki Rubio



Material, Teatro de los Chinos © Iñaki Rubio

Ekoizpena

2024





SIXT enpresaren afaria

Ekoizpena

2024. urtean, Donostia Kulturako Ekoizpen Unitateak **683 ekoizpen** egin zituen (eta horiek muntatzeko 87 egun), Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoan, Kursaal Elkargunean eta beste espazio batzuetan egindakoak batuta.

Ekoizpen horien artean daude Donostia Kulturaren jaialdiak, hala nola Antzerki Azoka, Giza Eskubideen Zinemaldia, Jazzaldia eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea.


Aurten, Chillidaren Urteari hasiera emateko ekitaldiaren diseinua eta ekoizpena nabarmentzen da, Victoria Eugenia Antzokian egin zena.

Halaber, 2024an, Victoria Eugenia Antzokia bera hiru enpresaren gala-afarien egoitza izan zen.

Donostia Kulturaren aipatutako ekoizpen horiez gain, beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini zitzaizkien ekoizpen-zerbitzuak 2024an.

- **Kursaal Eszena** programazioaren barruko kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).
- **Urrezko Danborra** eta **Hiritar Merezimenduaren Dominak** emateko ekitaldiak, Donostiako udaletxean.
- **Musika Hamabostaldia**, Kursaal Elkargunean, San Telmo Museoan, Tabakaleran, udaletxean eta Haizearen Orrazian.
Azpimarragarria izan da, bestalde, *Carmen* operaren ekoizpena, Jaialdiak berak egin duena.
- El Diario Vascoren Eguberrietako kontzertua, Kursaal Auditorioan.
- Kursaal jauregiaren XXV. Urteurreneko gala.

Halaber, 2024an, Tramoia Motorizatzeko eta Maskor Akustikoaren Soluzio Teknikoaren Azterketa amaitu zen, hurrengo fasean sartzen dena, proiektuaren finantzazioari buruzko fasean, alegia.



SIXT enpresaren afaria



SIXT enpresaren afaria



SIXT enpresaren afaria

235



Eduardo Chillida 100 urte inaugurazio ekitaldia

